

Martin Maister

**JESÜ-KRISTEN
IMITAZIONIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurteco apheç batec itçulia*, Martin Maister. Pau, 1757.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00718.htm>

JESÜ-KRISTEN IMITAZIONIA

ZÜBERUAKO ÜSKARALA, HERRI BERAURTAKO
APHEZ BATEZ, BERE JAUN APHEZKÜPIAREN
BAIMENTUAREKI ÜTZÜLIA

Pauben, G. DUGUE eta J. DESBARATZ beithan
muldeko leteretan ezarria

M. DCC. eta LVII gerren urthian

**ILLUSTRISSIMO AC
REVERENDISSIMO
IN CHRISTO PATRI
DOM. DOM.
FRANCISCO DE REVOL,
EPISCOPO OLERONENSI**

Regi ab omnibus Consiliis, etc.

Nuri züzen jüstuagoreki gomenda leite librü-
ñu, hañbeste gizon bai debozionak, bai jakitiak,
besten artian señalatürik zaudianek, bere bizi-
tziaren xede huniala erakharteko, gidatako hartü
ükhen diena; eziez zure *handitarzünari*, o jaun
aphezküpü ezinago argitarzünez betherik zirena,
zure bizitze xüxenian, kolore bizi eli batez phin-
tatürik bezala, ageri direnen gañen, librü txipi
huntan edireiten diren eskola hunak, zuñen
ikhustia ezpeita neke zure botzari behatzen dire-
nentako, eta jaun aphezküpü mündü oroz laida-
tü den baten eginbiden jardiestia desiratzen dien
ororentako. Eta nula zure kargian, eta esküpi-
an den diozesaren pharte batek ezin eskola hun

hoietarik ajütürik ükheiten beitzian, bere sortze-
peneko lenguaia baizik etzakialakoz: hartakoz
hanko izalek ere, bestek hebentik idokitzen
dütien abantalletarik, ükhen lezen pharre, hen
üskarala ützüli izan den librüñü haur zure handi-
tarzünaren gomendiaren, baitaere sustengiaren
pian ezarri izan düzü; amurekatik hek ere untsa
ezagüt ahal dezen zuñen justoki, eta konplitüki
heben izkiribatürik daudian gaizak, zük egiten,
eta erraiten dütüzüneki, pareyü batetan jüntatü-
rik edireiten diren, eta thenpora beraurtan jar-
diets ahal dezen, zure exenplü ederraren argia
aitzinetik dielarik, gizona bere herranentietarik
bere beithan sar erazitzen dian berthütia, eta
haren berauren ajütiareki boroga dezen obra
hunnen baten ere egiteko indarririk eztiela bere
menguaren araur Jinkuaren graziaren sokhorriaz
lagüntiak ezpadira, eta indartsü gertha erazitzen
ezpadütü bizitze eternaliala gidatzen dien manü
saintien konplitzeko.

Grazia horren lagüngua dielarik arren ezagü-
türen dizie klarki, segür nüzü, librü txipi hunnen
behin beno haborotan irakurtetik, zuñen maitha-
garri, eta profeitable den, zuri artzañ hunari

bezala jarraikitia; orotan gainti berek ikhusten dien tenphoran, zük eztüzüla deusera egiten Jesü-Kristen, zuñen medioz Jinkuaganat hüllangia ükheiten beitätü, imitaziõiareki üdürüpen miragarri bat eztianik; eta zuñen eskusa gabe den, salbamentiaren jardiesteko, zük herexa eizten deizkükünentan gañen ebiltia; amurekatik khiristi ororen botuek hedatü behar dien lekhiak heltzera iseia ditian, eta zer nahi beita phenari ihesirik eztezen egin, desiratzen dien ürrhentze dohatsiaren atzamaiteko. Zure gehienguaren autoritate bizitze xahiareki jüntatürik daguenak, o jaun aphezküpü gisa oroz uhuratü izatia merexi düzüna, borthizki bulkatüren zitizü bere lengujia baizik, besterik batere eztakienak, nuizere librü haur irakurtüren beitie, heben, bere bizitziaren xüxentzeko, eta bihotzaren debozioniareki estekatzeko, propi diratekiala ezagütüren dütien gaizen ororen sü eta gozo handibateki konplitzera, zure handitarzünaren maniak, zuñ jaun erretoren medioz enthelega eraziren beiteizü, erakhar ditzan ber huni ahal bezañ ardüra so egitera, amurekatik berek borogatüren dien gairak segürta ditzan, zuñen handi datekian frütü

ezpiritüäl jardietsiren diena, irakurte saintü hun-
tan debotki, eta gogua ihurat baztertü gabe
thenpora enplegatüren dienian.

Besthalte eskolan dabiltzan haurrek üdüri da
abantalla haur jardietsiren diela, üskararen ira-
kurten ikhasten dielarik, hala nula latia eta fran-
zesa ikhasten beitütie, hanitxez ehiñerago
goguan etxekiren dütiela katiximan erakusten
zaitzen egia saintiak, eta Jinkuaren laidoriuen
kantikuak; errejentek erakutsi deikeienian bere
lenguajiaren hañ laster irakurten, nula bestetan
trebatzen beitütie.

Triballüñu hunen muldezko leteretan ezartia
unhesten badüzü, o jaun aphezküpü ezinago
konplitü zirena (hori beitate Jinkuaganat eta zure
manü pian ezarri izan zaitzün ardiatarat düzün
amuriuaren señalebat), haur dukezü zure handi-
tarzünari baizik ezin emaiten den laidorio bat; zü
ziratekiala zure aitzinetiko ororen lehena, ardi
saldotik pharte bat hañ bazka huniala eraman
dükezüna, zuñek beste bazkagütan batetan ere
müthürrik ezin phausatzen beitzian, eta zuñek
harentako ükhen düzün huntarzünaren orhit-
mentxa bethierekoz begiratüren beitü segürki,

ezagützia ere bai kharreiatüren. Lan hunen egi-
liak dena bezanbat, bere desirkünterik handie-
nak konplitürrik litikezü, harek egin dian iseyüñu
haur *zure handitarzünaren* gogoko baliz, eta
nuren ere abantallatako, jinkuaren ajütiareki,
hasi eta akabi izan beita, hen beren salbamen-
tiala hel erazitzeko zerbütxa ahal ledin, eta
moian beraurtzaz klarki ageri izan ledin, zuñen
lüharraitürrik, eta zunbat aphalmentüreki den
zure handitarzünaren begirari eta zerbütxari
leial bat, eta hari ezin haboro estekatü den bat.

M. M.

JAUN BIKARI JENERALAREN APROBAZIONIA

Irakurtu dizüt jaun aphezküpiaren manüz
Jesü-Kristen Imitazionia züberuako üskarala herri
beraurtako jaun aphez batez orai berri ützülia
librü hori atenzionereki irakurtüren dianak ikha-
siren dizü bere büriaren untsa ezagützen,
mündü falsü, eta erhuaren mesperetxatzen, eta

bihotza zelialat altxatzen dialarik zuñ diren moian següarak hara heltzeko. Hartakoz konbeni dela jüjatzen dit lehen beno lehen izan dadin inprimatia Jinkuaren gloriagatik, eta züberua herriko fidel ororen profeitü ezpiritüalagatik. Mauleko hirian baranthallaren laurgerren egü-nian, eta mila zazpi ehün, eta berrogeieta hama-sei gerren urthian.

Jauregizahar Mauleko erretor eta Diozesako
bikari jenerala

IRAKURZALIARI

Haur düzüla, ene irakurzale maitia, zuregatik zure linguajiala ützüli izan den librü bat, zuñ mündü ororen erranalia, eskritüra sainta berhez-ten delarik, beita, bere salbamentia egin nahi dianaren, izaten ahal den librürik hobena, eta baliusena; hartakoz ere eztüzü heltü bada bate-re haboro linguajetara ützüli izan denik (hañbes-tera drano juan izan düzü, sokhorri ezpiritüal hunen bat bederak bere herriari emaiteko ükhen dian nahikünte borthitza), arrazu horrek berak

salduatan desira erazi deio lan hunen egiliari, bere herritar gaxuer sortzepenezko lenguaia baizik eztakianer sokhorri berauren emaitia, ustez Jinkuaren bide hersian ebiltia, bere büriaren aphil etxekitia, mündiari gerla thai gabezko baten egitia, eta zelialako inbeia saintü baten ükheitia, librü hunen medioz ezagüt erazirik, bere salbamentiaren egitera erakharriren zütian: bena bere flakheziaz lotsatürik egon izan da thenpora lüzaz bentüratü gabe bere desirkuntia- ren konplitzera.

Azkenekoz hargatik lotsa hura garhaitürik, atrebitü izan da üskarazko librü gaxoñu hunen argiala ager erazitzera, ustez ezi (nula hatsarre bati beitaude gaizak oro), hartarik landa izan den nurbait, harek hüts egin lütükianak xüxentü- ren, eta hobekiago haren lehen iseia ezariren dianik, edo beste zunbait argitarzün zuri, ene ira- kurzale maitia, emaitera ekharri izan denik. Nitzaz dena bezanbat, Jinkuak baletsa, enian ükhen beste deseñik batere, haren gloria han- diaren txerkatzia, eta zure salbamentiarri bide segür baten erakustia baizik, amurio propi trai- dore gaxto harek pharterik batere gabe, zuñ,

uhuñ estalgunez estalgüne nuntik zer ebatsiren dian dabilan bat bezala, gizonen bihotzetan sartzen beita, hen obra hun uste dütiennen gaixto-tzeko, eta ezdeusteko, eta hetarik phakü ükhen behar lükienen her gal erazitzeko.

Hura da altxatürazi zahar zuñtzak gabetü behar dügüla apostoliak erraiten deizüna, zeren haren propitajia den bezala orhiaren hant, eta mingatz erazitzeakua: orobat ütsü den amurio harek, laidable uste dütügün egitatiak banitatezko aiziak hant erazitzen dütialarik ürrintzützen beitütü, eta hen mereximentia oro ezdeusetara erakharten. Hura da gizon zahar zuñtzaz bilaizi behar dügüla apostolü berak manü emaiten deizüna, amurekatik gizon berriaren beztimenta hunek beztitürik bekhatü orijinaletik baratü zai-zün khozü gaxto haren kuntre bühürtzen ikhas dezagün, eta gure mente orotan azken hatsiala drano hari gerla egiten. Hura da hitz batez etsai ezaba ezin ikhusten ahal dügün bat, gureki sort-hü, gureki hil behar dian bat, hartzaz zerbüt-xatzen da ezpiritü gaixtua gure bere lazuetan arza-maiteko, eta guri eskien artetik ezka erazitze-

ko salbazale adorabliak merexitü deizün gloria eternala.

Arren zer dirokegü zük eta nik, ene irakurle khariua, besterik phensa, baizik ere behar dütü-güla gure phenamentiak beleratz etxeki, eta gure egin ahalak oro bihotztoiki enplegatü, hañ ikharagarri den, eta hañ ezabaki bere phozua barreiatzen dian etsaiaren kuntre, amurekatik gütan abantalla ükheiteko lütükian bidiak zerra diatzogün.

Lehen phensamentü ükhen behar dügüna da gihaurdanik eztitakiala hañbeste itxura hunen üdüriaren pian gordatzen den etsaiari bühürt, barnetiko, eta kanpotiko sokhorriak gabe, zeren gihaurtan ezpeitirogü ediren flakezia, ezkazkeria, eta eritarzün baizik. Barnetikuak daude Jinkuak bere grazia saintiak ezpiritien argitarzün, eta bihotzen gortharzün emaiten deizünetan, zuñen merexitzeko hanitx zerbüttxatzen beitzai-zkü kanpotikuak.

Kanpotiko horik aldiz daude exenplü huner jarraikitian eta librü hunen irakurtian. Ellkidizü eskietara eror ahal librü sokhorri puxantagorik eman litzirozünik, eziez hunek emanen beiteizü.

Ezi batzen eta besten ükheiteko moianik hobena, eta llabürena bada sant augutinek dioian bezala, gure bürien, eta Jinkuaren untsa ezagutzia. Etziniro, zunbat nahibeita txerkü eginik, ediren librürik, hobeki ezagüt erazi litzirozünik, zuñen gure enthelegü ororen gañetiko den Jinkuaren izaria; era zuñen ezin erran ahal beno aphalago den gure ezdeustarzüna, gure flakezia, eta gure ajütü mengua.

Har ezazü arren har, ene irakurzale maitia, boztario handireki, zük orotan gainti zure sortzenezko linguajia baizik eztakizüna, librü zure zihaturen egin izan dela üdütüren zaizün haur. Hunen irakurtiareki batian agertüren zaitzü, lehen gorderik egoiten zeitzün eskaskeriak eta makülak, hetarik sendotzeko moiana edireiten düzülarik. Heben orai drano zihaurtzaz ustekeria sobera hun ükhen dütüzünen fundamen gabia ezagütüren düzü, hetariko soltantxaren Jinkuari galthatzeko. Heben zure ezdeustarzüna zunbatetara drano duen senditüren düzü, zük khürütxe eta aphaltarzün baizik eztüzüla merexi untsa ikhusteko. Heben ikhasiren düzü, Jinkuagatik baizik ezin egürükiten düzüla, zure flakezia gaiz-

kiala hañ erortoki denaren azkargarri eta sendogarrri moian hun denik batere. Librū hunen eskolek zure ezpiritari segürantza oso bat emanen dizie, hobiago dela Jinkuaren begien aitzineko gizon bekhatüz estalirik lizan bat ere, bena ümitatiaren handitarzünez begiak zelialat goitizera ezin bentüratzen den bat, eziez süperbius bere hunki egin hanitxez phakü lizatian bat; zeren bere büriak aphaal dadüzkaner Jinkuak hüllandanik so egiten beitü; gora dadüzkaner aldiz ez hürründanik baizik.

Eztüzü balinba ihesirik eginen zure arimari hañbeste abantalla ükhen erazi ahal diruan irakurte baliusari. Ez segür bezala nüzü ziharek, ihurk erran ahal litzirozün beno hanitxez hobeki, ikhusiren, ezagütüren, eta gozatüren dütüzüla huntan edirenen dütüzün egia saintiak. Has zite solamentz boronthate oso bateki, Jinkuari zor dütüzün gaizen konplitzian fidel izanen zirela: eta borogatüren düzü zihaur beithan zerbait hunialat bulkatüren zütianik, eta zure biziuek ahalketürik, hen kuntre hun diren konsellier behatüren zira, iseiatzen zirelarik her jarraikitze-ra. Ezagütüren düzü orano segürki zure debozio-

nalatko hotztarzüna khanbiatüren dela, zelialako berotarzün saintü batetara; eta zure gaizkialako enjogidüra hertüren dela, eta hunialakoa, emendatüren.

Bena nula librü hunek irakurtu izan behar bei-lüke familia asuek hobekienik profeita ahal liruen bezala, huntizale hortako, familiako gehien irakurten dakienek irakur lezen azkarki egünian kapitülü bat goizian edo arratsaldian, orok entzün ahal liroien bezala, mixkandiek hañ untsa, nula gañeratikuek; hel baledi aldiz lenen hanitxtarzünak eliroien üsartzerik eman, egün oroz egin bide horren konplitzeko, elükeie behar aments iganterik ez bestarik eitzi igaraitera hazkürü saitü hori bere arimer eman gabe.

Izanen da düda gabe zunbait erraile, üskarren irakurteko usantxa gabiak gaitz, phenus, eta gogo gabe gertha eraziren diala egin bide horren konplitzia, hori hala izanik ere hatsarrian, gerualat bethi hertüz juanen dira, ihur kostümatzen den bezala, eta emeki emeki beste lengüajen irakurtia ikhasten den bezala hunena ere ikhasiren da. Arrazu hori dela kausa errejente behar lükeie eskolier üskara baizik eztakianer librü

huntan irakurten erakatsi. Gisa hortan gaitz üdüri den gaiza ehitüren da, eta gogo eta profeti-tü habororeki batbederak irakurtüren dü berak enthelegatzen dian lengujia. Eztüzü arren esta-küriarik batere ükheiten ahal, zure arimari sok-horri hun horren emaitetik gibeltzen ahal zütia-nik. Zihauren barnetiko ezagützia har ezazü jaki-letako, eia ihurk erran ahal litzirozün beno hobe-ki eztüzünez senditüren, librü hunen irakurtian bihotzeko khanbiamentiak bide xüxenian eбилte-ko, eta Jinkuaganako desirak haren konplitükia-go zerbüttxatzeko, eta eia hanitx ordüz zelüko inspirarzünek etzütienez bizikiago hunkiren, eziez hanitx pherediküren entzütiak. Mendrene-tik aments hori dateke iseyüñu hunen egiliak Jin-kuari bere boto apha beno apha aguetzaz zure-tako galthatüren dian grazia, amureketik haren lan egina zure arimaren salbamentütako, eta Jin-kuaren gloriarik handienarentako gertha ahal dadin hala biz.

Hitz zunbaiten enthelegatzea neke zate-kiala jente komünaren üdüritürik, hen beren ezagützeko moiana jardiets ahal

dezan amurekatik phena hartan dateki-
nak, ezarri izan dira hollen zola zunbaite-
tan, hen enthelega erazitzeke mengua zire-
la uste ükhen dütügün argiak.

JESÜ KRISTEN IMITAZIONAREN LEHEN LIBRIA

Bizitze ezpiritualaren hun
eta profeitable diren abisiak

LEHEN KAPITÜLIA

Jesü Kristen Imitazioniaz, eta mündü huntako banitaten mesperetxiaz.

1. Eni jarraikitzen dena eztabila ülhünpian, dio Jinko Jaunak; hoiek dira Jesüsen hitzak, zuñek abisatiak beikira, behar dügüla haren egitatia, eta bizitzia imitatü, nahi bagira egiazki argitü izan, eta ütsümentü orotarik eskantzatü.

Gure arrankürarik handiena biz arren, Jesüsen bizitziaren ardüra ezpiritian ükheitia.

2. Jesüsek erakusten deizkün gaizak, saintü ororenak beno baliusago dira, eta haren ezpiritia lianak, han ediren liro manna estalia.

Bena heltzen da, ebanjeliuaren ardüra entzütiagatik, hanitxi etzaiela bihotza hunkitzen, zeren ezpeitie Jesüsen ezpiritia:

Nurk ere gozatü, eta untsa enthelegatü nahi beitütü Jesüsen hitzak, harek behar dü isaaiatü Jesüsenaren araur bere bizitze ororen igaraitera.

3. Zer profeitü düzü Trinitatiaz hitz handirik erraitia: Trinitatiaren gogoko ezpazire, ümilitatiaren ükhen gabez.

Egiazki hitz handiek eztie justua, eta saintia egiten: bena bai bizitze berthütusak Jinkuari kharrio izan eraziten.

Nahiago dit bihotzeko dolümena senditü, eziez jakin, zuñ hitzez enthelega erazitzen den.

Bazeneki ere eskritüra sainta oro gogoz, eta filosofo ororen jakitiak; zer profeitü zünüke Jinkuaren grazia eta amuriua gabe.

Banitäten banitatia dio zühürrak *eta oro dira banitate*, salbü Jinkuaren maite ükheitia, eta haren zerbützatzia.

Haur da zühürtze handia, mündiaren mespretxiez zelüko erresomalat juaitia.

4. Banitate bat da arren aberastarzün galdü behar dienen txerkatzia, eta hetan esparantxa ükheitia.

Banitate bat da orano uhuren jardiesteko egin ahalaren egitia, eta bere büriaren goratzia.

Banitate bat da aragiaren nahikünter jarraikitia, eta zertaz ere hañ garrazki ihurk gaztigatü izan behar beitü, haren desiratzia.

Banitate bat da bizitze lüze baten nahi ükheitia, eta haren untsa igaraitez ez axolatü izatia.

Banitate bat da bere goguaren oraiko bizitziareki estekatürük etxekitia, eta gero zer jin behar den aitzinetik ez ikhustia.

Banitate bat da laster beno lasterrago igaraiten den gaizaren maite ükheitia, eta bethi irañen dian alagrantzia haidürü daukünaren lekhiala lasterrekaz ez juaitia.

Ardüra orhit zite erran zahar hunez, eztela so egitez begia asetzen, ez eta ere beharria entzüttez.

Iseia zite arren, zure bihotzaren gaiza ikhusten ahal direnen amuriotik soltatzera, eta ezin ikhusten direntrat igaren erazitza; ezi aragiaren desirer jarraikiten direnek, kontzentzia theyützen dizie, eta Jinkuaren grazia galtzen.

II. KAPITÜLIA

*Bere büriaz sendimentü apha**l** baten
ükheitiaz.*

1. Gizon orok natüralki jakitia desiratzen die; bena zer profetü emaiten dü jakitiak, Jinkuaren lotsa gabe?

Jinkua zerbüttxatzen dian laborari ümilbat hobiago da düda gabe, eziez filosofo ürgüllütsü bat; zuñek bere arimaren arranküriak ükhen gabe, zelüko izarren lasterrak goguatzen beitütü.

Bere büria untsa ezagützen dianak, beraurtzaz eztü pheretxürik ükhenen, ezetare gizonen laidoriuetan plazerik hartüren.

Nakitzan ordian mündüko gaizak oro, ezpalin banü karitatia, zer balio lüke jakite harek Jinkuaren aitzinian , zuñek jüjatü behar beinai ene gaiza eginetan gañen?

2. Eztüzüla hanitx jakiteko desirkünthe handiegi bat, zeren barreiarzün, eta inganio handirik han edireiten beita.

Jakitusek bere bürien agertzez plazer hartzen die, eta zühürrak deithü izatez.

Hanitx gaiza dira, zuñen jakitia arimaren aphür; edo batere ezpeita profeytable.

Untsa da zentzü gabia, beste, salbamentiari baizik so eztaudian gaizer estekatzen dena.

Elhe hanitxek eztie arima asetzen, bena bizitze hunak bai enthelegiari indar emaiten, eta kontzentzia xahiak Jinkua beithan konfidantxa handi bat ükhen erazitzen.

3. Zunbatenez haboro eta hobekiago beitakizezü, hanbatenez garratzkiago jüjatü izanen zira, saintükiago bizitzen ezpazira.

Etzitiala arren handius izan jakitez, batez ere: bena lotsa ükhen ezazü lehenago eman izan zai-zün ezagütiaz.

Üdüri bazaizü hanitx badakizüla, eta aski enthelegü huna düzüla: halarik ere jakin ezzazü hanitxhez haboro direla zük eztakizünak.

Eztezazüla handiarena egin, bena aithor ezazü lehenago zure jakin gabia. Zeren nahi düzü zure büria beste bat beno haboruago etxe-ki, denen gañen zü beno jakitusagorik hanitx, eta zük beno hobeki legia enthelegatzen dienik?

Nahi badüzü abantalluski zerbait jakin, eta ikhasi: maite ükhezü ez ezagütü izatia, eta zützaz ez pheretxürik egitia.

4. Bere büriaren untsa ezagützia, eta mespretxatzia da, jakiterik baliusena, eta gorena.

Bere büriaren aphür etxekitia, eta besterenezaz sendimentü hunik eta gorarik ükheitia da, zühürtarzün, eta untsatarzün handi bat.

Ikhus bazeneza ere beste bat agerriz bekhatü, edo beste zunbait itxustarzünen egiten: halarik ere etzünüke behar uste ükhen, zü hura beno hobe zirela: zeren eta ezpeitakizü zunbat thenporak hunian egon zitakian.

Oro gira erorkor, bena eztüzüla uste badela ihurere zü beno erorkoragorik.

III. KAPITÜLIA

Egiaren jakitiaz.

1. Doatsü da egiak berak, ez figüra eta hitz igaraiten diren eli batez, bena bere beithan den bezala argitzen diana.

Gure ustekeriak, eta gure zentziak aphür ikhusten dü, eta ardüra inganatzen gütü.

Zer profeitü da gaiza estaliez, eta ezagütü eztirenez mintzatzia, eztügünen gañen behar, azken jüdiziozko egünian, hen jakin gabez laido-rik ükhen.

Erhokeria handi bat da gaiza abantallus, eta behar direnetzaz kasürik egin gabe, bolontarko-ki gaiza berritzepen ekharten eta damü baizik egiten ezteikiener esteka gitian. Begiak dütügü-
larik eztügü ikhusten.

2. Zer axola dügü filosofuek jenero eta espe-za deitzen dütien hitzetzaz.

Nuri ere berbo eternala mintzatzen beita, hura hanitx ustekeriatarik eskantzützen da.

Gaizak oro berbo harez beraz egin izan dira, eta orok lenguaje bera etxekiten die, eta hatsarre hura da guri mintzo zaizüna.

Ihurk ere hura gabe eztiro, ez enthelega ez jüja untsa.

Zuñentako orano gaizak oro bat beitira, eta bat hartara oro erakharten, eta oro hartan, ikhusten beitütü, hura bihotz fermo bateki izaten, eta Jinkuaren bakian egoiten ahal da.

O Jinko egia zirena, egin nazazü bat zureki karitate bethi irañen dianian.

Debeiatzen nüzü ardüra gaiza hanitxen entzütez, eta irakurtez: zütan düzü nik ahi düdan, eta desiratzen düdan gaiza oro.

Ixil bite dotorak oro, mütü bite kreatürak oro, zure aitzinian: zü baizik eztakidala ihur mintza.

3. Zunbatenaz nurbait bere beithan sartzenago beita, eta bere bihotzian sinpletzenago: hanbatenaz gaiza haboro, eta handiagorik enthelegatzen dü phena gabe: zeren eta zelütik enthelegiaren argia ükheiten beitü.

Eziritü xahü, simple, eta fermo bat ezta hanitx lanetan barreiatzen: zeren eta oro Jinkuaren

uhuretan egiyten beitütü, eta iseiatzen beita, berauri so daudian gaizetarik libratürik, phausian jartera.

Zerk haboro destorbatzen, eta khexa erazitzen zütü, eziez zure bihotzeko erortokidüraren aski hil erazi gabiak.

Gizon pherestü, eta debot bat batek kanpolan egin behar dütianak, aitzinetik bere beithan ikhusten eta alkharren unduan egiteko berhezten dütü.

Eta hek eztie inklinazione biziuseren nahiküntetara erakharten; bena berak plega erazitzen dütü hurak, arrazu xüxenaren maniala.

Nurk dü borroka azkarrago bat, eziez bere büriaren goitzera iseiatzen denak?

Gure egitekorik handienak izan behar lüke, gure bürien goitzia, eta egün oroz giren beno indartsiago gerthatzia, eta hunian profeitü zunbaiten egitia.

4. Mündü huntako gaiza konplitienek orok badie zunbait ezkastarzün bereki nahastekatürik, eta gure ezpiritiazko ikustek orok, badie zunbait ülhüntarzün.

Zihauren ezagütze ümila, Jinkua ganatko bide segurago bat düzü, eziez barna beno barb-nago jakiten txerkatzia.

Ezta ogenik eman behar jakitiari, edo zer nahi beita gaizaren ezagütze sinpliari, zuñ beraurtan daguelarik hun beita, eta Jinkuaren maniaz ezarria: bena kontzentzia hun bat, eta bizitze berthütus bat bethiere hobiago dira.

Bena nula haboro beitira jakitiari, eziez bizitze hunari estekatzen direnak; hartakoz ardüra inganatzten dira, eta kasi profeitürik batere, edo aphür baizik ez tie jardiesten.

5. O balie hañbeste arranküra biziuen zañetarik idokitzeko, eta berthütiaren hen plazan ezartzeko: nula beitie galto berririk egiteko; eleite popülian hañbeste gaixtokeria eta eskandal izan; ez-etare komentietan hañbeste laxükeria.

Gaiza segurä da azken jüdiziozko egünian etzaiküla galthatü izanen, zer irakurtü dügün; bena bai zer egin dügün; ez zuñen untsa mintzattü giren, bena bai zuñen debotki bizi izan giren.

Erradazü, nun dira orai, bürzagi eta jaun bizi zireno untsa ezagütü züntian hurak oro, eta fama handi bat bere jakitiaz jardietsi zienak?

Bestek orai zitizie hen kargiak, eta etzikit hen orhitmentxarik badienez. Bizi zireno üdüri züzün zerbait zirela, eta orai hitzik eztizü ihurk hetzaz erraiten.

6. Ala beita laster igaraiten mündüko gloria!
Jinkuak baletsa hen bizitzia, jakitiaren izan zan!
ordian zikezien untsa irakurtü eta ikhasi.

Zunbat dira mündian jakite bano batez gal-tzen direnak, zuñek Jinkuaren zerbütxiak axolik ezpeitie.

Eta ümil beno lehenago handi izatia haita-tzen beiteie: hartakoz bere phensamentien khe bat bezala ezdeüstüren dira.

Nurk ere karitate handi bat beitü hura da egiazki handi.

Nur ere bere beithan txipi beita, eta uhuria-ren goratarzüna ezdeusentako etxekitzen beitü, hura da egiazki handi.

Nurk ere lürreko gaizak oro gorotza bezala etxekitzen beitütü, Jesü Krist irabaz dezan amurekatik, hura da egiazki zühür.

Eta untsa da egiazki jakitus, nurk ere bere boronthatia ützirik, Jinkuarena egiten beitü.

IV. KAPITÜLIA

Egin behar diren gaizetan, zer aitzinetik ikhusi behar den.

1. Ezta behar elhe, ez pensamentü orori bere sinhetsia ezarri; bena gaizak behar dü lüzaz eta abisamentüreki Jinkuaren eretzian phezatü.

Elas ardüra ihurk sinhesten, eta erraiten dü ehikiago gaizkia, eziez huna besterentako, hañbeste gira flakü!

Bena jente konplitek eztütie ehiñera sinhesten elhe errailiak oro: zeren beitakie gizonaren flakütarzüna gaizkialat ekharri, eta bere elhetan aski hütskor dela.

2. Zühürtze handi bat da, egin behar diren gaizetan ez arhinegi izatia, eta berauren sendimentietan ez gogorki egoitia.

Hari so daguen phüntü bat da orano, zuñ nahi beita gizonen elhen ez sinhestia, eta entzün eta sinhetsi dütian gaizen, ez besteri berhala arraerraitia.

Harzazü zure konsellia gizon zühür, eta konzentzia maite dian bateki: eta nahiago zirela, zihaur beno hobiago batek erakusten zeitün gaizer, eziez zihaurk ediren dütüzüner, jarraiki.

Bizitze hunak gertha erazitzen dü gizona zühür Jinkuaren erezian, eta hanitx gaizatan jakintsü.

Zunbatenaz gizona bere beithan ümilago, eta Jinkuari manentago izaten beita: hanbatenaz zühürrago date bere egiteko orotan, eta bakia hobeki ükhenen dü.

V. KAPITÜLIA

Eskritüra saintaren irakurtziak.

1. Egia, ez elhen edertarzüna, eskritüra saintan behar da txerkatü.

Egin izan den ezpiritü berian, irakurtü ere behar dü eskritüra saintak.

Eskritüra saintan profetia lehenago, eziez elhestaren goratarzüna behar dügü txerkatü.

Hañ gogo hunez behar dütügü irakurtü librü debotak, eta simpliak, nula goraki, eta jakitereki egin izan direnak.

Eztezazüla iskiribazaliaren famari sorik egin, ala jakite txipitako, ala handitako izan den; bena egiaren berauren amuriuak irakurzera erakhar zitzala.

Eztezazüla galtha, nurk hori erraiten dian, bena gogua emazü, zer erraiten den.

2. Gizonak igaraiten dira, bena Jinkuaren egiak bethi iraiten dü; Jinkua hanitx manieriaz

mintzatzen zaizü ihuren berehezkeriarik egin gabe.

Hanixetan eskritüra saintaren irakurtzian, gure sobera jakin nahiak nahasten gütü; nuiz ere osoki enthelegatü, eta xehe ikhertü nahi beitügü sinpleki sinhetsi behar günükian gaiza.

Nahi badüzü profeitürik jardietsi, irakur ezazü ümilitate, sinplizitate, eta fede oso bateki, nahi ükhen gabe jagoiti jakitus baten fama.

Galtha, eta entzün itzazü gogo hunek saintien hitzak deus erran gabe, zaharren erranak etzaitzüla desplazent: ezi arrazurik gabe eztütüzü erran izan.

VI. KAPITÜLIA

Estekamentü gaixtuetzaz.

1. Zer nahi beita gisaz, gizonak zerbait gaixtoki desiratzen badü, berhala bere beithan erreus bilhatzen da.

Ürgüllütsia, eta abarizusa seküla eztira phausian jarten: ezpiritüz aldiz praube, eta ümil direnak, bake handi batetan daude.

Nur ere ezpeita orano bere büriari osoki hil, berhala tentatü, eta garhaitü izaten da, gaiza txipi eta txar eli batetan.

Ezpiritüz flakü, eta zerbait gisaz aragiaren nahiküntetara erortoki dena, nekez daite lürreko desiretarik osoki solta; eta hartakoz ardüra dütü tristeziak hetarik hürrüntzen denian, koleratzen ere da arhinzki, nahi diana egiten etzaionian.

2. Bena desiratzen dian gaiza ükheiten badü, berhala kontzentziaren theyü ükheitiak, sor eta phezü gertha erazitzen dü, zeren eta jarraiki

beita bere pasioniari, zuñek ezpeiteio ajütürik emaiten, bake txerkhatzen dianaren ükheiteko.

Arren pasioner bühürtzez, eta hek nahi ezteina egitez edireiten da bihotzeko egiazko bakia.

Ezta arren bakerik gizon aragiari, eta kanpotiko gaizer enjogi den baten bihotzian; bena bai deboziona, eta gaiza ezpiritualak dütianarenian.

VII. KAPITÜLIA

Esparantxa banuari, eta goratarzünari ihesi egitiaz.

1. Banitus da, gizonetan, edo kreatüretan bere esparantxa ezarten diana.

Eztüzüla ahalkerik; Jesü Kristen amurekatik besteren zerbütixian izatez, eta mündü huntan praube üdüritzez.

Eztüzüla zihaurtan konfidantxarik, bena Jinkuatan ezar ezazü zure esparantxa.

Egizü zütan dena, eta Jinkuak zure boronthate huna sokhorritüren dizü.

Etzitiala fida zure jakitian, ez zuñ nahi beita gizonen adrezian; bena bai lehenago Jinkuaren grazian, zuñer ümilak ajüratzen beitütü, eta bere bürietan fidatzen direnak aphaltzen.

2. Etzitiala glorifika zure aberatstarzünetan, hanitx balin badüzü ez-etare zure adixkidetan photerus direlako, bena Jinkuatan, zuñek gaizak

oro emaiten beitütü, eta berauren emaitia, gaiza ororen gañetik desiratzen beitü.

Etzitalia handi zure khorpitzaren handitarzünaz, edo edertarzünaz, zuñ eritarzün txipi batek gastatzen, eta itxusten beitü.

Eztezazüla bihotzian har kontentamentürik zure adreziaz, edo ezpiritü ükheitiaz; beldürrez displazer egin dezazün Jinkuari, zuñi zor beitütü-zü zük düzün huntarzün natüralak oro.

3. Eztüzüla uste bestiak beno hobe zirela; beldürrez gaixtuago baten igaren zitian Jinkuaren aitzinian, zuñek beitakitza gizonaren barnian diren gaizak oro.

Etzitalia ürgüllütsü zure obra hunetzaz: zeren gizonenak ez bezalako beitira Jinkuaren jüjamentiak; zeren eta hanitxetan gizoner plazer egiten dian gaizak, displazer egiten beiteio.

Zerbait hunik balin badüzü, bestek badiela hobiagorik sinhets ezazü, amurekatik ümilitatia begira dezazün.

Damürik eztüzü ükhenen beste ororen pian zure büriaren ezartez: bena jar bazinte bakhoitz baten ere gañetik, galtze handi bat egin ziniro.

Arima ümil bat gozaten da bake iraipus batez: bena ürgüllütsiaren bihotzian ardüra daude jeloskeria eta kolera.

VIII. KAPITÜLIA

Nabastarre handiegier ihesi egitiaz.

1. Eztezazüla zure gogua hüts nuri nahi beita, bena egitzü zure egitekuak jente zühürreki, eta Jinko beldürtieki.

Bekhanki izan zite jente gazteki, eta herriz kanpokueki.

Aberatsak eztizazüla lausenka, eta handien aitzinian atzitalia ager plazereki.

Ümileki eta sinpleki, deboteki eta pherestieki izan zite ardüra, eta huniala erakharten dien gaitzetzaz mintza zite.

Emazte zunbaiteki etzitalia nabasi izan: bena komünian emazte pherestiak oro Jinkuari itzazü gomenda.

Jinkuareki beraureki, eta haren aingürieki nabasi izatiaz desira ezazü, eta gizonen ezagü-tziari ihesi egizü.

2. Ororentako karitate ükhen behar da, bena ezta hun ororeki nabasi izatia.

Heltzen da zunbait aldiz persona ezagütü ezten batek dian fama hun bat, eta ezagütü den bezañ sarri, ikhustiak greutzen beitütü.

Uste dügü zunbait ordüz, bester plazer egiten dügüla, heganat juaitiaz, eta ordian hasten gira, her haboro desplazer egiten; zeren gure gaixto-keriak hobeki ezagützen beitütie.

IX. KAPITÜLIA

Obedientziaz, eta besteren pian izatiaz.

1. Gaiza handi bat da obedientzian egoitia, gehien baten pian bizitzia, eta bere bürzagi ez izatia.

Hanitzez segürago da gehienguan beno, besteren manü pian egoitia.

Hanitx jente daude obedientzian bortxaz lehen, eziez amure hunez, eta hek phena soferitzen die, eta arhinzki murmuzeiatzen dira.

Eta ezte ezpiritiaren libertatia jardietsiren, Jinkuaren amurekatik, bihotz osoz, besteren petiko izatez kontent ezpadira.

Lasterka zite horrat eta hunat eztüzü phausia edirenen; gehien baten gobierniaren izate ümiliarren pian baizik.

Hobeki izan ustiak, eta lekhien khanbiuak hanitx jente inganatü dütü.

2. Egia da, bat bedera bere sendimentiarren araur, gogo hunez gobernatzan dela, eta ekharriago dela, bere sendimentüko direneganat.

Bena Jinkua gureki bada, bortxatü gira zunbait ordüz, gure sendimentiarren eiztera; bakia-
ren ükheitia dela kausa.

Nur da aski zühür, ororen osoki jakiteko.

Etzitala arren sobera fida zure sendimentia-
ri, bena ikhas ezazü bestenari behatzen gogo
hunez.

Hun bada zure sendimentia eta hura eizten
badüzü, Jinkuaren amurekatik, eta bese bati
jarraikiten bazira, hantik haboro profeitü idoki-
ren düzü.

3. Ezi entzün dizüt ardüra erraiten konselliari
behatzia, eta haren hartzia segurago dela, eziez
emaitia.

Hel ahal daite orano bat bederaren sendi-
mentia hun den: bena señale da ihur ürgüllütsü,
eta бүрү gogor dela, besteren sendimentiarri
behatü nahi eztenian, nuiz ere arrazuak eta gai-
zak hala bethi beitie.

X. KAPITÜLIA

Elhe soberari gogua emaitiaz.

1. Hürünt zite ahalaz gizonen herotsetarik: ezi mündüko egiteketan sartziak nahasten dizü ihur azkarki, nahi bada intenzione xahü bateki erabil ditian.

Ezi banitatiaren theyütarzüna, eta esklabogua berhala har eraziten dizüzie.

Untsa nahi nikezü hanitxetan ixilik egon nintzan, eta gizonen artian enintzan izan.

Bena zeren hañ gogo hunez mintzatzen gira, eta alkharreki elhestatzen: kontzentziari ogenik egin gabe bekhanki arzara ixilik egoitjala ützülzen girenen gañen.

Hañ gogo hunez elhestatzen gira, zeren eta alkharren elhestetarik, alkharren konsolazionia txerkatzen beitügü, eta gure bihotza, hanitx phensamentü fuertez sorthatürrik daguena, arhintüxe nahi beikünüke.

Gozo handi bat hartzen dügü, nuiz ere mintzatzen beikira, edo phensamentian igaraiten

beitütügü, gihaurk hanitx maite, edo desirtazten dütügün gaizak, edo gure kuntre eztirela borogatzten dütügünian.

Bena elas deus irabazi gabe ardürago ezi kanpotiko konsolazione horrek damü handi bat eretxekiten deio, zelütik bihotziala jiten denari.

Hartakoz iratzarririk, eta othoitzetan egon behar dügü, beldürrez thenpora profeitürik gabe igaren dezazün.

Konbeni edo hun bada mintzatzia errazü huniala erakhar diruan gaiza zunbait.

Üsantxa gaixtuak, eta gure profetiak arrankürarik ez ükheitiak, mihia ezaxolatüki erabil erazitzen deizü.

Hargatik orogatik gaiza ezpiritualez debotki elestatziak profeitü ezpiritualian; ajütü handirik emaiten dü: orotan gainti, nuiz ere bihotzez eta ezpiritüz Jinkuari bardin jüntatürik daudianak, elhestatzen beitira.

XI. KAPITÜLIA

*Bakiaren jardietsiaz, eta
profeitzeko zeluz.*

1. Bake handi batez goza ahal ginteko, ezpägünü nahi bestek erraiten, eta egiten dütien gaitetzaz, eta guri so eztaudianetzaz bihotza oküpatürük etxeki.

Nula thenpora lüzaz bakian egoiten ahal da, besteren egitekuetan sartzen dena kanpotiko horrat-hunatzak txerkhatzen dütianana? aphür edo bekhanki bere beithan sartzen dena?

Dohatsü dira sinpliak, zeren bake handi bat ükhenen beitie.

Nulaz saintietarik zunbait hañ debozionian barna, eta zelüko gaizen hañ ikhuste hun izan dira?

Zeren eta iseiatü izan beitera lürreko desirkünte orotarik nekez bada nekez bere бүrien soltatzera eta hartakoz bihotz osoz Jinkuari jüntatürük zaudialarik, bere kontzentziari so zaudian gaitetzaz,

zer threbükürük gabe gogua eman ükhen ahal beitie.

Gü gihauren pasionetzaz sobera arrankürätzen gira, eta gaiza igaraiten diren eli batez, sobera phenatan jarten.

Bekhanki orano bizio bakhoitxak osoki garhaitzen dügü, eta egün oroz profeitü zunbaiten egiteko sürük eztügü hartzen hartakoz ephel eta hotz baratzen gira.

3. Osoki gure бүrier hil baginte, eta bihotzian ezpagünü nahaskürarik batere: ordian gintzake zelüko gaizak goza ahal: eta ezpiritia heganat goititürük etxekitia, zer den, zerbait gisaz boroga.

Gure berhaztapogürük handiena, eta oro da: zeren ezkiren pasionetarik, eta nahiküntetarik soltatzen, eta zeren ezkiren iseiatzen, saintien bide hunian ebiltera.

Nahi eztügün zunbait gaiza txipi ere heltzen zaikünian, sobera sarri korajia galtzen, eta mündüko konsolazionetarat gogua ützültzen dügü.

4. Güdükan egoitera gizon kurajus eli bat bezala iseia baginte: Jinkuaren sokhorria gütan gaña zelütik jaisten, düda gabe, baroga giniro.

Ezi Jinkua, zuñek gihauri gerla egiteko bidiak emaiten beiteizkü; garhait ditzagün amurekatik; prest da, bere бүrier gerla egiten, eta haren grazian esparantxa ezarri dianen ajütatzera.

Kanpitiko gaizen eta zeremonien begiratzian baizik, gure errelijioniaren profetia ezarten ezpadügü; gure deboziona sarri akabiren da.

Bena, eskritürak dioian bezala, dügün egotx zañiala axkora kolpia, amurekatik gure pasionetarik xahatürik arimaren bakia goza dezagün.

5. Urthe oroz bizio baxhotx bat zañetarik idoki bageneza, sarri konplitü gertha ginteke.

Bena orai kontraria ardüra borogatzen dügü, gisa batez nun, hunialat ützültzen hasten girenian, hobiago, eta xahiago edireiten beikira, eziez hanitx urthe debozionian igaren unduan.

Emendatü behar lüke egün oroz gü beithan debozioniaren, eta profetiaren süyak: bena orai hanitx üdüritzen zaikü dela; nurbaitek lehen sü hartarik begiratzien ahal badü aphür bat.

Bortxa aphür bat hatsarrian gure bürier egin bageneza, gero gaizak oro ehiki eta alageraki egin ahal gintzake.

6. Gaiza üsatien eitztia greu zaikü bena greuago da orano, bere boronthatiari bühürtzia.

Bena gaiza txipiak, eta ehiak goitzen ezpadütüzü; nuiz goithüren dütüzü gaitzaguak.

Bortxa ezazü hatsarrian zure enjogidüra, eta ahatz ezazü zure kostüma gaxtua: beldürrez gida zitzan emeki emeki nekezia handiago bategara.

O ezagüt bazeneza zuñen bake handia zihauri, eta bester zuñen alagrantzia eman ziniruan, zure büriaren untsa gobernatzet: uste dit, profetütü ezpiritualaren arranküra haboro bazünükiala.

XII. KAPITÜLIA

*Gaiza nahi eztügünen heltziaren
abantallaz.*

1. Hun da guretako zunbait greutarzün ükhen dezagün zunbait aldiz, eta hel dakigün nahi eztügün gaizarik; zeren hanitxetan gizona bere beithan sar erazitzen beitie, ezagüt dezan amurekatik, mündian desterratürük dela, eta eztezan bere esparantxa hanko gaizetan ezar.

Hun da zunbait ordüz, ükhen dezagün gure sendimentien kuntre juaiten direnetarik, eta gützaz sinheste xar dienetarik, zunbat ere gure intenzioniak eta egitatiak hun beitera. Hoiek ardüra ümilia erazitzen dütie eta banaloriatik begiratzen.

Ezi nuiz ere gizek gützaz pheretxü aphür egiten beitie, eta gütan ez sinheste hunik hartzen, ordian Jinkua gure bihotzeko jakiletako hobeki terkatzen dügü.

2. Hartakoz gizonak behar lüke gisa batez Jinkuatan bermatü, nun elian behar besteren konsolazione hanitx txerkatü.

Nuiz ere boronthate hunetako gizon bat thürbüratü, tentatü, edo phensamentü gaixtuez atakatü beita: ordian ezagützen dü Jinkuaren beharra handiago diala, zuñ gabe beitaki eztiruala hunkirik batere egin.

Tristetzen da, hasperen egiten dü, eta orazione erraiten ere badü ordian, soferitzen dütian miseriegatik.

Ordian debeiatzen da lüzazegi bizitziaz, eta desiratzen lüke hiltzia jin lekion, amurekatik arima khorpitzetik solta ledin, eta Jesü Kristeki izan.

Ordian orano untsa ezagützen dü següran-txa, eta bake oso bat mündian ezin izaten ahal dela.

XIII. KAPITÜLIA

Tentazionen apaisatziaz.

1. Mündian bizi gireno, ezkiteke thürbürar-zün, eta tentazione gabe izan ahal.

Hartakoz Job saintiaren librian irakurten dügü, gizonaren lürren gañeko bizitzia tentazio-ne bat dela.

Hori dela kausa, bat bederak bere tentazio-netan gañen, arrankürareki izan behar lüke, eta guaitan egon orazionetan beldürrez, debriak, zuñek ezpeitü seküla lorik egiten, eta üngürü üngürü beitabila, nur irets ahal diruan, ediren dezan inganatzeko artia.

Ezta hañ debot, ez hañ saintü denik, zuñek eztütian zunbait ordüz bere tentazioniak, eta hetarik erras gabe ezin izaten gira.

Tentazioniak hargatik gizonaren ezinago abantallus ardüran izaten dira: nahi bada greu-garri zaitzon, eta phenagarri; zeren hetzaz ümi-liatzen, xahatzen, eta jakintsützen beita.

Saintiak oro thürbürarzün, eta tentazione hanitxetarik igaren izan dira, eta hetarik profeitü idoki ükhen die.

Eta tentazioniak ezin süstengatü ahal ükhen dütienak, erori izan dira, eta galdü sekülakoz.

Ezta komentü hañ saintürik, ez lekhü hañ bazterrik, nun tentazioniak, edo phenak eztiren edireiten.

3. Gizona, bizi deno, ezta erras tentazionetarik solt izanen; zeren eta bekhatü orijinalaren khozian sorthü girenen gañen, gihaureki kharreiatzen beitügü tentazionen üthürbüria.

Tentazione, edo thürbürarzün bataren juaitiareki, beste bat jiten da, eta bethi ükhenen dügü zerbait soferitzeko: ezi gure dohatsütarzünaren huntarzüna galdü dügü.

Hanitxek tentazioner ihesi egitia txerkatzen die, eta hetara doloruskiago erorten dira.

Iseiaz beraz ezin garhaitzen dütügü; bena pazenziaz, eta egiazko ümilitatiaz, etsaiak oro beno azkarrago gerthatzen gira.

4. Axaletik baizik hürüntzen eztenak herrua idoki gabe, aphür profeitatüren dü; tentazoniak berhala ütüliren zaitzo, eta lehen beno gaizkiago edirenen da.

Hobekiago goithüren düütüzü (Jinkuaren sokhorriareki batian) emeki emeki pazenziareki, eta lüzaz egürükitiareki, eziez zihaturen büriaren kuntre gogortzen eta bühürtzen zirelarik.

Ardüra konseillü har ezazü, tentatü zirenian, eta eztezazüla gogorki trata, tentazioniaz atakatü dena: bena konsola ezazü, zihauri egin lizazien, nahi zünükian bezala.

5. Tentazione gaixtuen ororen hatsarria da gure ezpiritiaren khanbiamentia, eta Jinkua beithan konfidantxa aphürren ükheitia.

Zeren eta, hala nula itxas mareak untzi bat horrat hunat erabilten beitü, gobernari gabe denian, gisa berian, tentazoniak hanitx gisaz iharrausten dü, bere deseñ hauna eizten dian gizon bat.

Süyak borogatzen dü bürdüña; eta tentazoniak gizon jüstua.

Hanitxetan eztakigü zer dirogün; bena tentazioniak erakusten deizü zer giren.

Horregatik gogua handi batetan egon behar da, orotan gainti tentaziaren hatsarrian; zeren xikiago etsaia goithü izanen beita, ezpiritiaaren borthan sartzera ihulere eizten ezpada, bena hela erran dian bezañ sarri, alharzetik kanpo jarri behar zaio.

Hartakoz zahar batek erran ükhen dü hatsarriak bara itzak; berantegi erremedia adelatzen dük, nuiz ere lüzakeria handiez gaitzak zahartü beitirakete.

Ezi lehenik ezpiritiala jiten da phensamentü simple bat; gero imajinazione azkar bat, azkene-koz plazera; zotüzü gaixtua, eta baimentua.

Eta manera hortan etsai gaixtua osoki sartzten da, hari hatsarrian müsik eman gabez.

Eta zunbatenaz lüzazago hari müs emaitera ihur laxatzen beita hanbatenaz flakiago egün oroz bere beithan gerthatatzen da, eta etsaia haren kuntre photerusago.

6. Batzek, konbertitzen hasten direnian, tentazionerik gaitzenak softeritzen dütie, bestek

azkenian, beste zunbait aldiz bizi diren thenpora orotan hetzaz hunkiak dira.

Aski arhinzki zunbait tentatü izaten dira, Jinkuaren zühürtarzünaz, eta jüstotarzünaz konpostatü dian bezala, zuñek gizonen heñak, eta merezimentiak phezatzen beitütü, eta gaizak oro aitzinetik xüxen ezartzen, bere haitatien salba eraziteko.

7. Hartakoz esparantxa eztügü behar galdü, tentatü girenian: bena hanbatenez sü habororeki Jinkua othoitü behar dügü, amurekatik plazer gütian gure tentazionian ürgaitzi, zuñek segürki, jondane phauleren erranaren araur, tentazionia garhait eraziren beiteikü, haren süstengatzeko indarrak emaiten deizkularik.

Ümilia ditzagün arren gure arimak, Jinkuaren eskü pian, tentazione eta thürbürarzün orotan; zeren eta ezpiritüz ümilak salbatüren eta goratüren beitütü.

8. Tentazionetan, eta thürbürarzünetan zer den gizona ageri da; zunbat profieitatü dian, eta

hetan mereximentia handiago da, eta berthütia hobeki agartzen da.

Ezta miraküllü, gizona debot, eta süz bethe-rik bada, gaitzik senditzen eztian thenporan: bena pazient bada gaitzian denian, profeitü handi baten esparantxa izanen da.

Tentazione handietarik zunbaitek begiratzen dütie bere büriak, eta tentazione egün oroz hel-tzen diren txipietan ardüra eizten dütie garhai-tzera: amurekatik ümiliatürik, behinere bere beithan konfidantxarik ezar eztezen tentazione handietan, hañ gaiza txipietan erorten direnen gañen.

XIV. KAPITÜLIA

*Jüdikamentü temerariuari ihesi
egitiaz.*

1. Zihaurganat begiak ützül itzazü, eta gogua emazü, besteren obrak jüdika eztitzatzün.

Besteren jüdikatziari, gizona banoki triballatzen da eta ardürago hüts, eta bekhatü benial egiten dü: bere büriaren jüdikatziari aldiz eta xehe ikertziari bethi abantalluski triballatzen da.

Gaizak bihortziari dütügün bezala, hetzaz ordinariozki gure jüjamentia ekharten dügü: ezi gihauren amurio propi hütsiak, egiaz jüjatzia ehiñera gal erazitzen deizü.

Jinkua baliz bethiere gure desirküntiari intenzione xahia, ezkinkeke hañ ehiñera nahas, besten gure sendimentien kuntre juaitiaz.

2. Bena ardüriari zer bait gihaure beithan gorde-rik bada, edo kanpotik jiten zaizü, zuñek bereganat thiratzen beikütü.

Hanitxek, egiten dütien gaizetan, bere büriak gordallüz txerzatzan dütie jakin gabe.

Üdüri da orano bake hun batetan daudiala, gaizak hen gogara juaiten direno: bena nahi eztien bezala heltzen badira, berahala sütan jarten dira eta tristetzen ere bai.

Aski ardüra aharrak jaikiten dira adixkiden, eta herritarren, relijiusen, eta deboten artian, sendimentü batetako eztirelakoz.

3. Kostüma zaharra nekez ihurk eizten dü, eta eztü plazerik hartzen, berak ikusten dian beno hürrünago juan erazi dezen.

Zure arrazun gañen, edo adrezian haboro bermatzen bazira, eziez Jesü Kristen berthütiari zor düzün obediencian, bekhanki eta berant zirate gizon argitü bat, zeren Jinkuak nahi beitü arima osoki haren pian jar dadin, eta arrazu oro-ren gañetik, amurio süz bethe batez goiti dadin.

XV. KAPITÜLIA

Amurioz egin izan diren obretzaz.

1. Mündüko gaiza orogatik, eta nuren nahi beita maite ükheitia gatik, ezta behar gaizkirik batere egin; bena obra hun hasiak eitzu behar dü zunbait ordüz phenarik gabe, edo hobiago batetara khanbiatü, beharrian denari hunki egitia gatik.

Ezi horren egitiak, obra huna eztü galtzen, bena bai hobiago batetara khanbiatzen.

Kanpotiko obrak karitatia gabe deusere eztü balia; bena karitatiareki egiten diren gaizak oro, zunbat nahi beita txipi, eta mesperetxatü diren, abantallus gerthatzen dira.

Ezi Jinkuak gogua haboro emaiten dü, zunbat amurioreki ihurk obra egiten dian, eziez obrari berauri.

2. Hanitx maite dianak, hanitx egiten dü, hanitx egiten dü, untsa egiten dianak, eta untsa

egiten dü, komünaren huna bere boronthatia beno lehen egin nahi dianak.

Hanitxetan üdüri da karitatie bera dela, eta beitate aragiaren inspirarzüna: zeren natüraren enjogidüra, gihauren boronthate propia, phakia- ren ükeiteko esparantxa, eta gure khorpitzten aisaren nahiküntia bekhanki gure obretarik hürrüntü nahi beitira.

3. Egiazko karitate osua dianak deusetan ere eztü bere büria txerkatzen; bena besterik eztü desiratzen, baizik ere gaizak oro Jinkuaren gloriatako izan ditian.

Ihuri ere eztü inbidiarik ekharten, zeren bere alagrantziarik batere ezpeitü maite, eta bere beithan ezpeita nahi alageratü, bena Jinkuatan gaiza hun ororen gañetik dohatsü izatia desiratzten dü.

Eztü sinhesten ihur-ganik huntarzünik batere jiten dela: bena bai oro osoki Jinkuaganik, zuñe- ganik üthürbürü batetarik bezala turrustak jais- ten beitira, eta zuñtan saintiak oro gozamen handireki finalki phausatzen beitira.

O nurk ere beilüke egiazko karitate hartarik txinka bat, ezagüt liro düda gabe lürreko gaizak oro banitatez betherik daudiala.

XVI. KAPITÜLIA

Besteren mentsdüren unhetsiaz.

1. Gizonak pazienki behar dütü egari, bere beithan, edo bestetan ezin xüxentzen dütian giazak, Jinkuak beste zunbait xüxentarzün eman diruan artio.

Phensa ezazü heltü bada hola hobe dela, zure borogatzeko, eta zure pazentziarentako, hura gabe gure mereximentiak balio aphürretako direlako.

Behar düzü hargatik phena horietarik soltatziatatik Jinkua othoitü, plazer zütian sokhorritü, amurekatik eztiki egar ahal ditzazün.

2. Nuiz ere nurbait, behin edo berritan abisatü izanez geroz, ezpeita behatzen; eitzazü hareki debadorik ükhen gabe; bena oro Jinkuaren eskietan ezar itzazü, amurekatik uhuratü izan dadin, eta haren boronthatia konplitü, haren zerbütxari orotan; harek bazikizü untsa gaizkien hunialat ützül erazitzen.

Iseia zite besteren mentsdüren, eta zer nahi beita flakeziaren süstengatzera: zeren zihaurk ere hanitx beitüzü, bestek unhetsi behar deitzienik.

Ezpadirozü zure büria ezar zihaurk nahi zünükian bezala; nula ükhen dirozü beste bat zihaurren gogarako.

Bestiak gogotik nahi gintikezü mentsdürarik gabe, eta haregatik gihaurenetzaz ezkütüzü bilainzten.

3. Nahi günüke, bestek bere saltetan gaztigü garratzik ükhen lezen, eta gihaurk guretan ezin unhesten dizügü batere.

Besteren libertate sobera etzaikü eder, eta hargatik etzaikü hun; müsik ükhen dezagün, galthatzen dügün gaizan.

Nahi dügü bestiak tinkatürik egin biden xediaz egon ditian, etagihaurk ezin unhesten dügü bortxarik batere egin dizagien.

Hortik arren ezagün da klarki, zuñen bekhaniki phezatzen dügün gure proximua gihaur bezala.

Oro balira konplitü, zer günöke Jinkuaren amurekatik besteganik soferitzeko.

4. Bena orai Jinkuak gisa batez gaizak ezarri dütü, nun nahi beitü ikhas dezagün, batak bestiaren kargen egarten: zeren ezpeita ihur ere maküla gabe, ihur ere karga gabe, ihur ere besteren mengua eztenik, ihur ere beretako aski zühür denik; bena behar dügü alkhar konsolatü, alkhar sokhorritü, alkharri erakutsi, eta alkhar abisatü.

Gañeran deusek ere eztü hobeki ezagüt erazitzen, zuñen handi den bat bederaren berthütia, nula desdixatü izatiak.

Ezi beharrek eztie gizona flaka erazitzen, bena bai nulako den erakusten.

XVII. KAPITÜLIA

Komentietako bizitziaz.

1. Ikhasi behar düzü, zure büriari hanitx gai-zatan bühurtzen, bestekila nahi badüzü bakia, eta jünto izatia begiratü.

Ezta gaiza aphürra, komentietan, edo alkharreki bizitzeko jüntatzen direneki egoitia, eta han berian, plañitzeko errazurik eman gabe, hil artio fidelki iraitia.

Dohatsü da han berian bizitze hun bat kharreatü diana, eta azkentze hun bat ükhen diana.

Nahi bazira behar den bezala egon, eta bert-hütian aitzina juan, zure büria bidejan bat, eta destarratü bat bezala etxeki ezazü lürren gañen.

Nahi badüzü bizitze saintü bat kharreatü, behar düzü Jinkuaren amurekatik, erho beitzina bezla izan.

2. Arropak eta khoruak aphür baliotako dira, bena bizitzeko maneriaren khanbiuak, eta pasio-

nen osoki hil erazitziak, egiazko fraidia egiten dizie.

Nurk ere, Jinkuaz beraz, eta bere arimaren salbamentiaz kanpo, zerbait besterik txerkatzen beitü, harek eztü thürbürarzün eta dolore baizik edirenen.

Bakian ere ezin lüzaz egoiten da, txipienik, eta beste ororen petiko izatera, iseiatzen eztena.

3. Zerbütatzeko jin zira, eta ez gobernatzeko: jakin ezazü softeritzeko, eta triballatzeko deitü izan zirela, eta ez elehestetan thenporaren igaraiteko, eta auher izateko.

Komentietan arren gizonak borogatü izaten dira, hala nula ürhia labe bero batetan.

Han ihur eztauke, bihotz osoz Jinkuaren amurkatik ümiliatü nahi ezpalin bada.

XVIII. KAPITÜLIA

Aita Saintien exenplietzaz.

1. So egin ezazü aita saintien exenplü bizier, zuñtan egiazki konplitü izatia, eta relijioniaren goratarzüna, hañ beste argireki ageri beitira, eta ikhusiren düzü zuñen aphür; eta kasi ezdeus den, zer ere gük egiten beitügü.

Elas zer da gure bizitzia, henarekilan bardintzen bada!

Jesüsen saintiek, eta adixkidek Jinkua zerbütatü ükhen die gosian, eta egarrian, hotzian eta pikarraitartzünian, triballian eta eñhetzian, belle-tan, eta baruretan, mihizko eta ezpiritüzko orazione saintietan, hanitx falsün kargü eta mespretxü igursten zielarik.

2. O zunbat thürbürarzün phezürük soferitü dien Apostoliek, Martirek, Konfesorek, Birjinek, eta beste Jesü Kristen hatzer jarraiki nnahi izan derenek orok!

Ezi arimak mündü huntan hüğü ükhen dütie, bizitze eternaleko begira litzen amurekatik.

Ala beitie aita saintiek desertian bizitze heresia, eta praubia kharreatü! Ala beitie softeritü tentazione lüzerik, eta phenusik! Ala beitera etsaiaz ardüra izan eskerniatü! Ala beitie Jinkuari eskentü orazione üsürük, eta süz betherik! Ala beitie penitenzia garratzik egin! Ala beitie zelo eta sü handirik ükhen profetitü ezpiritualarentako! Ala beitie gerla borthitzik egin bere biziuen hezteko! Ala beitie Jinkuaganat intenzione xahia eta xüxena ükhen!

Egünaz triballatzen, ziren, eta gaiak orazionetan igaraiten zütien: zunbat ere triballatzen zireno ezpiritüzko orazionetik ezpeitziren ekhüratzen.

3. Bere thenpora oro profetableki enplegatzien, eta orenak oro Jinkuaren othoitzeko llabür üdüritzen zeitzen.

Zelüko gaizen ezpiritüz ikhustez gozatzen ziren, eztitarzünak ahatz erazitzen zeien khorpitzaren süstengatzeko mengua zien hazkürriaren hartzia.

Adio erraiten zien aberastarzüner, kargier uhurer, eta askazier orori: mündütik etzien deus desiratzen; phenareki, bizitzeko behar ziren gaizak, hartzen zütien: dolüreki mengua zienian ere khorpitzak sokhoritzen zien.

Praube ziren arren lürreko gaizetan, bena ezinago aberatsü grazian eta berthütian.

Kanpotiko gaizak oro ments zütien, bena barningia graziaz eta zelüko konsolazionez betherik zien.

4. Mündiaren etsai ziren, bena Jinkuaren ezinago adixkide.

Bere büriak ezdeus bezala üdüritzen zeitzen, eta mündü hunek mesperetxatzen zütian: bena Jinkuaren aitzinian prezios eta maitagarri ziren.

Egiazko ümilitatian egoiten, obediencia simple batetan bizitzen, eta karitatiaz, eta pazentziaz lagüntürik ziren: hartakoz berthütian egün oroz aitzina juaiten ziren, Jinkuaganik grazia handirik jardiesten zielarik.

Relijuser orori exenplütako eman izan dira, eta haboro korajatü behar gütie bizitze ezpiritua-

lian borogü egiteko, eziez ephelen hanitxtarzü-
nak gure laxükerietan egon erazitzeke.

5. O zuñen handi zen relijiusen ororen Jinkua-
ren zerbüttxatzeko süya, hen izate saintiaren
hatsarrian!

O zunbat debozione zien orazionian! zunbat
inbeia, zuñek hobeki berthütiaren besarkatzeko!
ala hen egitatia beitzen untsa konpostatü! zun-
bat erakutsi zien orok aphaltmentü eta obedien-
tzia bere gehienen manü pian!

Eitzi deitzkien herexak jakile dira orano,
hurak zirela gizon egiazki saintü, eta konplitü
zirenak, zuñek, bere bürien kuntre gerla korajus-
ki egiten zielarik, mündia huñ petan ezarri bei-
tzien.

Orai aldiz handitako igaraiten da, bere xedia-
ren kuntre deus egiten eztiana, eta pazentziare-
ki haitatü dian heña süstengatzen ahal diana.

6. Ah gure thenporako hotztarzüna eta laxü-
keria! hañ sarri hürrünt gitian lehen günian
debozione süz betherik; eta gure eñhetziak eta
laxütarzünak bizitzez debeia erazi gitzan.

Jinkuak baletsa, deboten hanitx exenplü ikhus unduan, gure berthütian aitzinatzeko desira lo dagueen ardüra.

XIX. KAPITÜLIA

*Fraide edo relijius hun batek egin
behar dütian obretzaz.*

1. Fraide edo relijius hun baten bizitziak behar dü, berthüte orotzaz edertürik izan, amurekatik bere barnetik izan dadin, kanpotik gizoner üdüritzen zaien bezala.

Eta arrazureki hanitxez behar dü barnetik izan berthütusago, eziez kanpotik üdüri beita: zeren Jinkuak gure barnia ikhusten beitü: eta behar beitügü, nun nahi beita giren, haren lotsa ezinago ümil bat ükhen, eta aingürü eli bat bezañ xahü haren aitzinian ebili.

Egün bakhoitzkal arraberritü behar dügü gure deseñ huna, eta emendatü gure debozioniaren süya; egün lehenik hasten beikina bezala, salbamentüzko bidian sartzen.

Erran behar deiogü ajüta nazazü ene Jinko Jauna, zihaurk eman deitazün deseñ hunian, eta zure zerbütüxü saintian: emadazü grazia, egün

behar den bezañ untsa has ahal nadin: zeren, orai drano nik egin düdanak, zpeitü deus balia.

2. Hunkiaren egiteko bizitarzün handi bat ükhen behar dü (gure berthütian aitzina juaitiaren, eta boronthate hunaren araur), bide hartan aitzinatü nahi denak.

Deseñ hunik, eta handirik hartzen dianak, hüts ardüra egiten badü: zer izanen da bekanki eta arhinzki hartzen dütianetzaz.

Hanitx gisaz hargatik heltzen zaikü, gure deseñ hunaren üztia; eta gure obra hun kostümatietarik mendrenian hüts egitia, zerbait damügabe nekez heltzen da.

Jüstuen deseñ huna bermatzen da, lehenago Jinkuaren grazian, eziez beren zühürtarzünian: zeren zer nahi beita egiteko har dezen, Jinkuatan beitie bethi bere konfidantxa.

Erran komün bat da, gizonak deseña hartzen diala, eta Jinkuak harez plazer diana egiten, eta eztela gizonaren bidia haren photerian.

3. Debozione üsatia zunbait ordüz ihurk üzten badü, obra hun bat egin dezan amurekatik, edo

bere anaiaren abantalla dela kausa, ehiñera gero arzara hartzen ahal dü.

Bena arimaren debeiarzünez, edo laxükeriaz ihurk ehiñera eizten balin badü debozione hura, borogatüren dü, falta aski handi bat dela, eta damü hantik ükhenen diala. Gure iseiak zunbat nahi beita handi diren, hanitx gaizatan orano falta txipietara eroriren gira.

Behar dügü hargatik bethi zunbait deseñ segürik hartü, eta prinzipalki, berhaztapogü handienak emaiten deizkien biziuen kuntre.

Behar dütügü xehe txerkatü, eta konposatü gure barnian, eta kanpuan igaraiten diren gairak: zeren konbeni beita gure profeitü ezpiritualaren, batzak eta bestiak xüxen izan ditian.

4. Ezin bazite mementokal zure büriaren eza-gützian sar, sar zite aments zunbait aldiz, eta gütienetik egünian behin, erran nahi beita goizan edo arratsen.

Goizan har itzazü zure deseñ hunak, arratsen ikher ezazü zure kontzientzia, nulako izan diren egün hartan, zure hitzak, obrak eta phensamen-

tiak: zeren heltü bada hanitxetan zure Jinkua eta proximo lagüna hetan ofensatü beitütükezü.

Armak har itzazü gizon korajus batek bezala debriaren gaixtokeriaen kuntre, eta ehiñerago bridatüren dütüzü aragiaren enjogidürak oro.

Etzaudiala seküla deus egin gabe, bena edo irakur ezazü, edo izkiriba, edo othoi mihiz, edo ezpiritüz, edo zerbait, komünaren hun denik egizü.

Haregatik khorpitzaren triballiek ezagützereki egin behar die, eta orok eztütie hurak hartü behar.

5. Komün eztiren gaizek eztie kanpuan erakutsi behar: ezi segürago da, gihauri so daudian gaizen segretki egitia.

Gogua emazü hargatik, herebeztie eztiren komünaren gaizetan, eta zihauenetan agüdo: bena zure egin bidiari so daudian gaiza manhatiak osoki eta leialki egin dütükezünian, thenpora haboro baratzen bazaizü, sar zite zihaur beithan, zure debozioniak galthatzen dian bezala.

Eztitake oro gaiza batetan triballa: bena bata baten, bestia besten abantallusago da.

Thenporaren untsa jitiaren araur, debozionen khanbiatziak ere plazer egiten deikü; zeren gozo haboro edireiten beitügü batetan besta egünez, eta bestetan astegünez.

Batzen beharra dügü tentatü girenian, eta bestena bakian, eta phausian girenian.

Batzetan gure phensamentiaren etxekitia dateke gure gogoko, triste girenian, bestetan aldiz Jinkuaren alagrantziaz gozaten giratekianian.

6. Besta handien jitiari, arraberritü behar dira debozione hunak, eta saintien sokhorria sü habororeki galthatü.

Bestatik bestala hartü behar dütügü gure deseñ hunak, ordian mündü huntarik jalki, eta eternitateko bestan sarthü behar beikünü bezala.

Hartakoz thenpora sainthü hetan behar dügü arrankürareki adelatü, debotkiago maneiätü, eta gure egin bidia oro hersikiago konplitü; berhala gure triballien soldata Jinkuaganik ükhen behar beikünü bezala.

7. Eta lüzatzen badü guri haren emaitia, sinhets dezagün ezkiela aski untsa adelatü, eta eztügüla merexitzen orano gloria hañ handi, thenpora señalatian, gü beithan agertüren den hura: gitian arren iseia hiltzuala hobeki adelatze-ra.

Dohatsü da zerbüttxaria (dio Lukas Ebanjelistak) zuñ bere bürzagiak jin datekianian iratzarri-rik edirenen beitü, segürtatzen zütiet bere huntarzün ororen gañetik ezar eraziren diala.

XX. KAPITÜLIA

Ixiltarzünaren eta ihur gabe izatiaren amuriuaz.

1. Txerka ezazü zure bizitziaren xehe ikher-tzeko thenpora propi bat, eta Jinkuak egin deitzün huntarzünetzaz orhit zite ardüra.

Eitz itzazü berrikeriak, irakur ezazü gaiza bihotzaren dolümenez, egitekoz beno, hobeki behatzeko hun direnak.

Zure büria soltatzen badüzü elhesta sobera-kinetarik, horrat aurerhetan juaitetarik, eta mün-dian berri lasterkatzen direnen entzütetik, edire-nen düzü thenpora aski propirik, ezpiritüzko othoitzetan egoiteko.

Saintien handienak, gizonen konpañetarik, ahal zitianian, hürrüntzen ziren, eta haitatzen zien, Jinkuaren segretki zerbüttxatzia.

2. Nurbaitek erran ükhen dü, gizonen artian izan nizan ordü oroz, gütiago gizon etxerat ützü-

li izan niz. Hori da ardüra borogatzen dügün gaiza bat, nuiz ere elhesta lüzetan laket beikira.

Ehiago da erras ixilik egoitia, eziez elhetan hütsik ez egitia.

Ehiago da etxen gorderik egoitia, eziez kanpuan bere büriaren behar den bezala begiratzia.

Nur ere arren bizitze ezpiritualaren jardiestera iseiatzen beita, harek Jesüseki behar dü gizonen biltzarrünetarik hürrüntü.

Ihur ezta següranzareki agertzen gorderik gogo egoiten dakiana baizik.

Ihur ezta següranzareki mintzatzen, plazereki ixilik egoiten dena baizik.

Ihur ezta següranzareki besteren gehieniar ten, besten pian gogotik egoiten dakiana baizik.

Ihurk ezta següranzareki manürik emaiten, besteri untsa obedient izaten ikhasi dianak baizik.

3. Ihur ezta següranzareki alageratzen, kontzentzia hun baten jakilegua bere beithan diana baizik.

Saintien segürantza hargatik, bethi Jinkuaren lotsaz betherik izan da.

Eta zunbat ere grazia eta berthüte handiez argitü beitziren, etzien gütiago arranküra, eta ümilitate bere beithan.

Gaixtuen següranza aldiz, ürgüllütik, eta bere bürietan dien sinhestetik jalkiten da, eta azkenian beren inganiotan ützültzen da.

Eztezazüla seküla mündü huntan har segürantza oso bat, zunbat ere fraide hun baten, edo ermitha debot baten üdüria beitzü.

4. Ardüra gizonez hobenik ustezütienak, galdü izateko danjerik handienian izan dira, konfidantxa handiegia bere bürietan zielakoz.

Hartakoz henitxen hobiago da eztitian osokitentazionerik gabe izan, eta hen atakarzünak sendi ditzen; beldürrez ürgülliala eror ditian edo ere sobera nabasiki kanpotiko konsolazionetarat okher ditian.

O behinere alagrantzia igaraiten den bat txrka eliruana, behinere mündü hunez kasürik egin gabe leguena; ala beiloro harek bere kontzentzia hunik begira!

O nurk ere khen belitzake arranküra banuak oro, eta salbamentüko eta zelüko gaizetan baizik

gogua ezartzen elianak, Jinkuatan bere esparantxa oro phausatzen lialarik; ala beiliro harek bake eta phausü handi bat goza!

5. Ihurk eztü merexitzen zelüko konsolazio-
nia, ikhasten ezpadü bihotztoiki, zer den barneti-
ko dolümena.

Nahi badüzü bihotziala drano sar erazi zure
dolümena, sar zite zihaur beithan, eta aparta
itzazü mündüko herotsak, eskritüra saintak
diuan bezala; *zien ohetan iratzarririk etxeki eza-
zie bihotzeko dolümena*. Zure xoxan barnen edi-
renen düzü, kanpuan hanitxtan gal ziniruana.

Xoxa ardüra han egoitez ezti gerthatzen da,
gaizki aldiz begiratzen denian, debeia erazitzen
gütü; hunialat ützültzen hasten zirenian, ardüra
han egoiten bazira, eta hura untsa begiratzen
badüzü, gerualat maithagarri zaikezü, eta ediren-
nen düzü han konsolazione ezinago maithagarri
den bat.

6. Arima debotak profeitatzen dü, ixilik eta
phausian daguelarik, eta ikhasten dütü eskriptü-
ra saintaren segretiak.

Han edireiten dütü nigarren turrustak, zuñtzaz bere büria xahatzen eta garbitzen ahalbeitü: amurekatik bere krezaliaren hanbatenez adixkidiago gertha ahal dadin, zunbatenez mündüko herots oratarik hürrünago egoiten beita.

Nur ere othian bere ezagünetarik, eta adixkidetarik hürrüntzen beita, hareganat Jinkua bere aingürieki hüllantüren da.

Hobe da gorderik egoitia, eta bere arimaz arranküra ükheitia, eziez harez kasürik egin gabe miraküllü egitia.

Gaiza laidable bat da bekhanki kanporat jalkitia, bere büriaren ez erakustia, eta beste gizonen ikhusi nahirik ez ükheitia.

7. Zeren ikhusi nahi düzü, ezin jüstoki ükheiten ahal düzün gaiza? mündia igaraiten da, eta haien desirüküntiak.

Aragiaren inbeiek paseia erazitzen gütie, bena oren bat igaren denian, zer hantik ekharten düzü, kontzentziaren phezütarzün bat, eta bihoztaren barreiarzün bat baizik.

Jalkite alagera batek, ützültze triste bat ardü-
ran erakhten dü, eta arrats argi bat biharümen
goiz ülhün bat.

Gisa berian aragiaren alagrantziak oro eztiki
sartzen dira, bena azkenian üsükiten die eta hil
erazitzen.

Zer ikhus dirozü bestetan, heben ezin ikhus
dirozünik? haur düzüla zelia eta lürra, eta ele-
mentak oro, ezi hetarik gaizak oro egin izan
dütüzü.

8. Zer bestetan ikhus ahal dirozü ekhiaren
pian lüzaz iraiten ahal dianik?

Uste düzü heltü bada aseziatüren zirela,
bena hortara ezin heltzen ahal zira.

Gaizak oro zure aitzinian ikhus zintzakian
ordian, zer lizate bista bano bat baizik.

Goiti itzazü zure begiak Jinkuaganat, eta
othoi ezazü pharka ditzazün zure bekhatiak, eta
zure laxükeriak.

Eitz itzazü gaiza banuak jente banuer, eta
zure gogua etxeki ezazü Jinkuak eman deitzün
manier.

Zerra ezazü zihaurtan gaña zure bihotzeko bortha, eta dei ezazü zihaurganat Jesüs zützaz maithatia.

Egon zite hareki zure xoxan, zeren ezpeitüzü bestetan hañ bake handi bat edirenen.

Jalki izan ezpazina, eta ezpazünian deusere berrietarik ikhasi, hobekiago egon zinantekian bake hun batetan: bena berrien ikhasten plazer hartzen hasiz geroz, hantik behar dizü zure bihotzaz thürbürarzün zunbait soferitü.

XXI. KAPITÜLIA

Bihotzeko dolümenaz.

1. Nahi bazira debozionian aitzina juan, jinkuaren lotsa bihotzian ükhen ezazü, eta ez zure büriari sobera libertate eman: bena brida itzazü zure zentziak oro, eta etzitalia enjogi izan erhoheriazko alagranzietara.

Kostüma zite, bihotzeko dolümenaren maite ükheitera, eta edirenen düzü debozionia.

Bihotzeko dolümenak ager erazitzen diküzü hanitx huntarzün, laxükeriak berhala gal erazitzen beitezkü.

Estonagarri da, nula gizona seküla mündü huntan osoki alageratzen ahal den, untsa ezagützen badü bere desterriaren lekhia, eta zunbat danjerez üngüratürük daguen haren arima.

2. Gure bihotzeko arhintarzünak, eta phetxen laxükeriaz unhetsiak, ezteizkü üzten senditzera arimaren doloriak: hartakoz ardüra banoki erri

egiten dügü, nigar jüstoki egin behar günükian thenporan.

Ezta, ez libertate egiazkorik, ez alagrantzia hunik, kontzentzia xahü Jinkuaren lotsa dianian baizik.

Dohatsü da, bürreiarzünaren erakharliak apartatzen, eta bere bihotza dolümen saintü batez biribilkatzen ahal diana.

Dohatsü da, bere kontzentzia theyützen, edo phezützen dien gaizak oro, bereganik hürrüntzen dütiana.

Korajuski gerla egin ezazü, kostüma hun batez gaixto bat garhaitüren düzü.

3. Balin badakizü gizonen eizten, hek zü eitziren zütie nahi düzünaren egitera.

Besteren egitekuetzaz eztezazüla har ezagützerik, eta jente handienetzaz phürü eztüzüla arrankürarik.

Zihaurtan gañen etxekazü bethi begia, eta beste persona maite dütüzünak oro beno lehen, orhit ezazü zure büria bere eginbidiaz.

Etzitiala triste, gizonen süstengiaren ükhen gabez: bena hasperen egin ezazü zeren etziren

gubernatzen, Jinkuaren zerbütuari batek, eta fraide debot batek behar lükian bezañ beste argireki, eta huntarzüneki.

Ardüran hobiago, eta segurago da, gizonaz eztian mündü huntan konsolazione hanitx, prinzipalki aragiari so daudianetarik.

Gihaurk dügü falta, ezpadütügü zelükuak ükheiten, edo bekhanki borogatzen badütügü: zeren kanpotiko banuak ezpeitütügü osoki eizten, ez-etare bihotzeko dolümena txerkatzen.

4. Ezagüt ezazü eztüzüla merexitzen zelüko konsolazione; bena bai lehenago thürbürarzün hanitx.

Nuiz ere gizona bihotzeko dolümenian osoki sarthü beita, ordian mündü haur oro greugarri, eta kharats zaio.

Gizon pherestü batek dolümenian sartzeko, eta nigar egiteko aski beharrüne edireiten dü.

Ezi ala dezan bere büria ikher, ala bere proxima ikhus, badaki heben ihur ezin bizitzen dela thürbürarzün zunbait gabe, eta zunbatenaz hersikiago bere büria ikhertzen beitü, hanbatenaz dolümena handiago düke.

Gure bihotzeko dolümenaren, eta hasperen jüstuen beharrüniak dira, gure bekhatiak eta biziak, zuñtzaz gisa batez üngüratürik beikau-
de, nun bekhanki pensamentian zelüko gaizak etxekiten ahal beitügü.

5. Orhit bazinte ardürago hiltziaz, eziez biziaren lüzetarzünaz, düda gabe sü habororeki hunialat ützül zinteke.

Bihotzian ere erabil bazintza ifernüko, edo pürgatorioko jin behar dien phenak; uste dit gogo hunez triballia, eta doloria süstenga zintiruala, eta garatztarzünen baten ere lotsarik etzünükiala.

Bena zeren gaiza hoiek bihotzialat ezpeitira igaraiten, eta orano maite beitütügü eztitarzünak: hartakoz hotz eta osoki herabezti egoiten gira.

6. Hanitxetan ezpiritiaren flakeziak, khorpitz miserable haur plañi erazitzen dü hañ arhinzki.

Othoi ezazü arren ümilki Jinkua; eman diza-
zün bihotzeko dolümenaren ezpiritia, eta errazü profetareki. *Haz nazazü, Jauna, negarren ogüras,*

eta nigarrak bere doian edan erazi erakuzatatzü.

XXII. KAPITÜLIA

Gizonaren miserien ezagütiaz.

1. Nun nahi beita ziren, nurat nahi beita juan zitian, miseriaz betherik zira, Jinkua ganat ezpada zira ützültzen.

Zeren nahasten zira, egitekuak zure gogara juaiten ezpadira? nur da gaiza oro berak nahi dütian bezala dütiana? ez zü, ez ni, ez-etare lürren gañen gizonik batere.

Ezta mündü huntan gizonik, phena, edo thürbürarzün gabe denik, lizan ordian errege, edo aita saintü.

Zuñ da hobekien dena? düda gabe Jinkuagatik zerbait soferi ahal diruana.

2. Hanitx flakük dioie, soizie zuñen bizitze huna kharreatzen dian gizon harek; zuñen aberats, zuñen handi, zuñen photerus eta gora den.

Bena goiti ezazü zure gogua zelüko huntarzünetarat, eta ikhusiren düzü, hun thenporal hoiek eztirela deusere, ezin iraiten diela, eta plazer

beno haboro phena emaiten diela; zeren ezin seküla arranküra, eta lotsa gabe gozatü izaten beitira.

Ezta gizonaren dohatsütarzüna, hun thenporalen mükürri gaintika ükheitia, bena aski dü bere doiaz.

Egiazko miseria bat da, lürren gañen bizitzia.

Zunbatenaz gizona bizitze ezpiritualari estekatiago nahi beita; hanbatenaz mündü huntako bizitzia kharatsago gerthatüren zaio; zeren hobeki senditüren beitütü, eta klarkiago ikhusiren bere bihotz gastatiaren phetxak.

Ezi jatia, edatia, bellatzia, lotzia, phausatzia, triballatzia eta gañerako natüraren beharrünen pian izaria, egiazki miseria bat da, eta tristezia bat persona debot baten, zuñ gogotik solt nahi beilizate izan bekhatü orotarik.

3. Eta egiazki, mündü huntan, khorpitzaren beharrüniak phezü handi bat dira, gizon saintüki bizi nahi denarentako.

Hartakoz profetak Jinkua othoitzen dü, plazer dian hetarik soltatü, erraiten deiolarik. *Libra nazazü Jauna ene beharrünetarik.*

Bena desdixatü dira, bere miseria ezagützen eztenak, eta desdixatiago orano, bizitze miserable, eta gastatü haur maite dienak.

Ezi hañ beste zunbaitek hura besarkatzen die (zunbat ere nekez bizitzeko behar dütien gaizak tribellatzez, edo amuina galthatzez ükheiten beittüzie), nun heben bethi bizi ahal balite, ezpeitükeie Jinkuaren erresomaz axolik batere.

4. O arima infidel, eta zentzü gabiak, zuñ lürreko gaizetan hañ barna beitaude, nun ezpeitie gozorik hartzen, aragiaren gogarako diren gaizetan baizik.

Bena miserabliak orano bere azkentzian senditüren die garratzki, zuñen xar eta ezdeus den, hek maite ükhen dien gaiza.

Saintiek, eta Jesü-Kristen adixkide debotek orok aldiz, eztie goguarik eman aragiari plazer egiten zien gaizer, ez-etare mündü huntan fama handi ziener, bena hen intenzionia, eta esparantxa oro, benoz beno benozago eternitateko huntarzünatarat hedatzen zen.

Hen desira oro goiti igaiten zen, gaiza ezin ikhus, eta bethi irañ behar dienatarat: beldürrez

mündü huntako gaizen amuriuak pe huntarat thira litzan.

5. Eztüzüla nahi berthütian aitzinatzeko esparantxa galdü, ene anaie maitia, orano badüzü thenpora, eta thenoria hun düzü.

Zeren nahi düzü biharümeniala igorri zure deseñ huna. Jaiki zite, eta instantian has zite; eta errazü, orai düzü zerbaiten egiteko, orai düzü gerla egiteko thenpora, orai düzü hunialat ützül-tzeko oren huna.

Nuiz ere phenetan, eta thürbürarzünetan beitzira, ordian düzü, zerbaiten merexitzeko thenpora.

Behar düzü sütik, eta huretik igaren arrafreskua ükhen beno lehen.

Zihauri bortxa egiten ezpadüzü, eztüzü biziua garhaitüren.

Khorpitz erorkor haur kharreiatzen dügüno, eztiteke izan bekhatürrik gabe, ez-etare bizi debeiarzün, eta dolore, gabe.

Gogo hunez har giniro, miseria orotarik phausia: bena bekhatiaz galdü geroz inozenzia,

lürrian ezin ükheiten dügü egiazko dohatsütarzüna.

Hartakoz pazentzia ükhen behar dügü, eta egürüki Jinkuaren meserikordia, inikitate haur iaren dadin artio, eta *biziak hiltzia irets dezan artio*.

6. Ala beita gizonen flakezia handi, eta bethi biziuetarat erortoki!

Egün kofesatzen dütüzü zure bekhatiak, eta bihar arzara egiten dütüzü bekhatü berak.

Orai hartzen düzü gogua emaiteko deseñ huna, eta oren baten bürían ari zira, deseñik batere hartü ezpeitzünü bezala.

Arrazureki arren gihaur ümiliatzen ahal gira, seküla banitaterik hartü gabe, hañ erorkor, eta lerrakor girenen gañen.

Laxükeriak ere gal erazitzen ahal deikü, graziaren moianez, nekez triballü handireki, jardietsi günian gaiza.

7. Zer izanen da gützaz azkenian, hatsarrerik gora hañ ephel girenian.

Ala beikira desdixatü, hula phausialat nahi bagira arrimatü, bakia eta segürantza beikünü bezala! Zunbat ere, gure bizitze orotan, saintütarzünaren herexarik batere ezpeita ageri.

Untsa beharra günüke, orano berriz erakuts lizagien bizitze huna, komentietan sarthü berrier bezala: jakiteko balizatianez, gure hunialat khabia erazitzeko zerbait esparantxa, edo guri bertütian zunbait profeitü handiagoren eragiteko.

XXIII. KAPITÜLIA

Hiltziaren ardüra goguan ükheitiaz.

1. Thenpora llabürretan barnen zurekilankuak egin dikezü; so egin ezazü, eia nula ziren zihaur beithan: egün gizona ageri da, eta bihar ez, eta begien aitzinetik jalkiz geroz, gogotik ere berhalla jalkiten da.

Ala beita gizonaren bihotza lanphüts, eta gogor: oraiko gaizer baizik eztezan goguarik eman, eta jin behar direnak eztitzan hobeki ikhus!

Egün hil behar beitzünü bezala, gobernätü behar zünüke, zure obra, eta phensamentü orotan.

Etzünüke hiltziaren lotsa handirik zure kontzentzia xahü bazünü.

Hiltziari beno, bekhatier ihesi egitia hobe lükezü.

Egün prest ezpazira, nula zirate bihar, bihar-ko egüna eztüzü segür, eta zer dakizü, eia zure-tako datekianez.

2. Zer profeitü da, lüzaz bizitzia, hunialat aphür ützültzen bagira?

Elas! bizitze lüze batek eztütü bethi gure faltak hertzen; bena bai ardüran emendatzen.

Jinkuak baletsa, egün bakhoitz batez, untsa bizi izan ginen mündü huntan!

Hanitxek hunialat ützüliz gerozko urthiak khuntatzen dütie; bena hobetü direla, hargatik ezta hanbat ezagün.

Zunbat nahi beita ikharagarri den hiltzia, heltü bada damügarriago dükezü, lüzaz bizitzia.

Dohatsü da, bere hiltziaren orena bethiere begien aitzinian etxekitzen diana, eta egün oroz untsa hiltzera adelatzen dena.

Ihur ikhusi badüzü behinere hiltzen, orhit zite, bide beraurtarik behar dükezüla igaren zuk ere.

3. Goizan uste ükhen ezazü, etzirela arratsiala heltüren.

Eta arratsa jin datekianian, eztüzüla uste, biharümen goiziala heltüren zirela.

Izan zite arren bethiere prest, eta bizi zite gisa batez, nun hiltziaz etzitzan uste gabian atzaman.

Hanitx sübitoki, eta inprobistiki hiltzen dira, ezi Jinkuaren semiak, gütienik ihurk uste dianian, jin behar dü.

Azken oren hura jin datekianian, beste sendimentürik ükheiten hasiren zira, zure bizitze igarenaz, eta dolore handi bat ükhenen düzü, zure ezaxolatarzün, eta laxükeria orotzaz.

4. Ala beita dohatsü, eta abisatü, orai bizitzera iseiatzen dena, hiltzeko orenian ediren nahi lizatian bezala!

Ezi mündiaren osoki mesperetxatziak, bert-hütetan juaiteko desirkünthe süz bethiak, gaizen hunian ezarteko amuriuak, penitenziaren tribailiak, obedenziala berhala prest izatiak, bere büriaz kasürük ez egitiak, eta Jesü Kristen amurekatik zer nahi beita gaitzen soferitziak, emanen deie hiltze hun baten egiteko konfidantxa handi bat.

Osagarritan zireno, hanitx obra hun egiten ahal düzü; bena eritü ziratekianian, etzikit zer eginen ahal düzün.

Aphür eritarzünetarik hobetzen dira, orobat bidaje hanitxetan dabiltzanak, bekhanki saintützen dira.

5. Eztezazüla konfidantzarik har zure adixkidetan, eta askazi hüllanetan, ez-etare gerualat igor zure salbamentia: zeren zük uste düzün beno lehen ahatzeren beitzira gizoner.

Hobe da orai, ordia hun deno, bilkhüra egitia, eta zelialat zunbait obra hunen aitzina igortia, eziez besteren sokhorrian esparantxa ükheitia.

Ezpalinbadüzü orai zure büriaren arranküarik, nurk ükhenen dü gero zuretako.

Orai dira memento ezinago preziatiak, orai dira salbamentüko egünak, orai da thenpora guretako hun dena.

Bena elas dolü eragingarri da! eztezazün hobeki enplega thenpora, zuñtan bizitze eterna-la merexi ahal beitziniro!

Jinen düzü ordia, zuñtan egün bat, edo oren bat desira beitzinero, hunialat ützültzeko, eta etzikit ükhenen düzünez.

6. Eia bada ene maitia, ikhus ezazü, zuñen danjer handitik, eta zuñen lotsa ikharagarritik libra dirozün zure büria, orai lotsan, eta hiltziaren beldürrian bizitzen zirelarik.

Iseia zite orai gisa batez bizitzera, nun hiltzeko orenian lotsa beno haboro alagrantzia ükhen ahal dezazün.

Ikhas ezazü orai mündiari hiltzen, ordian has zitian Jesü Kristeki bizitzen.

Ikhas ezazü orai gaizen ororen mesperetxatzen, ordian Jesü Kristeganat threbükü gabe juan ahal zitian.

Orai penitenziaz gaztiga ezazü zure khorpitzan ordian konfidantxa segur bat ükhen ahal dezazün.

7. Ah erhua; zeren phensatzen düzü lüzaz biziren zirela, egün segurik batere eztüzünen gañen.

Ala beitera hanitx, bizitze lüzian inganatü izan direnak, eta uste gaberik arimak khorpitzetarik jalki zaitzenak!

Zunbatetan entzün düzü erraiten, halakua arma kolpü batez hil izan dela, hulakua itho zela, batak lekhü gora batetarik eroririk büria hautse ziala, bestiari jaten zelarik hatsa jalki zeiola, eta bestiak jokhatzen zelarik bere azken hatsa thirattü ziala.

Batzak süyaz, bestiak armetzaz, bestiak üzürriaz, bestiak uhuñkeriaz mündü huntarik bestialat juan izan dira, eta hala ororen azkentzia hiltzia da, eta gizonen bizia, itzal bat bezala, berhala igaraiten da.

8. Nur zützaz orhitüren da, zü hil ziratekianian, eta nurk Jinkua othoitüren dü zuregatik.

Egizü egizü orai, ene maitia, egiten ahal düzüna oro: zeren ezpeitakizü nuiz hilen ziren, ez-etare zer hil unduan jarraikiren zaizün.

Thenpora düzüno bil itzazü aberastarzün ezin hiltzen direnak.

Salbamentiaren baizik eztezazüla phen mentürrik üken, ez-etare arrankürarik, Jinkuaren gai-zetaz baizik.

Egitzü orai adixkidiak, saintiak uhuratzen, eta hen obrak imitatzen dütüzularik; amurekatik bizitze huntarik jalki ziratekianian, hek egoite eternalian batzarre hun bat egin dizazien.

9. Bidejant bat, eta arrotz bat bezala lürren gañen zure büria etxeki ezazü, eta mündüko egi-tekuetan axolik ükhen eztian bat bezala.

Begira ezazü zure bihotza, arrankürarik gabe, Jinkuaganat goititürrik; zeren ezpeitüzü egoite bethi iraiten dian bat.

Harat zure othoitziak, eta egün oroz egiten dütüzün hasperenak eta nigarrak igor itzazü; amurekatik zure arimak, hil unduan, Jinkuaganat dohatsüki garaitia merexi dezan hala biz.

XXIV. KAPITÜLIA

*Azken jüjamentiaz eta bekhatoren
phenetzaz.*

1. So egizü, gaiza orotan, zure azkenziari, eta zer gisaz, egonen ziren jüje garratz haren aitzinian, zuñentako ezpeita deus estalirik, zuñ presentez, ezpeita apaisatzen, eta zuñek ezpeitü, gaxotzen direnez, kasürik egiten; bena jüsto dena jüjatüren beitü.

O bekhatore erho, eta ezinago miserable izana! zer ihardetsiren dük, Jinko hire bekhatiak oro dakitzanari; ikhara aguenen gañen gizon khexü den baten aitzinian?

Zeren eztük aitzinetik ikhusten, eztela ihur azken jüdiziozko egünian besteren, ez gaxotziaz, ez süstengatziaz baliatüren, bena bat bedera aski karga handia datekiala beraurentako.

Orai, hire triballia balius dük, hire nigarra Jinkuak hunetako hartüren dik, hire hasperenari behatüren dük, eta hire doloriak arima sendotüren, eta garbitüren deik.

2. Egiazki pazient den gizon batek, heben Pürgatorio handi, eta balius bat igaraiten dü; nuiz ere, laiduen unhestiareki, haboro dolore beitü, besteren gaixtokeriaz, eziez bere laido hartziaz, zuñek, berauri gaizki egilen, Jinkua gogotik othoitzen beitü, eta bihotzetik faltak pharkatzen, zuñek pharkamentü esketzeko, berankeriarik ezpeitü egiten, zuñ ekharriago beita, bester dolü egitera, eziez bere büriaren khexa erazitsera, zuñ bere büriari bortxa egiten dialarik, iseiatzen beita, ezpitiaren nahiküntetara, aragiaren osoki erakhartera.

Hobe da orai, bekhatien xahatzia, eta biziuen trenkatzia, eziez gero xahatzeko eiztia.

Egiazki gure büriak inganatzten dütügü, aragiaren dügün amurio gaixtuaz.

3. Zer besterik sü harek iretsiren dü, zure bekhatiak baizik.

Zunbatenaz hobeki orai, zure büriari maniak egiten beitütüzü, aragiaren nahikünter jarraikiten zirelarik; hanbatenaz lüzazago phenetan iza-

nen zira, eta erre izateko sügei habororen biltzen ari zira.

Zertan ere gizonak bekhatü egin beitüke, hartan berian garratzkiago gaztigatü izanen da. Han herabeztiak süzko akhüllü eli batez akhüllatü izanen dira, eta gormantak gose eta egarri handi batez eskerniatü.

Han lüxüriusak, eta plazeren maithazaliak phike hurtüz, eta sofre ürrintzüz flanbatü izanen dira, eta hor errabiatü eli batez bezala, doloriaren handiz, txanpa eginen die inbidiosek.

4. Biziorik eztate batere, bere phena suertia eztükianik.

Han ürgüllütsiak ahalkez hurtüren dira, eta abariziusak praubezia ezinago miserable batek tinkatürik etxekiren dütü.

Han oren bakhoitz baten pean phena mingarago date, eziez heben ehün urtheren penitentzia ezinago garratza.

Han damnatiek ez tie ükhenen, ez phausurik, ez konsolazionerik batere: heben aments ütsarte zunbait ihurk zunbait ordüz ükheiten dü, eta adixkiden konsolazionetzaz gozatzen da.

Orai arranküra, eta dolümen zure bekhatietzaz ükhen ezazü; amurekatik, azken jüdiziozko egünian, zelialat juan behar dieneki, segürantzian izan zitian.

Ezi, ordian jüstuak koraje handi bateki agertüren dira, dolore, eta phena soferi erazi deienen kuntre.

Orai ümilki besteren jüjamentien pian daguena, ordian agertüren da besten jüjatzeko.

Ordian praubiak, eta ümilak konfidantxa handi bat badüke, eta ürgüllütsia kantu orotarik ikharatüren da.

5. Ordian ageri izanen da, Jesü Kristen amurekatik erho, eta mesperetxatü izan dena, zela, egiazko mündü huntako zühürra.

Ordian thürbürarzün pazenziareki soferitiak plazer eginen dü, eta *inikitatiak eztü ahua idekiren*.

Ordian jente debotak alageratüren dira, eta gaixtuak tristatüren.

Ordian alageratürenago da ihur, aragiaren penitenziaz heziz, eziez bethi boxi hunez hazi ükhen balin balü.

Ordian beztimenta xarrak eder dirateke, eta ederrak ülhün.

Ordian laidatürenago düzü xoxa txipi xar bat, eziez gaztelü ürrhestatü bat.

Ordian pazentzia fermo batek haboro plazer eginen dü, eziez mündüko photere orok.

Ordian goratürenago da obediencia simple bat, eziez mündü huntako finaziak oro.

6. Ordian alageratürenago dü kontzentzia xahü, eta hun batek, eziez filosofiaren jakite barnak.

Ordian haboro phezatüren dü aberatstarzünen mesperetxiak, eziez mündü huntako jenten ororen tresaurak.

Ordian haboro konsolazione dükezü, jinkua-
ren untsa othoitüz, eziez zure khorpitzaren boxi hunez haziz.

Ordian haboro plazer dükezü, ixilik egonez, eziez elhe hanitx erranez.

Ordian haboro balia dikezie obra saintiek, eziez hitz ederki erranek.

Ordian bizitze hersia, eta penitentzia garratza maithagarriago dükezü, eziez lürreko plazerak oro.

Ikhas ezazü orai min txipien soferitzen, ordian handiagueta rik libratü izan ahal zitian.

Heben lehenik boroga ezazü, zer soferi dirozün gero. Ezin badirozü hañ min txipirik süstenga, nula soferitüren ahal dütüzü thormentü eternalak.

Hañ soferitze txipiak orai erreus erazitzen bazütü, zer eginen die ordian ifernüko phenek?

Ezin egiazki bi alagrantzia ükheiten ahal düzü, mündü huntan plazer hartzia, eta gero Jesü Kristeki errege izatia.

7. Egün huntara drano bethi uhuretan, eta plazeretan bizi izan balin bazina; zer profetitü hetarik idoki ziniro, instant huntan hiltzia hel balekizü.

Oro dira arren banitate, jinkuaren maite ükheitia, eta haren zerbüttxatzia salbü.

Ezi, zuñek ere jinkua bere bihotz oroz maite beitü, harek eztü lotsarik ez phenen, ez azken jüjamentiaren, ez iferniaren: zeren amurio kon-

plitiak Jinkuaganat segürantzareki hüllant erazitzen beikütü.

Bena ezta miragarri hiltziaren, eta Jinkuaren jüjamentiaren lotsa badü, bekhatian orano laket denak.

Hun düzü hargatik, amuriuak ezin orano gaizkitik hürrünt erazitzen bazütü, aments, ifernüko lotsak bara erazi zitzan.

Bena Jinkuaren lotsaz kasürik egiten eztiana, ezta thenpora lüzaz hunian egonen ahal; bena debriaren lazuetara llabürski eroriren da.

XXV. KAPITÜLIA

*Gure bizitze ororen gaizkitik hunialat
ützültziaz.*

1. Jinkuaren zerbütixian, guaitan beitzina bezala, eta arrankürareki. bizi zitze, zeitera jin ziren, eta zeren mündia kitatü düzün.

Etzüniana hori egin, Jinkuareki bizitzeko, eta gizon ezpiritual bat gertha zintian amurekatik.

Ükhen ezazü arren zure profeitiarentako sü handi bat, zeren thenpora llabürretan barnen, zure triballien phakia ükenen beitüzü; eta eztü-kezü haboro zure üngürünetan, ez lotsarik, ez dolorerik.

Aphür bat orai triballatüren zira, eta edirenen düzü phausu handi bat, edo hobeki erraitera, alagrantzia bethi iañen dian bat.

Leialki, eta süreki, zure eginbidiak egiten badütüzü, eztüzü düdarik, Jinkua leial, eta abe-rats izanen dela, zuri haien phakiaren emaiteko.

Behar düzü esparantxa hun bat ükhen, heltüren zirela zelüko gloriala, bena eztüzü behar

segürantzarik hartü; beldürrez herabezti, edo ürgüllütsü gertha zitian.

2. Gizon bat behin lotsaren, eta esparantzaren artian, erreuski düda batez, zeri egon leitian ezin haitatüz, ardüra zaguelarik eskerniatürrik, tristeziak akabirik, aldi batez eliza batean, althare baten aitzinian belhaurikatürrik, orazionetan jarri izan zen ziularik bere beithan pensamentüz: o nik orai baneki, ene azkentziala drano, hunian irañ behar düdala: eta berhala Jinkuaren ihardestia bere bihotzian entzüten dü hulaxe: eta hori bazeneki zer egin nahi zünüke? egizü orai ordian egin nahi zünükiana, eta segürantza oso batetan izanen zira.

Eta berhala konsolatürrik, eta azkartürrik Jinkuaren boronthate saintiaren pian jarri izan zen, eta haren düda, horrat hunat zarabilana, baratü izan zen.

Etzian nahi ükhen kariuski txerkatü, gero jin behar zeionaren jakitia; bena haboro arranküra ükhen zian jakiteko, zer zen Jinkuaren boronthate huna, eta hari plazer egiten zeiona, bere obra hun ororen hasteko eta akabatzeko.

3. Jinkuatan ükhezü esparantxa, eta egizü hunki, diko profetak, *zaude lürren gañen, eta hazi izanen zira haren aberastarzünetzaz.*

Gaiz batek hanitx jente bere profeitürik, eta khanbiamentü debot batetarik, hürrünterazitzen dütü, zuñ beita nekez baizik ezin egiten denaren lotsa, eta bere büriaren garhaitzeko hartü behar den phena.

Eta egiazki, zuñ ere korajüskiago iseiatzen beitira, greu zaitzen, eta hek nahi bezala eztiren gaizen, garrhaitzera; hek bestez orok beno haboro profeitü berthüterik idkitzen die.

Ezi zunbatenaz gizonak bere büria garhaitzenago, eta ezpiritüz hil erazitzenago beitü: hanbatenaz hobeki Jinkuaren bidian juaiten da, eta grazia handiago baten ükheitia merexitzen dü.

4. Bena orok ez tie bardin indar, bi gaiza horien egiteko.

Haregatik orogatik, zelo egiazko batez hunkirik denak, nahi bada dian pasione haboro, hobeki berthütian profeitätüren dü, eziez obra hune-

tarat hotz denak, nahi bada dian izate untsa xedatü bat.

Bi gaiza berheziki hun dira, huniala ützül ere-itzeko; bere büriaren indarreki soltatzia, enjogidüra gaixtuak okher erazi nahi lükian gaizatik, eta zuñ ere huntarzünen ihurk haboro mengua beitü, hari sü handireki jarraikitia.

Zer ere bestetan hanitxetan itxusi beitzatzü, hetarik hürrüntzera, eta zihaturen korajüski begiratzera, iseia zite.

5. Lekhü orotan zure profeitia ediren ezazü, gisa batez nun, exenplü hun zunbait ikhusten, edo entzüten düzünian, her jarraikiteko süz betha zitian.

Zerbait gaixtorik ikhusten badüzü, gogua emazü hañbeste egin eztezazün, edo zunbait ordüz egin balin badüzü; lehen beno lehen hartarik xahatzera iseia zite.

Besteren falter zük gogua emaiten düzün bezala, bestek ere zurer bere aldian gogua emaiten dizie.

Ala beita ezti, eta maithagarri, fraide debot,
eta süz bethen, bere xedia untsa begiratzan die-
nen ikhustia!

Ala beitira triste eta greugarri, bide gaixtuan
duatzanen ikhustia, zuñek ezpeitüte begiratzan,
hen izatiari so daudian xediak!

Ala beita damügarri, bere izatiari so daudian
gaizen laxükeriaz uztia, eta arrankürarik ihurk
üken behar elükianetarat, bere goguaren ezar-
tia!

6. Orhit zite, hartü düzün deseñ hunaz eta
begien aitzinian ükhen ezazü Jesü krüzifikatü
izan denaren imajina.

Untsa ahalkez behatzen ahal zira, ikhusirik
jesü Kristen bizitzia, zeren eztüzün orano haboro
iseiü egin, haren gisa bizitzeko, zunbat ere then-
pora lüzaz, Jinkuaren bidian izan beitzira.

Relijius gogua, eta debozione handireki sal-
bazaliaren bizitze, eta pasione ezinago saintian
bere ezpiritia etxekiten dianak, han aseziareki
edirenen dütü gaiza hun, eta behar dütianak oro,
eta eztü behar, Jesüsez kanpo, deus hobiagorik
txerkhatü.

O Jesüs krüzifikatü izan dena, gure bihotziala jin baledi; ala beikintzake bertan ikhas, gaiza jakin behar dütügünak oro!

7. Relijius hotz eta ezaxolatü batek thürbürar-züna thürbürarzünen gañen dü, eta kantü orotarik hersidüras üngüratürik dago; zeren ezpitü barnetiko konsolazione, eta ezpeitzaio sori kanpotikuaren txerkatzia.

Relijius bere xedetik kanpo bizi dena, hanitx faltatara eror ahal daite.

Laxükeriala, eta aisala ekharri dena, bethi hersidüretan izanen da; zeren batzek, edo bestek desplazer eginen beiteie.

8. Nula egiten die hañ betse beste relijiusek, zuñ aski hersiki bizi beitira bere komentüko xediaren pian.

Bekhanki jalkiten beitira, ihur ikhusi gabe bizitzen, oihal lodiz beztitzen, hanitx triballatzen, aphür mintzatzen, lüzaz beillatzen, goizik jaikiten, orazioniak emendatzen, ardüra irakurten, eta gaiza orotan xüxenki bere xedia begiratzen beitie.

So egin ezazü kapuxi kordolies, eta beste komentü suertetako fraider, eta serorer, nula gai oroz jaikiten diren, Jinkuaren laidoriuen khantatzeko.

Hartakoz itxusi lükezü, zü herabezti izan zintian, hañ obra saintü batetan; hañbeste relijius Jinkuaren laidoriuen khantatzen hasten direnian.

9. O beste gaizarik egiteko ezpagünü, gure Jinkuaren aho eta bihotz oroz laidatzia baizik!

O menguarik ezpazünü, ez jateko, ez edateko, ez lorik egiteko: bena ahal zenezan bethi Jinkua laida, eta debozinezko gaizetan baizik etzintian egon: ordian hanitxez dohatsiago zinante, eziez orai khorpitzari, zer nahi beita behar dela kausa, manien egiten zaudiano.

Jinkuak baletsa, halako beharrik elizan, eta arimak behar lütian errekeitiak goguan ükhen gintzan, zuñ elas aski bekhanki gozatzen beitütügü!

10. Gizona kreatürari bateri ere konsolaziorik ez galthatzeko phüntiala heltü denian; ordian

lehenik Jinkuaren untsa gozaten hasten da, zer nahi beita gisaz egitekuak egin ditian.

Ordian eztü, ez gaiza handiak alageratüren, ez txiapiak tristetüren; bena bere konfidantxa osua Jinkuatan ezarten dü, zuñ ezpeita deus gal-tzen, ez hiltzen, bere gaizak oro harentako bizi-tzen dira, eta haren maniala berhala obedient dira.

11. Orhit zite bethi zure azkentziaz, eta then-pora galdia eztela berriz ützültzen.

Eztütüzü seküla berthütiak jardietsiren, arranküra handirik ükhenez, eta untsa gogua emanez baizik.

Laxatzen hasten bazira, berhala gaizki edire-nen zira.

Debozioniari aldiz emaiten bazira, edirenen düzü bake handi bat, eta zure phena arhinago senditüren düzü, Jinkuaren grazia, eta berthütia-ren amuriua dela kausa.

Gizon debot, eta arrahein bat gaiza ororen egitera prest da.

Haboro phena dü, biziuen, eta pasionen kunte indarkatziaz, eziez khorpitzaren lanetzaz, izert erazitziaz.

Falta txipier ihesi egiten eztiana handietara emeki emeki eroriren da.

Arratsen bethiere alagera izanen zira, baliuski egüna enplegatü badüzü.

Zihauren egitatetan gañen gogua handi bat enmaiten düzularik, bizi zite, zure büria kuraja, eta abisa ezazü, eta zer nahi beita den bestetzaz, etzitiala zihaurantako ezaxolatü izan.

Zunbatenaz bortxa haboro zure büriari eginen beitüzü, hanbatenaz bizitze hunian profeittürenago düzü. Hala biz.

LEHEN LIBRIAREN AKABANTZA

JESÜ KRISTEN IMITAZIONIAREN HEREN LIBRIA

Barnetiko konsolazioniaz.

Irakurzaliari

Nula librü haur izkiribatü izan beita Jinkuaren, eta arima fidelaren, edo bürzagiaren, eta zerbüt-xariaren artian igaraiten den elhesta bat beza-la; untsa gogua eman behar dü irakurzaliak, nuiz bürzagia, nuiz zerbüt-xaria mintzo diren; bestela eliro enthelega, ez hitzen zentzia, ez librü hunen izkiribazale debotaren deseña. Hartakoz letera hunek, B, bürzagiaren elhesta señalatüren dü, eta beste hunek, C, zerbüt-xariarena.

LEHEN KAPITÜLIA

*Jesü Kristek arima fidelari barnetik
etxekiten dian elhesta.*

1. *Behatüren niz, Jinkuak ene bihotzian erranen dütian hitzer.*

Dohatsü da arima, Jinkua bere barnian mintzatzen entzüten diana, eta haren ahotik konso-lazionezko hitz bat ükheiten diana.

Dohatsü dira, Jinkuaren hitzaren herots txipia entzüten dien beharriak; eta mündü huntako elhe gaixtuer, goguarik emaiten eztienak.

Dohatsü dira osoki beharri, kanpuan herots egiten dian botzari beno lehen, egia barnen era-kusten dianari, behatzen direnak.

Dohatsü dira begiak, kanpoko gaizer zerratü-rik, eta barnekuer untsa idekirik daudianak.

Dohatsü dira, barneko gaizak untsa ikhusten dütienak, eta egün orozko debozinez untsa beno untsago zelüko segretien ezagützeko ade-latzera iseiatzen direnak.

Dohatsü dira, Jinkuarekithenporaren igaraitzez, alageratzen direnak; eta mündüko baragallü orotarik, bere büriak bilaizten dütienak.

Ezagüt, eta goza itzazü gaiza horik, ene arima, eta zerra itzazü zure zentzien borthak, amurekatik entzün ahal dezazün, zer Jinko Jau-nak dioian zure bihotzian. Hoiiek dütüzüla zure maitiak erraiten deitzün hitzak.

2. Ni nüzü zure salbamentia, zure bakia, eta zure bizia.

Egon zite ene khantian, eta bakia edirenen düzü. Eitz itzazü gaiza igaraiten direnak oro, eta txerka itzazü eternitatekuak.

Zer dira gaiza thenporalak oro, inganagarri baizik; eta zer hun ükheiten düzü kreatüretarik orotarik, krezaliaz eitzia bazira?

Bilaizirik arren gaiza orotzaz, zure krezalialaren gomendian jar zite, arima plazent eta leial bat bezala, amurekatik egiazko zelüko izatia jardiets ahal dezazün.

II. KAPITÜLIA

*Othoitzen dü Jinkua, bere bihotzian
mintzatzen entzün dezan.*

1. *Mintza zite Jauna, zeren beha beitaüzü zure zerbüttxaria. Zure zerbüttxaria nüzü ni, emadazü enthelegia, jakin ditzadan amurekatik zure manü saintiak.*

Plega erazi ezazü ene bihotza zure hitzatarat: biauiri nitara zure elhesta, zohart-ihitz bat beza-la.

Nuizpait Israelitikuek Moisari erraten zien, *mintza zakizü zü, eta behatüren gütüzü, eztaki-güla mintza Jinkua beldürrez hil gitian.*

Etzütüt nik hala othoitzen, Jauna, ez hala, bena bai lehenago ümilki, eta desir handireki süplikatzen, Samuel profetareki: *mintza zite, Jauna, zeren beha beitzaukü zure zerbüttxaria.*

Eztakidan eni mintza Moisa, edo beste zunbait profetetarik: bena zü lehenago mintza zakitzat, Jinko Jauna, profeta ororen argizalia eta inspirarzün her emailia; zeren zihaurk hurak gabe

ezin hobeki jakintsützen ahal beinaizü; hek aldiz, zü gabe, ezpeitie profeitürik batere idokiren.

2. Egiala, hitzen herotsa egiten ahal dizie: bena ez graziaren ematia.

Ederki mintzo dütüzü: bena zü ixilik zaudiano, bihotza eztitie gortzen. Leterak emaiten zitizie, bena zük zentzia erakusten: Misteriuak agertzen zitizie, bena zük segretien enthelegia idekitzen.

Maniak ezagüt erazitzen zitizie; bena zük hen konplitzeko ajütia emaiten.

Bidia erakusten dizie; bena zük hartan eбилteko indarrak ükhen erazitzen.

Hek kanpotik baizik, eztizie deus egiten; bena zük bihotzaz argitzen, eta jakinsützen dütüzü.

Hek kanpotik ihiztatzen dizie; zük aldiz frütü erakharteko berthütia emaiten düzü.

Hek hitzez oihü eta herots egiten dizie, zük aldiz enthelegiari entzütia emaiten.

3. Eztakidan arren eni Moisa mintza: bena zü bai, ene Jinko Jauna, egia eternala; beldürrez hil,

eta frütü gabe gertha nadin; barnetik gorthü izan gabe, kanpotik baizik ezpanü abisürik.

Beldürrez orano, jüjatü izan nadin zure hitza-
ren entzünez, konplitü gabe, ezagütüz maithatü
gabe, eta sinhetsiz, begiratü gabe.

*Mintza zakitzat arren, ene Jinko Jauna, zeren
beha beitaüzü zure zerbüttxaria; ezi zük dütüzü
bizitze eternalaren hitzak.*

Mintza zakitzat ene arimaren konsolatzeko,
ene bizitze ororen khanbia erazitzeke, eta zihau-
ri laidorio, gloria, eta bethi irañen dian uhuriaren
emaiteko.

III. KAPITÜLIA

Ümilitatereki behar direla Jinkuaren hitzak entzün, eta hanitxek eztütiela aski phezatzen.

1. Beha zite, ene semia, ene hitzer, hitz ezinago eztiak beitira, eta mündü huntako filosofo, eta zühür ororen jakitiaren gañetik.

Ene hitzak bizitze, eta ezpiritü dira, eta ez tie behar gizonen zentziaz phezatü izan.

Eztütüzü behar zure plazer banuala erakharri, bena ixilik entzün, eta begiratü ümilitate, eta bihotzeko desir oso bateki.

Dohatsü da, Jauna, zük jakintsützen düzüna, eta zure legia erakusten deiozüna, amurekatik zure eztitarzüna txesta erazi diazozün bere tristeizetan, eta lürren gañen eskerniatia eztadin izan.

2. Nik jakintsütü düüt, dio Jaunak, profetak, hatsarretik gora, eta orai ere orano orori mintza-

tzen niz, thaik gabe: bena hanitx ene botzari gogor dira, eta gor.

Haboro dira mündü huni gogo hobez behatzen direnak, eziez Jinkuari: ehiñerago jarraikiten dira bere aragiaren nahiküntiari, eziez Jinkuaren plazer hunari.

Mündü hunek eztü gaiza txipi, eta irai pus eztirenik baizik hitzemaiten, eta haregatik lehia handireki hura zerbüttxatü izaten da: nik aldiz hitzemaiten deitziet gaiza ezinago handiak, eta eternalak, eta gizonen bihotzak herabian sarthürik daude.

Nur da ene zerbüttxian, eta obedientzian gaiza orotan hañbeste arrankürareki daguena; nula mündiaren, eta mündüko handienian beita-go? *ahalkez hurt zite Sion, dio itxasuak*, eta zeren arrazua galthatzen badüzü, hayr düzüla, beha zite.

Badütüzü, bide lüzian untsa laixter egiten dienak, elizako benefizio txipi baten ükheiteko; eta hanitxek huña bortxa behin lürretik goititzen dizie, bizitze eternalaren jardiesteko.

Baduatzü, irabazi xar baten unduan, nuntik hura ükhenen dien; luis bategatik, zunbait ordüz,

ahalkeizüngarriki prozeskatzen dütügü, gaiza ezdeus bategatik, eta promes txipi bategatik, gaiaz eta egünaz eñhetziaren lotsarik eztitie.

3. Bena elas! huntarzün ezin khanbiatzen den batentako, irabazi ezin preziotan ezarten den batentako, uhure ezin handiago den batentako, eta gloria ezin mügarik, ez ürhentzerik ükheiten ahal dian batentako, eñhe aphür baten hartziaz, ihur herabeztitzen dü.

Ahalke zite arren zerbüttxari herabeztia, eta plañütsia, zeren hurak bere perdizioniala prestago diren, eziez zü bizitze eternaliala.

Hurak haboro alageratzen dütüzü banitatiegatik, eziez zü egiagatik.

Egiazki bere esparantxak zunbait aldiz inganaten zitizü; bena, ene promesak eztitü ihur inganaten, ez-etare nitan fida dena, hütsik eizten juaitera.

Ene hitza etxekiren düt, erran düdana konplütüren düt, azken ürhentziala drano, ene amuruan fidelki egonen denari.

Ni niz jente pherestier orori phakü emailia, eta deboten ororen azkarki borogazalia.

4. Ezkiriba itzazü bihotzian ene hitzak, eta ardüra hetan etxeki ezazü zure gogua; ezi hen mengua handi bat ükhenen düzü, tentatü ziratekian thenporan.

Bisitaren egünian ezagütüren düzü, irakurtian ezin enthelegatzen düzüna.

Bi gisaz kostümatü dit ene haitatien bisitatze-
ra, erran nahi beita, tentazioniaz; eta konsolazio-
niaz.

Eta bi lekzione egün oroz irakurten diriet,
bata, hen biziuen kuntre, khoxatzen nizalarik;
bestia, berthüten emendatzera korajatzzen dütü-
dalarik.

Nurk ere ne hitzak dakitzalarik mesperetxatzen
beitütü, harek ükhenen dü azken egünian
jüje garratz bat.

5. O ene Jinko Jauna, zü zira ene huntarzüna
oro! eta nur niz ni, zureki bentüra nadin mintzatze-
ra. Ni nüzü, zure zerbüttxari txipi ezinago
praube bat, har mesperatxatü bat, hanitxez
praubiago, eta mesperetxatiago, eziez beitakit,
eta bentüra beineinte erraitera.

Orhit zite hargatik, Jauna, ezdeus nizala, deus eztüdala, eta deus eztirodala.

Eztüzü zü baizik hunik, jüstorik, eta saintürrik, zük dütüzü photeriak oro; zük emaiten, eta bet-hatzen dütüzü gaizak oro, hütsik eizten eztüzüla-rik bekhatoria baizik.

Orhit zite zure pietate ükheitetzaz, eta betha ezazü ene bihotza zure graziaz; eztüzünen gañen nahi, zure obrak hütsik bara ditian.

6. Nula nihauren büria soferitzen ahal düt miseriazko bizitze huntan zure miserikordiak, eta graziak azkartzen ezpanaie?

Eztezazüla ützül zure begithartia eneganik, eztezazüla lüza zure bisita; eetzizadazüla idoki zure konsolazione; beldürrez ene arima lür *hur gabez sekatü bat* bezala gertha dadin.

Jauna, erakuts ezadazü, zure boronthatiaren egiten; erakuts ezadazü, zure aintzinian ümilki, eta behar den bezala bizitzen: zeren zü beitzira ene zühürtarzüna, zük ezagützen beinaizü, nizan bezalakorik, eta mündü haur egin beno lehen, eta nihaur mündiala sorthü gabe, ezagütü bei-nündüzün.

IV. KAPITÜLIA

*Egian, eta ümilitatean, Jinkuaren
aitzinian bizi behar dela.*

1. Ene semia, egian ebil zite ene aitzinian, eta txerkha nazazü bethi, zure bihotzaren sinpletar-zünian.

Atakarzün gaixtuetarik begiratü izanen da, nur ere egian, ene aitzinian ebilten beita, eta egiak soltatüren dü inganazaletarik, eta gaixtuen mardalletarik.

Egiak libratzen bazütü, egiazko libertatiaz gozatüren zira, eta eztüzü gizonen elhe banuetzaz axolik ükhenen.

Hori egia düzü Jauna, hel bekit, othoi, zük diözün bezala. Zure egiak jakintsü nazan, harek begira nazan, eta ürhentze hun batetara drano, hartan irañ erazi dizadan.

Harek libra nazan ber desirkünthe gaixto orotarik, eta gaizkialat duen amuriotik, zureki ebilirren nüzü, bihotzeko libertate handi bateki.

2. Nik erakutsiren deitzüt (dio egiak) gaiza jüstuak, eta ene gogarako direnak.

Orhit zite, zure bekhatietzaz, dolümen, eta bihotz min handireki, eta eztüzüla seküla uste, zerbait zirela, zure obra hunak direla kausa.

Egiazki bekhatore zira, hanitx pasioneren pian, eta hetzaz üngüratürik.

Zihaurtzaz ezdeusiala zuaza bethiere, bertan erorten, bertan goithü izaten, bertan nahasten, eta bertan laxü gerthatzen zira.

Eztüzü glorifika erazitzen ahal zütian gaizarik batere; bena bai, zure büria hanitx mesperetxa erazi behar deizienik: zeren hanitxez flakiago beitzira, eziez enthelega ahal beitirozü.

3. Eztakizüla arren egiten düzün gaizetarik batere handi üdüri.

Eztüzüla uste, badela deus handirik, deus preziosik, deus miragarririk, deus fama hanitakorik: badela deus gorarik, deus laidatü, eta desiratü ihurk behar dianik, eternitateko gaizak baizik.

Biz egia eternala zure gogoko, besten ororen gañetik; eta zure zihauen ezdeustarzün handiak bihotzahunki diazazüla mingarki.

Eztezazüla deusentako ere hañ beste lotsa ükhen, deusere hañ güti unhets, deuseri ere hañ beste ihesi egin, zuña zure bekhatier: zuñek haboro dolore erakharri behar beiteizie, eziez zer nahi beita gaizaren galziak.

Eztira zunbait ene aitzinian egiazko bidian juaiten, bena berritzepen ikhasi nahiaz, eta süperbiaz gidatürik, ene segretiak jakin nahi dütie, eta Jinkuaren gaiza gorak enthelegatü, bere büriak, eta salbamentia gibelialat eizten dütielarik.

Bere süperbiak, eta ikhasi nahiak, hanitx tentazionetara, eta bekhatütara eror erazitzen dütü: ni hen ajütari enizalako.

4. Jinkuaren jüjamentien lotsa ükhen ezazü, eta photere oro dianaren kolerak ikhara erazi zitzan; ezinago gora denaren obrak eztizazüla ikher; bena zihaturen inikitatiak xehe txerkha itzazü, zunbat gaizatan hüts egin düzün, eta zunbat huntarzün egiteko laxükeriaz eitzi dütüzün.

Bere deboziona zunbaitek librietan baizil eztie erakusten, bestek imajinetan, bestek kanpotiko señale eta figüra zunbaitetan.

Ardüra ahuan naie zunbaitek; bena bihotzian aphürretan.

Badira beste zunbait, enthelegia dielarik argitürrik, eta bihotza garbitürrik, beituatza bethi hatsalbotürrik eternitateko gaizetarat, zuñi neke beitzaielürreko gaizetzaz mintzatzen entzütia, natüra bere beharretan phenareki zerbüttxatzen beitie: eta hek die borogatzen, zer egiaren ezpiritiak erraiten deien.

Zeren, erakusten beiteie, lürreko gaizen mesperetxatzen, eta zelükuen maithatzen: mündiak kasürrik ez egiten, eta egün eta gai oroz zeliaren desiratzen.

V. KAPITÜLIA

*Jinkuaren amuriuak egiten dütian
gaiza miragarriez.*

1. Benedikatzen zütüt zelüko aita, Jesü Krist ene Jaunaren aita; zeren ene praubeziaz orhitzeko huntarzüna ükhen düzün.

O miserikordien aita, eta konsolazione ororen Jinkua, esker deizüt; zeren konsolazionerik bate-re merexitü gabe, zure konsolazioniaz zunbait aldiz azkartzen beinaizü.

Benedikatzen, eta glorifikatzen zütüt bethi, zure seme bakhoitzareki, eta Espiritü saintü konsolazaliareki, jinen diren thenpora ororentako.

Eia, Jinko Jaun, ene maithazale saintia, zü ene bihotzuala jin ziratekianian, ene barnia oro boztarioz betheren düzü.

Zü zira ene gloria, eta ene bihotzaren boztariua zü zira ene esparantxa; zuregana hersatzen nüzü, en thürbürarzünezko egünian.

2. Bena nula orano amuriuan flakü, eta bert-hütian hütskor beiniz; hartakoz mengua dit, zük azkar, eta konsola nazazün: ziauri arren ardüra ene bisitatzera, eta erakuts itzadazü zure jakite saintiak.

Solta nazazü ene pasione gaixtuetarik, eta sendo ezazü ene bihotza, desirkünthe gaizkialat daramen orotarik, amurekatik barnetik sendotü-rik, eta untsa garbitürik, zure maithatzeko propi, soferitzeko azkar, eta hunian iraiteko fermo izan ahal nadin.

3. Gaiza handia da amuriua, huntarzün erras baliusa, zuñek baizik ezpeitü phezü dena arhin-tzen, eta desbardin diren gaizak bardin egarten.

Ezi egarten dü phezü dena, phezütarzünik gabe, eta kharats diren gaizak oro, ezti eta gozatsü ediren erazitzen dütü.

Jesüsen amurio indartsiak obra handien egi-tera bulkatzen dü, eta hoben diren gaizen konpli-tzera erakharten.

Althe gañian izan nahi da amuriua, eta eztü nahi mündü huntako gaiza aphalek batek ere han barna erazi dezen.

Solt izan nahi da amuriua, eta mündü huntako desirkünte orotarik hürrün, beldürrez haren barnetiko sua ülhünt dadin: beldürrez orano zunbait abantalla thenporalek zerbait nahasküra eman diazen, edo damü zunbaitek plega erazi dezen.

Amuriua beno deus ere ezta eztiagorik, deus ere azkarragorik, deus ere goragorik, deus ere hedatiagorik, deus ere maithagarriagorik, deus ere bethiagorik, deus ere hobiagorik, zelian ez lürrian: zeren Jinkuaganik sorthü beita amuriua, eta ezpeitate Jinkuatan baizik phausa, gaiza kreatü izan diren ororen gañetik.

4. Maite diana, bethi boztariuan dabila laxterrez, hegaltaz; solt da, eta deusek ere eztü baratzzen.

Oro ororen emaiten dütü; oro orotan edireiten dütü; zeren ezinago handi den bakhoitzian, gaiza ororen gañetik phausatzen beita, zuñtarik huntarzünak oro, ixuri bat bezala, jiten beitira.

Eztü gaiza emanari sorik egiten; bena emailiaganat, gaiza ororen gañetik, ützültzen da.

Amuriuak ardüran eztü baragallürik batere ezagützen; bena haren herakia badua bara ahal liroi en gaizen ororen gañetik.

Amuriuak eztü phezütarzünik senditzen, triballiak etzaizto phenus; ahal diruan beno haboro egin nahi lüke, eztü, ezin eginen gañen, soltan-txarik galthatzen: zeren uste beitü, gaizak oro ehi eta sori zaitzola.

Hun da arren gaiza ororentako, eta hanitx eragiten dü; maite dianak hütsik egiten, edo korajia galtzen ezpadü.

5. Amuriua iratzarririk dago, eta lo daguelarik ere ezta lotzen.

Triballatziak eztü eñhetzen. tinkatziak eztü hersatzen, lotseriak eztü nahasten; bena goiti dua, sü gar bizi bat bezala, eta deusek ere baratü gabe, orotan gañetik igaraiten da.

Maite dianak badaki, zer erran nahi dian lenguaje hunek.

Oihü handi bat da Jinkuaren beharrientako; arima süz bethe batek dioianian: ene Jinkua ene amuriua, zü oro enetako, ete ni oro zuretako.

6. Larga nazazü amuriuan, bihotzaren erditik gogatzan ikhas dezadan, zuñen ezti den maithatzia, eta amuriuan hurtzia eta igerikatzia.

Amuriuak har nazala, haren bizitarzünak nihaur beno gorago boztarioz juan erazitzen naialarik.

Khanta dezadan amuriozko kantikua, zuri zelialat, ene maitia, jarraiki nadin, boztariozko amuriuak ene arima zure laidariuetan engoxa erazi dezan.

Maitha zitzadan nihaur beno haboro, eta nihaur ez zure amurekatik baizik: bai aldiz, zü egiazki maite zütienak oro, zütan, amuriozko legiak, züganik bere argia ükheiten dianak, manü emaiten dian bezala.

7. Amuriua laster da, egiati, debot, ezti, eta maithagarri: hura azkar da, pazient, fidel, abisatü, lüzaz iraile, korajus, eta ez seküla berauren txerkhazale.

Ezi zertan ere nurbaitek bere büria txerkatzan beitü, hartan berian amuriua galtzen dü.

Amuriua orotarot so egile da, aphal da, eta xüxen: ezta laxü, ez arhin, ez gaiza banuer

gogua emaile; sobre da kasto, fermo, phausüzko, eta zentzü orotan untsa begiratü.

Amuriua gehienen manü pian, eta obedientzian egoile da, berauri xar, eta mesperetxagarri da, Jinkuari debot, eta esker emaile, hartan bethi esparantxa eta konfidantxa ezarten dialarik; are gütienik Jinkua gozaten dian thenporan: zeren ezpeita amuriuan bizitzerik dolore gabe.

8. Gaiza ororen soferitzera, eta bere maitiaren boronthatiaren egitera prest eztenak, eztü merexitzen maithazaliaren izenaren ükheitia.

Maite dianak behar dütü, bere maitiaren amurekatik, gaiza gaitz, eta kharats direnak oro, gogo hunez, besarkatü, eta hareganik eztü behar hürrüntü, nahi eztütian gaizen jitia gatik.

VI. KAPITÜLIA

Egiatzko maithazaliaren borogatziaz.

1. Ene semia etzirade orano maithazale azkar, eta abisatü bat.

Nulaz Jauna.

Zeren eta zük nahi etzünükian gaiza txipi batek, hasi dütüzünak, eitz erazitzen beiteitzü, eta sobera süreki konsolazione txerkha erazitzen.

Maithazale azkar bat fermo dago tentazione-tan, eta etsaiaren elhe inganiusetan eztü sinhes-terik ezarten: hala nula bere gogara duazkon gaizetan plazer egiten beiteiot; orobat displaze-rik ezteiot egiten, nahi eztian bezala juaiten zai-tzuenetan.

2. Maithazale abisatü batek eztü hañ so egi-ten maite dianaren emaitiari, nula emailiaren amuriuari.

Haboro pheretxatzen dü amuriua, eziez profeitia, eta emaiten zaitzon gaizak oro beno prezatiago zaio bere maitia.

Maithazale noble bat ezta gaiza emanian; bena bai nitan, eman ororen gañetik phausatzen.

Eztükezü oro galdü, nitzaz, edo ene saintietzaz nahi zünükian bezañ sendimentü hunik ez ükhenik ere zunbait aldiz.

Bihotzian zunbait ordüz senditzen düzün gozua, eta eztitarzüna, presenteko graziaren obra düzü, eta aitzinetiko zelüko plazeren txestallü bat, zuñtan ezpeita behar sobera bermatü, zeren juaiten, eta jiten beita.

Bena berthüte, eta mereximentü handi baten señali da, ezpiritiazen zotüzü gaixto jiten direnean kuntre gerla egitia, eta debriaren gaizkiala eror erazitzeke egiten dütian iseien mesperetxatzia.

3. Etzitzela arren nahas, eta deskoraja, zer nahi beita gaizatan gaiñen, jiten zaitzün üdüripen araur gabek.

Begira ezazü fermotarzün azkar bat, eta Jinkuaganat intenzione xüxen bat.

Eztükezü üdüripen bat, zure ezpiritia zunbait aldiz bat batetan zelialat igaiten balin bada, eta gero berhala ützültzen ohiko bihotzaren inoxenkerietara.

Ezi hurak erakharten dütüzün beno lehen, bortxaz soferitzen dütüzü,; eta desplazer egiten deizieno, eta hen akazatzera iseiatzen zireno, eztükezü zuretako perdizione bat, bena bai mereximentü bat.

4. Jakin ezazü ezi, etsai zaharrak egin ahala oro egiten diala, zuri zure hunialako desirküntiaren gal erazitzeke; eta debozione orotarik, erran nahi beita saintien uhuratzetik, ene pasione saintiaren gogotik ez üztetik, bekhatien orhimentxa hunetik, zihaturen bihotzaren begiratzetik, eta bertjütian aitzina juaiteko hartü düzün deseñ fermotik hürrünt erazitzeke.

Saldua phensamentü gaixto erakharten deizü, debeia erazi, eta eta izi zitzan amurekatik, eta zure orazionetik, eta irakurte saintütik aparta erazi zitzan.

Desplazent ziozü kofesione ümila, eta ahal baleza komüniaztetik ere bara erazi zintzake.

Eztezazüla sinhets, ez-etare harez axolik ükhen, zunbat nahi beita ardüra hedatü deitzün inganiozko lazuak.

Nuiz ere gaiza gaixtuak eta theiak ezpirituala erakharten beiteitzü, igor itzazü beraurganat. Erran ezazü.

Abilua ezpiritü theia, ahalke adi miserabilia, abilua hi theyü iz, holako gaizak ene beharrieta-
ra erakharten dütianian.

Aparta adi eneganik infanazale ezinago gaix-
tua, eztük ükhenen nitan pharterik: bena Jesús
dükek eneki, gerla egile azkarbat bezala, eta hi
baratüren iz ahalkez betherik.

Nahiago nük hil, eta phener orori ene büria
pherestatü, eziez hiri behatü.

Ixil adi, mütü adi, enitzaik haboro behatüren,
zunbat ere hanitx estürlünkü emaiten beteitak.

*Jinkua da ene argia, eta ene salbamentia,
nuren lotsa izanen niz?*

*Lizan ordian armada bat ene kuntre prestatü-
rik, ene bihotzak eztü lotsarik ükhenen: Jinkua da
ene ajütazalia, eta ene salbazalia.*

Gerla egizü, soldado hun batek bezala: eta zure flakeziak zunbait aldiz eror erazitzen bazütü, har ezazü indar lehenekuak beno handiagorik: ene grazia handiago batetan fidatzen zirelarik, eta untsa begira zite banaloriatik eta süperbiatik.

Hori dela kausa, hanitx jente egiatik herrazten dira, eta ütsümentü, kasi ezin sendotzen den batetara, zunbait ordüz erorten.

Süperbius bere bürietan sobera konfidantxa erhoki hartzen dienen erorte haur, zerbütxa bekizü bethiere guaitan, eta ümilitatian zure bizi erazitzeke.

VII. KAPITÜLIA

*Ümilitatiaren begiraren pian
graziaren estaltziaz.*

1. Hobiago, eta segürago düzü zuretako, ene semia estal dezazün debozioniaren grazia, hartzaz etzitian handi, ez hanitx mintza, ez hura hanitx pheza; bena behar düzü lehenago zure büria mesperetxatü, eta lotsa izan, zük merexitü gabe eman izan zaizüla.

Ezta behar sobera bürüneriareki, debozione berhala gaizkiala ützültzen ahal denari, estekatü.

Grazian zirenian orhit zite, hura gabe zuñen praube, eta miserabilia kostümatü düzün izatera.

Bizitze espiritualaren profeitia eztiagozü solamente konsolaziariaren graziaren ükeitian: bena orano haren idokitziaren ümilki, pazientki, eta bere büriaz khontürik batere egin gabe unhestian; gisa batez nun, etzitian laxa oraziariaren estekamentütik, eta eztitzatzün ütz erras galtzerra beste obra egitera üsatü züntianak.

Bena gogo hunek, zütan dena egin dezazün, hobekien ahal, edo uste dükezün bezala, eta etzitian osoki laxa, idortarzün, edo erreustarzün ezpiritian senditzen düzüna dela kausa.

2. Ezi hanitx jente badira gaizak bere gogara juaiten etzaitzen bezañ sarri, erreus, edo laxü gerthatzen beitira.

Gizonaren bidia ezta bethi haren photerian bena Jinkuari da eman, haren gidatzia, eta konsolatzia, plazer dianian, plazer dian bezanbat eta plazer dianari, üdüri zaion bezanbat, eta ez haboro.

Zunbait bere бүrier gogua aphür emaile, debozione soberak gal erazi ükhen dütü; zeren ahal ziroien beno haboro egin nahi ükhen beitie, izartü faltaz bere aphürtarzüna, eta nahiago iza-nez, lehenago jarraiki bere bihotzaren süyari, eziez arrazuaren jüjamentiari.

Eta Jinkuari plazent zeion beno haboro bano-ki egin nahi ükhen dielakoz, hartakoz grazia galdü ükhen die.

Zeliala drano goratü nahi izan direnak; prau-
betü izan dira, eta xarretako ützi: amurekatik

ümiliatürrik, eta praubetürrik ikhas dezen, ez bere hegaletzaz hegaltatzen, bena bai ene hegaletan esparantxa hartzen.

Jinkuaren bidian orano berri, eta deus ikhasi gabe direnak, ezpalin badira zühürren konselliaz gobernatzeko, ehiñera inganatü, eta galdü izaten ahal dira.

3. Nahiago balin badira bere sendimentiarri jarraiki, eziez beste zerbait dakienak sinhetsi, hentako azkentzia lotsagarri izanen da, bere sendimentü hartütik gibeltü nahi ezpadira.

Bekhanki bere büriak bester ümilki gobernatzera eizten dütie, beraurtzaz phakü direnek, eta zühür direla uste dienek.

Hobiago da zühürtarzün aphür bat ümilitatiareki, eta enthelegü txipi bateki, eziez jakiten leze handiak banaloriareki.

Hobe düzü zuretako gütiago düzün, eziez hanitx, süperbius erazi etzitzan.

Ezta aski zühürki gobernatzeko, bere büria osoki alagranziari e,maiten diana, ahazten dialarik bere leheneko praubezia, eta Jinkuaren lotsa

kastua, zuñ beldür beita, grazia eman izan zaiona gal dezan.

Eztü orano berthütiaren gozua zer den aski ezagützen, gaitzen, edo zer nahi beita esterlünküren thenporan, aski esparantxa gabe gobernatzan denak, eta behar lükian bezanbat konfidantxareki bere phensamentiak, eta orhitmentxak eneganat hedatzen eztütianak.

4. Nur ere bakian denian, següregi izan nahi beita; hura atakarzünen thenporan bihotz aphalegi, eta lotsorregi ediren izanen da.

Bazeneki bethiere txipi, eta ümil zihaur beitan egoiten, eta zure ezpitiaren untsa aphaltzen, eta gobernatzan; etzinteke hañ laster dajeriala, eta bekhatiala eror.

Konsellü hun bat zuretako düzü, debozionia- ren süya ezpiritian phiztü zaikezünian, phensa dezazün zihaur beithan, zer ziratekian argi haren juan unduan.

Hori heltü datekianian, goguan etxeki ezazü, arzara argia ützültzen ahal dela: zuñ thenpora aphür baten idoki ükhen beitüt; amurekatik zü

abisatiago izan zintian, eta nihauren gloria hobeki ediren nezan.

5. Abantallusago düzü ardüran holaxe borogatü izatia, eziez gaizak bethi zure gogara nahi bezala bazüntü.

Ezi mereximentien huntarzüna eztago konso-lazione, edo zelüko ikhuste habororen ükheitian: ez eskriptüran jakitus izatian, ez lekhü gorago batetan ezarri izatian; bena bai egiazko ümilitatiaren fundamenian, zelüko karitatiez betherik izatian, Jinkuaren uhuriaren, nahaspillarik gabe, eta osoki txerkhatzian; bere büriaren ezdeusentako etxekitian, eta haren egiazki mesperetxat-zian eta plazer ükheitian, zeren bestez, mesperetxatü eta ümiliatü den lehenago, eziez uhuratü.

VIII. KAPITÜLIA

*Jinkuaren aitzinian bere büriaren
xarretako igaren erazitiaz.*

1. *Mintzatüren niza ene Jaunari, hauts eta err-
hauts baizik enizanen gañen?* Deus haboro ene
büria etxekiten badüt; haur zirela zü, berhala
ene kuntre, eta ene inikitatiek egiazko jakilegua
bat ekharten die, eta haren kuntre enaite juan.

Bena nihauren büria büria xarretako, eta
ezdeus batentako hartzen badüt, nihauren phe-
retxü propi orotarik bilaizten balin baniz, eta
nizan bezala erhausten baniz, badikezüt zure
grazia ajütari, eta zure argia ene bihotzialat
hüllantüren düzü: eta zunbat nahi beita txipi den
nihauren düdan pheretxia, ene ezdeustarzünian
ithoren, eta galdüren düzü sekülakoz.

Han erakusten naizü nihuri, zer nizan zer
izan nizan, eta zer phüntütara jin nizan: zeren
ezdeus beiniz, eta ezpeinekian.

Nihauri eitzia baniz, haur nizala ezdeus, eta
oro flakezia: so lehiatü bat aldiz egiten badeita-

zū, berhala azkartzen, eta alagrantzia berri batez bethatzen nüzü.

Eta untsa estonutzen nüzü, nula hañ thenpora llabürretan solajutzen, eta hañ eztiki besarkatzen naizün, ni nihauren pheziak bethi behera bulkatzen naiana.

2. Hori zure amuriuaren obra düzü, zuñ nik deus egin bage, eneganat lehenik jiten beita hañbeste beharretan sokhorritzen naialarik, phasü gaixtuenetarik ere begirutzen, eta, egia-
ren erraitera, ezin khunta ditakian gaitzetarik soltatzen naialarik.

Nihauren büriaren gaizki maite ükhenez, nihaur galdü izan nüzü; eta zure zihauren txerkhatzez eta xahüki maithatzez, zü ediren zütüt, eta nihaur ere bai, eta zureganako amuriuak, nihauren ezdeustarzünian, barna beno barnago sar erazi nizü.

Zeren zük enetako, o ezinago ezti zirena, nik merexi beno haboro huntarzün beitüzü, eta nik esparantxa ükheitera, edo zuri galthatzera bentüra neintian beno hanitxez haboro.

3. Benedikatü zirela, ene Jinkua; zeren, zunbat ere huntarzünik batere ezpeitüt merexi; haregatik, zure largo, eta hun izate müga gabiak thayk ezpeitü seküla hartzen, ezagützerik kharreiatzen eztianer ere, eta zureganik hürrüntü direner hunki egiteko.

Ützül gitzazü zureganat, amurekatik ükhen dezagün ezagütze, izan gitian ümil, eta debot; zeren zü beitzira gure salbamentia, gure berthütia, eta gure azkartarzüna.

IX. KAPITÜLIA

Gaizek orok Jinkuaganat, azken ürrhentzialat bezala juan erazi behar diela.

1. Ene semia, egiazki dohatsü izatia desiratzten badüzü, nik behar dit izan zure azken müga.

Intenzione hunek xahatüren dizü zure bihota, zuñ beraurganat eta kreatüretarat ardürago okhertürik beitago.

Ezi zure büria zerbaitetan txerkhatzen badüzü, berhala gaizki edireiten, eta idortzen zira.

Oro arren eneganat lehenik, eta бүрүtik erakhar itzazü; zeren ni beiniz gaizak oro eman deitzüdana.

Phausüz ikhus itzazü oro bederarka, huntar-zün ezinago handitik jalkiak bezala; eta hartakoz orok eneganat bere üthürbürialat bezala erakharri behar dizie.

2. Eneganik, üthürrü bizi batetarik bezala, txi-piak eta handiak, praubiak eta aberatsak, hur

bizi bat hartzen die; eta nur ere ene zerbütxian gogo hunez, eta bolontarioki jarten beitira, hek grazia graziarentako ükhenen die.

Nur ere aldiz, nitarik kanpo, glorifikatü, edo hun propi zunbaitetan alageratü nahi beitateke, hura egiazko alagrantzian, eta bihotzeko plazer larguan, ezta izanen; bena hanitx gisaz nahasküretan, eta hersidüretan izanen da.

Eztüzü behar arren deus ere huntarzünetik zihauri eretxeki, eta eztezazüla berthütia zuñ nahi beita gizoni eman: bena oro Jinkuari, zuñen sokhorria gabe deus ere ezpeitü gizonak.

Nik oro eman zitit, nik zirena oro nahi zütüt, eta garratztarzün handi bateki eskerrak galhattzen zitit.

3. Haur da egia, zuñtzaz gloriaren benitatia akazatzen beita.

Eta behin zelüko grazia, eta egiazko karitatia sartzen badira bihotz batetan, han ezteateke ez inbidiarik, ez bihotz hersidürarik, eta amurio propia ezta bürzagitüren.

Ezi Jinkuaren karitatiak oro garhaitzen dütü, eta arimaren indarrak oro largatzen.

Untsa zühür bazira, nitan baizik etzira alage-
ratüren, nitan baizik eztüzü esperantxarik ükhe-
nen; zeren Jinkua bera baizik ezpeita ihur hunik,
zuñek gaiza ororen gañetik laidatü eta benedikatü
izan behar beitü.

X. KAPITÜLIA

Gaiza ezti bat dela, mündia mesperetxatürik, Jinkuaren zerbütixian izatia.

1. Orai arzara mintzatüren nitzaizü, Jauna, eta enüzü ixilik egonen; mintzatüren nüzü ene Jinkuaren, ene Jaunaren, ene errege zelian denaren beharrietara.

Ala beita handi, Jauna, zure lotsa dienen, begiratzen düzün eztitarzünaren hanitxtarzüna bena zer zira zü maite zütianentako? zer bihotz osoz zerbütixatzen zütianen?

Ihulere ezin erraiten ahal den bezalako düzü zure ezpiritüz ikhustiaren eztitarzüna, zuñ maite zütianer largoki emaiten beitüzü.

Orotan gainti erakutsi deitazü zure karitatiearen eztitarzüna, ezdeus nintzalarik, egin ükhen naizünian, eta zure ganik herratürik nabilanian, zihaurganat erakharri naizünian, zerbütixa zintzadan amurekatik; eta zure maite ükheitiaz manü eman deitazünian.

2. O amuriuaren üthürri ezin agort daitiana, zer erranen düt zützaz?

Nula ahaztera üzten ahal zütüt, nitzaz orhitzeko huntarzüna ükhen düzünen gañen nihaurk orano ene arima theyü eta gal unduan.

Pietate ükhen düzü zure zerbütxariaz, ihuntik ere esparantxa ükheiten ahal zian beno haboro; eta zure grazia, eta adixkidegua erakutsi deitzozü harek ihulere merexi zian beno hobeki.

Zer grazia hunen ordari emanen deizüt? Ezi eztüzü orori eman izan, gaizak oro eitzirik mündü huni adio erraitia, eta komentietako bizi-tziaren besarkatzia.

Gaiza handi bat deia, zü zerbütxa zitzadan, beste kreatürak oro zure zerbütxatzera bortxatü direnen gañen?

Etzitazü üdüri izan behar, zure zerbütxatzia gaiza handi bat dela; bena lehenago üdüri zitazü gaiza handi, eta miragarri bat dela, ükhen deza-zün huntarzüna, hañ praube eta merexi gabe bat har dezazün zure zerbütxaritako, eta jün-ta deza-zün zure maitekilan.

3. Nik dütüdan gaizak, eta zure zerbüttxatzeko emaiten deitazün muldia, oro zuriak dütüzü.

Bena haregatik zure aldian, zük ni haboro zerbüttxatzen naizü, eziez nik zü.

Hoiiek dütüzüla zelia eta lürra gizonaren zerbüttxüko kreatü dütüzünak, prest beitaude, eta egün oroz egiten beitie, zük manü emaiten deiezüna.

Bena hori gaiza aphürra düzü; aingüriak ere orano gizonaren zerbüttxüko bere heñian ezarri dütüzü.

Horik oro beno haboruago dena düzü aldiz, zihaurk düzün, gizonaren zerbüttxatzeko, huntarzüna, eta hari hitz emaitia, zihaturen büria emanen deiozüla.

4. Zer emanen deizüt, egin deiztatzün huntarzünen hoioren ororentako. Ah zerbüttxa ahal bazintzat ene menteko egün oroz!

Ah egün bakhoitx batez ere zerbüttxa ahal bazintzat, zük merexi düzün bezala.

Egiazki zük merexi dütüzü zerbüttxiak oro, eta laidorio eternal bat.

Egiazki zü ene Jaunazira, eta ni zure zerbüt-xari praubia, ene indar oroz zü zerbüt-xatü behar züntükedana, eta zure laidoriuetan seküla debeiarzünik hartü behar enükiana.

Hala nahi dit, hala desiratzen dit; bena nik ments dütüdanen ororen süplitzeko ükhezü huntarzüna.

5. Ala beita uhure, eta gloria handia, zure zerbüt-xatzia, eta zure amurekatik, beste gaiza ororen mesperetxatzia!

Ezi nur ere gogotik zure ezinago saintü den zerbüt-xiaren pian jarten beitira, hek ükhenen dizie grazia handi bat.

Nur ere zure amurekatik, aragiaren plazer orotarik hürrüntü beirateke; hek edirenen dizie espritü saintiaren ezinago ezti den konsoliua.

Nur ere zure izenetan bide hersian jarten beitira eta mündüko arranküretzaz bilaizi beirateke, hek jardietsiren dizie ezpiritüko libertate handi bat.

6. O Jinkuaren zerbütü eder, eta maithagarria, zuñek gizona saintützen, eta libertatian ezarten beitü.

O relijiusen izatiaren mithilgua sakratia, zuñek gizona ezarten beitü aingürien pare, Jinkuaren apaisazale, debrien lotsa erazizale, eta arima fidel orori laidable.

O zerbütü besarkatü, eta bethi desiratü behar günükiana, zuñtzaz merexitzen beitü ihurk huntarzün ezinago handia, eta jardiesten ala-grantzia bethi irañen diana.

XI. KAPITÜLIA

*Behar dütiala ihure bere bihotzeko
desirak untsa ikhertü, eta xüxentü.*

1. Orai drano untsa ikhasi eztütüzün hanitx gaiza behar dütüzü, ene semia, orai ikhasi.

Zuñ dira hurak, Jauna?

Zure bihotzeko nahiküntia, osoki eni plazent den bezala, ezar dezazün, etzitian izan zure büriaren maithazale, bena ene boronthatiaren egitera sü handireki iseia zitian.

Ardüra zure nahiküntek gortzen, eta phausatzen zütie; bena gogua emazü, eia ene uhuriak, ala ziharen abantallak haboro bulkatzen zütian.

Ni nizala kausa bada, kuntent izanen zira, nula nahi beita gaizak jin erazi ditzadan: bena zerbait ziharen profeitürik estalirik balin bada, harek nahasküraz eta phezütarzünez bethatzen zütü.

2. Gogua emazü arren, sobera konfidantxa har eztezazün, aitzinetik, ene gogorik jakin gabe,

hartü zünian desirküntian; beldürrez gero dolü dakizün, edo lehen plazer egiten zeizün gaizak, eta hobiago ustez lehiatüki egin nahi zünianak, gerotik desplazer egin dizazün.

Ezi eztizü behar ihurk jarraiki bihotzeko desir hun üdüri diren orori, ez-etare hargatik berhala akazatü gaixto üdüri direnak ere.

Hun da zunbait ordüz estekamentü, eta desirkünthe hunen ere bridatzia, beldürrez, hen üsiegi jitiak, ezpiritia barreia erazi dizazün, edo zure aski begiratü izan gabiak, bestiak bekhatiala eror erazi ditzan, edo orano, besten zuri bühürtziak, zihaur nahas, eta eror erazi zitzaizkion.

3. Zunbait ordüz aldiz, behar da bortxareki, eta korajereki aragiaren nahiküntan kuntre bühürtü, eta ez goguarik eman, zer nahi dian, edo zer eztian nahi: bena egin ahala oro egin, amurekatik nahi bada eta ez ezpitiaren pian izan dadin.

Eta gaztigatü, eta esklabajian egoitera bortxatü behar dü, gaiza orotara prest izan dadin artio, eta ikhas dezan artio aphürrez pairatzen,

gaiza arrunten maithatzen, eta berauri plazent
etzaionaz ez murmuzeiatzen.

XII. KAPITÜLIA

Pazentziaren bere phüntiala ezartiaz, eta aragiaren nahikünten kuntre borrokatziaz.

1. Eskierki, ene Jinko Jauna, pazentziaren untsa mengua handia dizüt: ezi eni nahi eztüdanik hanitx gaiza, ene mentian heltzen zitadazü.

Ezi zer nahi beita gisaz, bakiaren ükheitera iseia nadin; eztitezü ene bizitzia gerla, eta dolore gabe izan.

Hala düzü, ene semia, bena eztit nahi tentationerik gabe den, edo nahi eztian gaizarik borogatzen eztian bake bat txerkha dezazün.

Bena ordian berian, uste ükhen dezazün, bakia edirenen düzüla; nuiz ere hanitx thürbürar-zün suertez, eta hanitx nahi eztüzün gaizaz borogatü beitzirateke.

2. Erraiten badüzü eztirozüla hanitx soferi, nula ordian soferitüren düzü pürgatorioko süya?

Bi gaizetarik txipiagua ihurk behar dizü bethi haitatü.

Amurekatik arren, eternitateko süplizio gero jinen direner, ihesi egin ahal dezazün; iseia zite, Jinkuaren amurekatik, oraiko gaitzen pazentzia handi bateki soferitzera.

Uste düzia mündü huni estekatürrik daudian gizonez, deus edo aphür baizik eztiela soferitzeko? etziniro bat ediren, txerkha zintzan ordian mündü huntako aisenak.

Bena aments badizie plazer hanitx, eta bere nahikeriak egiten zitizie, eta hartakoz aphür senditzen zitizie bere thürbürarzünak.

3. Nahi dit, dütien goguala jiten ahal zaitzen gaizak oro: bena zunbat thenporaz uste düzü irañen diela?

Müندان asezia direnak, khia bezala, galdüren dütüzü, eta plazer igarenez ezizie orhitmentzarik batere ükhenen.

Haboroz haboro lürrian direno ere, eztütüzü hetzaz gozatzen kharatstarzün, eta lotsa gabe.

Ezi zuñ gaizatan ere beraurien plazera edireiten beitie; hartarik berautarik ardüra doloriaren

phenak ükheiten zitizie; eta hori jüstoki heltzen ziezü, amurekatik, behar ezten gisa bere plazerak txerkhatzen, eta her jarraikiten direnak, hetzaz ahalke, eta kharatstarzün gabe ezitian goza.

4. Ala beitira plazer hurak, direnak oro, llabür falsü gaixto, eta ahalkeizün.

Bena haregatik, hetarik jiten diren nahaskürak, eta ütsümentiak ezteitze üzten ezagützera: bena abere mütü eli bat bezala, baduatza arimaren perdizionala, bizitze gastatü hunen plazer txipi bat dela kausa.

Etzuazala arren, ene semia, zure aragiaren nahikünten unduan, eta gibel zite zihaturen boronthatetik... Alagera zite Jinkuatan, eta emanen deitzü zure bihotzaren galtuak.

5. Ezi egiazki alageratü nahi bazira, eta konsolio largorik eneganik ükhen: mündüko gaizak mesperetxatzen, eta lürreko plazerak oro zihaurganik hürrüntzen dütüzularik, benedikatü izanen zira, etakonsolio largorik emanen zaizü.

Eta zunbatenaz hürütürenago beitzira krea-
türa ororen konsolazionetik; hanbatenaz nitan
edirenen düzü eztiagorik, eta azkarragorik.

Bena etzira berhala hetara heltüren, zunbait
tristezia, eta zure büriaren kuntre zunbait borro-
ka softeritü gabe.

Jarriren zaizü aitzinian kostüma zahar, zütan
herruak barna egin dütükian bat; bena hobiago
batez goithüren düzü.

Murmuzeiatüren dizü aragiak, bena ezpiritia-
ren debozione süz bethiaz bridatüren düzü.

Nuizpaiko süge zaharrak therritatüren, eta
khexa eraziren zütü; bena orazioniaz ihesi dere-
zatüren düzü: besthalte untsa triballatziaz sark-
hüra handi bat zerratüren deiozü.

XIII. KAPITÜLIA

*Jesü Kristen exenpliala, zerbüttxari
ümil batek ükhen behar dian
obedientziaz.*

1. Ene semia, nur ere obedienziatik jalkitera iseiaitzen beita, harek bere büria graziatik jalki erazitzen dizü, eta nurk ere hun berhezi bat ükhen nahi beitü, hark galtzen dütü komünak.

Bere gehienaren pian bolontarioki, eta gogo hunez, jarten eztenak, erakusten dü, eztela orano osoki aragiaren bürzagitü, bena ardüra ostikatak emaiten deitzola, eta murmuzeiatzen zaiola.

Ikhas ezazü arren, zure gehienaren pian bertarik jarten, zük nahi düzüniala plega erazi nahi badüzü zihaturen aragia.

Ezi bertanago ihurk garhaitzen dizü kanpotiko etsaia, barnetiko deboziona eskerniatü ezpada.

Eztüzü etsai greugarriagorik, ez gaixtuagorik zure arimaren, eziez zihaur beitzira ezpiritiarki bakian etzireno.

Behar düzü, zure büriaren egiazko mespretxü oso bat hartü, aragia, eta odola beno azkarrago izan nahi balin bazira.

Sobera zure büria, behar ezten bezala, maite düzülakoz orano, hartakoz ikharatzen zira besteren boronthatiaren osoki egitiaz.

2. Bena gaiza handia deia, zü erhaüts, eta ezdeus baizik etzirenen gañen, Jinkuaren amurekatik, beste gizon baten eskü pian jarten bazira? ni nizalarik photere oro diana, eta goren gorenik dena, gaizak oro ezdeusetarik egin dütüdana, zure amurekatik, gizonaren pian ümilki jarri nizanian?

Bestiak oro beno ümilago, eta aphilago jarri nüzü, amurekatik, zük zure süperbia, ene ümilitatiaz, garhait zenezan.

Ikhas ezazü erhauts zirena obeditzen. Ikhas ezazü ümilitatiaren, lür eta lohi zirena, eta besten ororen, huñ petan izaten.

Ikhas ezazü, zihauren boronthatiaren ez egiten, eta nuren nahi beita manü pian jarten.

3. Khexa zite, zihauren kuntre, eta eztezazü-la ützt ürgülliarene hankürotxa zütan bizitzera: bena hañ txipi, eta ororen petiko erakutsazü zure büria, nun oro zure gañetik ebil ahal ditian, eta kharriketako lohia bezala, huñ petan erabil zitzen. Zer dükezü plañitzeko, o gizon ürgüllütsia?

Zer düzü bekhatore theia, zuri meatsü egilen kuntre erraiteko düzüna, hañbestetan Jinkua ofensatü, eta ifernia merexitü düzüna?

Bena pharkatü deizü ene begiak, zeren zure arima ene aitzinian prezios izan beita; amurekatik ezagüt zenezan ene amuriua, eta ene hunki eginer kharreia zenezan bethi zure ezagützia.

Eta amurekatik besten pian, eta ümilitatian thaik gabe jar zintian, eta pazentziareki zuri eginen zeitzen mesperetxiak soferi zintzan.

XIV. KAPITÜLIA

*Behar diela Jinkuaren jüjamentü
estaliek lüzaz phezatü izan, gihauren
obra hun ustek ürgüllütsü erazi
ezkitzen amurekatik.*

1. Entzün erazitzen deiztadazü, Jauna, zure jüjamentiak, irurziri herots bat bezañ azkarki; ene ezürrak lotsaz, eta ikharaz bethatzen dütügü, eta ene arima izieri handi batetan diagozü.

Baniagozü espantatürik, eta ikhusten dit, zeliak ere eztirela xahü, zure aitzinian.

Aingürrier pharkatü ezpadüzü, hen gaixtoke-riaren ediren unduan, zer izanen da nitzaz.

Izarrak zelütik erori dütüzü, eta nik, erhauts baizik enizanen gañen, zer esparantxa ükhenen düt?

Obrak laidable zütiela üdüri zienak, erori izan dütüzü lekhürik aphaleniala, eta ikhusi zitit aingürrien ogiaren jaliak, urdentako ziren magitxen, jatez plazer hartzen.

2. Eztüzü arren saintütarzünik batere Jauna, zük zure eskia zihaurganat thiratzen badüzü.

Eztüzü zühürtarzün profeitablerik, zure gobernaria baratzen bada.

Eztüzü azkartarzün hun denik, zük süstengatü gabe, eizten badüzü.

Eztüzü xahütarzün segürik, zük hura begiratzzen ezpadüzü.

Eztüzü gure begiratzia deusentako ere hun, zure begira saintiak sokhorritzen ezpagütü.

Ezi gihauri eizten bagütüzü, erorten eta galzten gütüzü, zützaz aldiz bisitatiak bagira; jaikiten eta bizitzen gütüzü.

Egia düzü, khanbiakor girela, bena zük fermotzen gütüzü, eta epheltzen girenian, zük berotzen gütüzü.

3. Ala beitüt nik nihaurtzaz sendimentü ümilik, eta aphaltik ükhen behar! ala beitüt ezdeus uste ükhen behar, dela zerbait huntarzünen üdüripen düdana!

Ala beitüt nik, aphalt beno aphaltago jarri behar, Jauna, zure jüjamentien leze haniaren

pian, zuñtan edireiten beitüt, ni besterik deus enizala, ezdeus eta ezdeus baizik!

O phezü themañü gabia! o itxaso ezin igaraiten dena! zuñtan nihaurtzaz deus besterik ezpeitüt edireiten, baizik ere osoki ezdeus nizala.

Nun date arren, ene gloriaren estalgünia? nun ene berthütian hartü nian konfidantxa?

Banalaria oro iretsi izan düzü, zure nitan gañeko jüjamentien barnatarzünian.

4. Zer dira gizonak oro, zure aitzinian? *lürrezko phitxerrak bere egiliaren kuntre glorifikatüren direia?*

Gizon, zuñen ere bihotza egian Jinkuaren manü pian beitago, nula elhe banuetzaz ürgüllütsütüren ahal da?

Mündiak orok ezin goratzen dizü, egiak bere pian aphal erazi diana; eta bere esparantxa fermoki Jinkuatan ezarri diana, eztüzü zotükatüren mündü ororen laidoriuegatik.

Ezi laidazale hurak berak ezdeus dütüzü, eta bere elhen herotsa bezala, galdüren dütüzü, *Jinkuaren egia aldiz badiagozü bethierekoz.*

XV. KAPITÜLIA

*Nula egon, eta mintzatü behar den,
gaiza desiratzen ahal diren orotan.*

1. Ene semia hulaxe mintza zite, gaiza orotan; Jauna, zure plazera balin bada, egin bedi hori hola.

Jauna, zure uhuria hala bada, egin bedi hori zure izenetan.

Jauna, ikhusten badüzü eni konbeni dela, eta hun dela enetako, unhesten badüzü, ordian emadüzü grazia, hartzaz zure uhuretan zerbütxa ahal nadin.

Bena ezagützen badüzü, enetako gaixto datekiala, eta arimaren salbamentiaren ezteakiala hun: halako desirküntiak idoki itzazü eneganik.

Ezi desirküntiak oro eztütüzü espiritü saintiaganik, zunbat ere gizonari xüxen eta hun üdürizten beitzaitzo.

Eztüzü ehi egiaren klarki ezagützia, ala ezpiritü hunak, ala gaixtuak gaiza baten, edo betse

baten desiratzera bulkatzen zütian: ala orano zihauen ezpiritia hartara erakhaten zütian.

Hanitx jente azken ürhentzian trunpatü izan dira, zuñ hatsarrian üdüri beitzen, ezpiritü hunaz bulkatiak zirela.

2. Hartakoz zer ere ezpiritiala desiragarririk jiten ahal beita, harek behar dü desiratü, eta galthatü izan Jinkuaren lotsareki, eta bihotzeko ümilitatiareki: eta orotan gainti, zihauerek boront-haterik ükhen gabe, eni oro eitzu behar düzü erraiten düzülarik.

Jauna, zük badakizü nula den hobekienik: haur, edo hura egin bedi, zük plazer düzün bezala.

Emazü plazer düzüna, plazer düzün bezanbat, eta plazer düzünian.

Egizü eneki, dakizün bezala, eta zihauri plazentetik, eta zure uhuriaren hobekienik den bezala.

Ezar nazazü plazer düzün lekhian, eta nitzaz egizü, plazer düzüna, libertate oso bateki.

Zure eskietan nüzü, ützül nazazü, horrat hunat üngürian.

Haur nüzüla zure zerbüt-xaria, orotara prest nizana, nihauren bizitzerik zuretako baizik, eztü-danen gañen desiratzen; bena hura untsa, eta zük metexi düzün bezala, enplega dezadan zihaurk ürgaitz nazazü.

3. O Jesüs, ezinago hun eta ezti zirena, emadazü zure grazia, amurekatik eneki den, eneki triballa dadin, eta eneki, azken ürhentziala drano, irañ dezan.

Desira erazi, eta nahi ükhen erazi ezadazü bethiere zuri maithagarrienik, eta plazentenik zaizün gaiza.

Zure boronthatia enia den, eta enia bethi zuriari jarraiki dadin, eta bake ezianago hun batetan, hareki izan dadin.

Zük nahi düzüna, düdan nahi, zük ez nahitüzüna, eztüdan nahi, eta eztüdan photererik nahi, edo ez nahi ükheiteko, zük nahi, edo nahi eztüzüna baizik.

4. Mündian diren gaizer orori hiltzeko grazia galthatzen deizüt, eta gizonen artian ez ezagütü,

eta bai mesperetxatü iztia, zure amurekatik maitha dezadan.

Phausa nadin zütaz gaiza desiratzen dütüdan ororen gañetik, eta ene bihotza zütan bakian izan dadin.

Zü zira egiazko bihotzeko bakia, eta phausü bakhoitza: zütarik kanpo, oro neke, eta greugarri dütüzü. Lotüren, eta phausatüren nüzü bake hartan berian, erran nahi beita, zütan, zuñ baitzira huntarzün eternala, eta ezinago handi dena, hala biz.

XVI. KAPITÜLIA

*Jinkuatan beraurtan behar dela
txerkatü egiazko konsoliua.*

1. Eztit heben egürükiten, bena bai beste mündian, zer ere ene konsolazionetako desira, edo phensa ahal beitirot.

Nütian ordian nihaurk, mündüko konsolazio- niak oro, eta plazerez oroz goza ahal nendin ordian; gaiza segür bat düzü, eniruala irañ ahal lüzaz.

2. Hortik ageri düzü, eztirozüla, o ene arima, ediren konsolazione, eta alagrantzia oso bat, Jikuatan baizik, zuñek praubiak konsolatzen, eta ümilak sokhorritzen beitätü.

Egürükazü aphür bat, egürükazü, o ene arima, Jimkuaren promesa, eta ükhenen düzü zelian, huntarzün ooren bilkhüra.

Oraiko gaizak sobera, behar ezten bezala, desiratzen badütügü, zelükuak, eta eternitate- kuak galdüren dütüzü.

Hun thenporaletzaz zerbütxa zite, eta eternitatekuak desira itzazü.

Eztüzü hun thenporalik, zü osoki asezia ahal zitzakeienik, zeren ezpeitzira kreatü izan hen gozatzeko.

3. Hun kreatü izan direnak oro züntian ordian, etzinteke izan ahal dohatsü: bena zure dohatsütarzüna oro diagozü Jinkuatan, gaizen ororen kreazalian.

Eztüzü dohatsütarzün hura, mündü hunen maithazale erhuek uste, eta laidatzen dien bezala, eta arima xahiek, zunbait ordüz, gozatzen dien bezala, zuñen phensamentiak oro, zelieta beitaude.

Gizoneganik jiten den konsolazionia oro, bano eta llabür da.

Egiak bihotzian boroga erazitzen deizün konsolazionia da, dohatsia, eta egiazkua.

Gizon debotak lekhü orotan bereki kharreiatzen dü Jesü Krist bere konsolazalia, eta erraiten deio sokhorri nazazü, ene Jesüs jauna, thenpora, eta lekhü orotan.

Biz haur ene konsolazionia; konsolazionen ororen gabeziaren, gogo hunez, nahi ükheitia.

Eta zure konsolazionia faltatzen bazait, zure boronthatia, eta ene borogatzeko emaiten deitadazün gatzigia, zerbütxa dakidan ene konsolazionerik handienarentako.

Ezi zure khexatzia, eztüzü bethierekoz, ez-
etare zure mehatxia eternitatekoz.

XVII. KAPITÜLIA

*Gure arrakürek orok Jinkuatan ezarri
behar diela.*

1. Ene semia, eitz nazazü, zütan nahi düdana-
ren egitera, nik bazikit zer den hun zuretako.

Gizon ziren bezala, zure phensamentiak jiten
zaitzü, eta zure sendimentiak hanitx gisatan,
gizonen emurak konseillatzen deitzien bezala
dütüzü.

Jauna, zük diozüna egia düzü, zük enetako
düzün arranküra, handiago düzü, eziez nik
nihaurentako ükhen ahal niruana oro.

Ezi nurk ere bere arranküra oro zütan ezpei-
tü ezarten, hura erorkor dükezü.

Jauna, nitzaz egizü plazer düzüna, ene
boronthatia zureganat xüxen, eta fermo egon
dadin ber.

2. Plazer badüzü ülhünpian izan nadin, zirela
benedikatü; eta plazer badüzü argian izan nadin,
zirela berriz benedikatü; ene konsolatzeko hun-

tarzüna balin badüzü, zirela benedikatü; eta nahi badüzü thürbürarzünian izan nadin, zirela orobat bethiere benedikatü.

Ene semia, holaxe egon behar düzü eneki ebili nahi balin bazira.

Hañ gogo bunez behar düzü softeritzeko, nula alageratzeko.

Hañ gogo hunez behar düzü izan menguatü, eta praube, nula ükhentsü eta aberats.

3. Jauna, nitan gaña erakharriren dütüzün phenak oro, zuregatik gogo hunez, softeritüren zikit.

Bardinzki hartü nahi zikit, zure eskütik huna eta gaitza, eztia eta kharatsa, alagera eta tristia; eta zuri eskerrak eman, eni heltzen zaiztan gaiza orotzaz.

Begira nazazü bekhatü orotarik, eta enüzü lotsa izanen heriuaren, ez iferniaren.

Sekülakoz egoitz, eta biziaren librütik khen enazazün ber; nitan gaña jinen diren thürbürarzünek orok, eztitazie damürik eretxekiren.

XVIII. KAPITÜLIA

Mündü huntako miseriek, behar diela pazentzia ezti bateki, softeritü Jesü Kristen exenpliala.

1. Ene semia, ni zure salbamentiagatik zelütik jaitsi nüzü, zure miserietzaz kargatü izan nüzü, ez bortxaz, bena amurioz, amurekatik pazentzia ükheiten ikhas zenezan, eta mündü hunatko miseriak, maugrenaie gabe, softeri zintzan.

Ezi ene lehen sortzepeparen orenaz geroz, khürütixian hil artio, eztitazü doloriaren softeritziaz hütsik egin.

Gaiza thenporaletarik ments handirik ükhen dit, hanitx plañü nitzaz ardüra entzün dit, ahlkiak, eta laiduak eztiki softeritü zikit, ene hunki-eginen esker gaixtua, ene miraküllien blasfemiak, eta ene erakuste hunen, aküsantxa falsiak ükhen zikit.

2. Jauna, zure mentian pazient izan zirenen gañen, orotan gainti, zure aitaren maniaren kon-

plitzian; jüsto düzü, ni bezlako bekatore miserable batek, zure boronthatiaren araur pazientki bere büria soferi dezan: eta zük plazer düzün artio, bizitze gastatü hunen karga, bere salbamentiatatik kharreia dezan.

Ezi zunbat ere oraiko bizitziaren karga phezü ihurk senditzen beitü, haregatik orogatik zure graziaren photeriaz, mereximentü handitako gerthatü düzü, eta flakien ere, zure exenpliari, eta zure saintien hatzer jarraikiten direlarik, süstengagarriago, eta baliusago.

Hanitzez ere konsolagarriago düzü, eziez nuizpait beitzen lege zaharrian, nuizere zelüko bortha zerratürik beitzaguen, eta zelialako bidia ere ülhünago üdüri beitzen, hañ jente aphürrek hanko erresomaren txerkhatzeko arranküra hartzen zienen gañen.

Ordian jüsto zirenak ere, etzitatezün salba, zure pasionia beno lehen, eta etzitatezün sarahal zelüko erresoman, zük zure heriotze saintia konpli artio.

3. O zunbat esker ezteizüt zuri eman behar, zeren ükhen düzün huntarzüna, eni, eta arima

fidel orori, erakusteko hañ bide xüxen bat, eta hun bat, zure eternitateko erresomalat juaiteko.

Ezi zure bizitzia, gure bidia düzü, eta pazentzia saintiaren moianez, juaiten gütüzü zureganat, zuñ beitzira gure khorua.

Aitzinetik exenplia eman, eta erakutsi ezpazeneizü, nurk lüke zuri jarraikiteko arranküra?

Elas zunbat lirateke, hürrün, eta gibelian bara litakianak, ikhus ezpalitze zure exenplü ederrak.

Haregatik orogatik ephel giaudetzü, hañbeste miraküllüren eta pherediküren entzün unduan; zer lizate, ezpagünü hañ argi handi bat zuri jarraikiteko?

XIX. KAPITÜLIA

Goitzarrenen unhestiaz, eta nur egiaz pazient den borogatziaz.

1. Zer da zük diozüna, ene semia, akaba bite zure plañiak, ene, eta beste saintien pasionia untsa ikhusi unduan.

Etzira orano bortxakatü, zure odola ixur artio.

Gaiza aphürra düzü, zük softeritzen düzüna, parrian ezarten balin badüzü, hañbeste softeritü dienekilan, zuñ hañ azkarki tentatü, hañ mingarki hiratü, hañbeste gisaz borogatü, eta eskerniatü izan beitira.

Behar düzü arren, besten garratzaguak ezpiritiala erakharri, zihaturen txipiñiak arhinzkiago softeri ditzazün amurekatik.

Eta ezpazaitzü üdüri txipiñi direla, gogua emazü, zure pazentzia gabiak hala üdüri erazi eztitzazün.

Bena ala diren txipi, ala diren handi, iseia zite ororen pazientki igurstera.

2. Zunbatenaz hobeki hen igurtera adelatzen beitzira; hanbatenaz zühürkiago gobernatzen zira, eta haboro merexitzen düzü, arhinzkiago ere phenak egariren dütüzü, kostümatzen zirelarik hen korajuski hartzera.

Eztezazüla erran: eztitzakezüt hoiek holako gizon bateganik unhets, eta holako gaizarik nik eztit behar soferitü, ezi damü handi bat egin ditazü, eta jagoiti phensamentalala jin etzaiztan gaizak müthürrian eman ditzadazü: beste bateganik aldiz, gogo hunez, soferitzeko direla üdüri zaitzkeanak.

Arrazu gabe da phensamentü hori, zuñek ezpeitü goguarik emaiten pazentziaren berthütiari, ez nurganik phakia ükhenen dian: bai aldiz, bere beithan lehenago ikhusten, zuñ diren goitzarren hartiak, eta egiliak.

3. Soferitü nahi eztianak berauri üdüri zaion bezanbat, eta plazer dianaganik baizik, eztü egiazko pazentzia.

Bena egiazki pazient denak, eztü goguarik emaiten, ala bere gehienak, ala bere bardiank, ala bera beno aphaltuak, ala gizon saintü

batek, ala gaizkiala eman batek, soferi erazitzen deion.

Bena bardinzki Jinkuaren eskütik esker handireki hartzen dü, zerbait gaitz heltzen zaionian, zunbat nahi beita handi den, nurganik nahi beita, eta zunbat nahi beita ardüra, jin dakion, eta oro uste dü irabazi handi bat dela harentako.

Zeren eta deusere Jinkuaren eretzian, zunbat nahi beita txipi den, haren amurekatik ihurk soferitü dianian, mereximentü gabe ezin izaten beita.

4. Izan zite arren zoñhü gabe güdükalako prest, bitoria nahi badüzü eraman.

Debadio gabe ezin jardiesten düzü pazentziaren khorua.

Nahi ezapadüzü soferitü, etzira nahi izan khoruatü.

Khoruatü aldiz izatia desiratzen badüzü, gerla egizü bihotztoiki, soferi ezazü pazientki.

Ezta ihur triballü gabe phausiala heltzen, ezetare güdüka gabe bitoria ihurk jardiesten.

Natüralki ezin egiten dela üdüritzen zaitan gaiza, gertha bekit, Jauna, ehi, zure graziaren moianez.

Badakizü zük, aphür soferitzen ahal düdala, eta gaitz txipi baten jitiak, berhala korajia gal erazitzen deitadala.

Gertha bekit maithagarri, eta desiragarri, zure amurekatik, zer nahi beita thürbürarzünen soferitzia, ezi soferitzia, eta zuregatik eskerniatü izatia, ezinago balius düzü, ene arimarentako.

XX. KAPITÜLIA

*Gihauren flakütarzünaren
aithortziaz, eta mündü hunatko
miserietzaz.*

1. Aithortüren dit, nihauren kuntre, ene gaix-tokeria: aithortüren deizüt, Jauna, ene flakütarzüna.

Hanitxetan gaiza txipi bat dükezü, ni bihotz gabetzen, eta tristetzen naiana.

Hartzen dizüt boronthate, korajus izateko; bena tentazione txipi bat jin den bezañ sarri, hersidüra handi batetan edireiten nüzü.

Gaiza erras xar den bat dükezü, zunbait ordüz, tentazione gaitz bat erakharten deitadana.

Eta nuiz ere, senditzen eztüdan thenporan, uste beitüket, segür nizala aphür bat; ordian edireiten dizüt ene büria, aize txipi batez hüllañi goithürük zunbait aldiz.

2. Iklusazü arren, Jauna, ene aphaltarzüna, eta ene, bürü oroz, ezagützen düzün erorkor iza-tia.

Ükhezü pietate, eta idoki nazazü lohitik, barna sar enadin, eta han eroririk, ihuntik ajütü-rik gabe, egon enadin.

Horrek diztatzü ardüra lotseriak emaiten, eta nizü zure aitzinian ahalketzen; zeren nizan hañ erorkor, eta flakü, ene pasionen kuntre bühür-tzeko.

Zunbat ere ezpeitüt osoki emaiten baimen-tua; halarik ere phezü, eta greugarri zirazü, hen hersiki jarraikitia, eta hanitx nüzü debeiatzen hola güdükan bizitzez egün oroz.

Hantik ene flakütarzünaren ezagützi-ala jiten nüzü; zeren hanitxeh ehi-kiago sartzen be-тира bethiere imajina, eta figüra itxusiak, eziez jalki-ten.

3. O Israel ezinago photerus ziren Jinkua, arima fidelen huniala erakarlia, so bat egizü zure zerbüt-xariaren phenari, eta doloriari, eta ürgaitz ezazü eginen dü-tian gaiza orotan.

Azkar nazazü zelüko indarraz, beldürrez gizon zaharrak, erran nahi beita, aragi miserable ezpiritiaren pian orano untsa jarri eztenak, gañia har dizadan: zuñen kuntre güdükatü behar beitügü, bizitze miseriaz bethe huntan gireno.

Elas nulako den bizitze haur! nun thürbürarzün eta miseria baizik ezpeita: nun oro lazoz, eta etsaiez betherik beitira!

Ezi thürbürarzün, edo tentazione baten juaitiareki, beste bat jiten da, eta sordei dena orano, lehen etsaia untsa goithü gabe, bestiak saldoz jiten zaizkü egürükiten eztütügularik.

4. Eta nula ihurk maithatzen ahal dü, bizitze hañbeste kharatstarzün diana, hañbeste kalami-tateren, eta miseriaren pian daguena?

Bizitze ere nula deitzen ahal da, hañbeste heriotze, eta gaitz erakarten diana?

Eta haregatik maithatia da, eta hanitxek hartan plazer hartzia txerkhatzen die.

Ardüra mündiaren kuntre ihurk erraiten dü, inganazale, eta bano dela, bena haregatik nekez ihurk eizten dü, zeren aragiaren nahiküntek sobera gañia hartü beitie.

Gaiza batzek haren maithatzera, bestek haren mesperetxatzera erakharten die.

Mündiaren maite ükheitera erakharten die aragiaren, eta begien desirek, eta izate hunen süperbiak: eta haren mesperetxatzera, eta hartaz debeiarzün hartzera aldiz, phena eta miseria her jüstoki jarraikiten direnek.

5. Bena helas! plazer gaixtuak, ezpiritü mündiari enjogi dena garhaitzen dü, eta uste dü, elhorri phünten artian badirela plazerak: zeren ezpeitü, ez ikhusi, ez gozatü Jinkuaren eztitarzüna, eta berthütiaren barnetiko edertarzüna.

Bena zunñek ere mündia osoki mesperetxatzen beitie, eta iseiatzen beitira, Jinkuaren legiaren araur bizitzera, hek ezagützen die zelüko eztitarzün, egiazki mündiari ihesi egiler hitzeman izan dena, eta klarkiago ikhusten die, zuñen itxuski mündia herratzen den, eta zunbat gisaz imganatü izaten.

XXI. KAPITÜLIA

*Jinkuatan phausatü behar dügüla,
huntarzün eta dohañ ooren gañetik.*

1. Jinkuatan bethi phausatüren zira, ene arima, gaiza orotan, eta hen ooren gañetik, zeren hura beita saintien phausü eternala.

O Jesüs ezinago ezti, eta maithagarri zirena, unhets ezazü, zütan haboro phausa nadin, eziez kreatüra orotan, haboro eziez osagarrian, eta edertarzünian, haboro eziez uhure, eta gloria orotan, haboro eziez photere, eta kargü orotan, haboro eziez jakite, eta ezpiritü zorroztarzün orotan, haboro eziez aberatstarzün, eta adrezia orotan, haboro eziez alagrantzia, eta boztario orotan, haboro eziez fama hun, eta laidorio orotan, haboro eziez eztitarzün, eta konsolio orotan, haboro eziez esparantxa eta hitz-emaite orotan, haboro eziez mereximentü, eta desirkünthe orotan.

Zihaur nahiago zütüdan, eziez huntarzün, eta dohañ eman, edo ixur ahal ditzakezüdanak oro,

edo ezpiritiak har, edo sendi ahal litzakian ala-grantziak, eta boztariuak oro.

Hitz batez erraitera, enadin phausa, ez aingürietan, ez arkanjelietan, ez zelüko armada orotan; ez-etare gaiza ikhusten, edo ezin ikhusten ahal direnetan, ez zü, ene Jinkua, etziren gaizatan batetan ere.

2. Zeren zü, ene Jinko Jauna, gaiza ororen gañetik ezinago hun, ezinago photeretsü beitzira, zük zihaurtan badütüzü behar diren gaizak oro ezinago bethe ezinago ezti, ezinago konsolazale zira.

Zü baizik eztüzü, ezinago eder eta maithagarrri denik: zütan düzü, gaiza ororen gañetik, uhure eta gloria ezinago handia: zütan edireiten düütüzü, izaten ahal diren bezañ untsa, huntarzünak oro alkharreki, eta bethi izan düütüzü, eta izanen ere bai.

Eta hala zerere, zihaurtzaz kanpo, eman beitzinirot, edo zunbat nahi beita argi erakuts, edo hitz eman zinizadan, hurak oro elütükezü aski, zihaur ihusi, edo osoki gozatü gabe.

Ene bihotza ezin egiazki phausatzen denen gañen, ez osoki aseiziatzen, zihaurtan baizik, zure gaiza emanak, eta kreatürak oro beno gorago juaiten delarik.

3. O Jesü Krist ene espus ezinago maitia, maithazale ezinago xahia, kreatüra ororen bürzagia, nurk emanen deitzat egiazko libertatiaren hegalak, zureganat hegaltatzeko, eta zütan phausatzeko.

O nuiz eman izanen zait, ene Jinko Jauna, zuñen ezti ziren, osoki ikhustia, eta gozatzia.

Nuiz zureki jüntatüren niz, hañ osoki, nun zureganako amuriuaren handitarzünak nihaurganako sendimentia gal erazi dizadan; amureka-tik zü goza zitzadan, zentzier eman ezten beza-la, eta oroz ezagützen eztien gisa batez.

Orai aldiz hasperen ardüra egiten dit, eta ene desdixatü izatia, dolorereki kharreiatzen.

Zeren miseriazko lekhü huntan hanitx gaitz jiten beitira; zuñek ardüra errebelatzen, tristetzen, eta ülhüntzen benaie: ardüra ene ezpiritia arranküran, barreiarzünian, eta bereganat thiratzten dielarik, nahaspillan etxekiten beiteitade;

eta hori dela kausa, zureganat ezin hüllantzen nüzü, trebükü gabe, ez-etare gozaten, besarka maithagarri zelüko ekhoiliarrer thaik gabe emaiten dütüzünentzat.

Ene hasperenak, eta ene lürren gañeko hañbeste gisatako eskerniuk athoi hunki zitzala.

4. O Jesüs, gloria eternalaren argi ederra, arima heben desterratürrik daguenaren konso-lia, zü beithan diagozü ene ahua, botzik gabe, eta ene ixilik egoitia mintzaten zaizü.

Nuiz artio berantzen dü ene Jinkuak eneganat jitia.

Biaigü bere praubeñu huneganat, eta alage-ra beza, heda beza bere eskia, eta solta miserable haur bere hersidüra orotarik.

Ziauri, ziauri, zeren zü gabe ezpeita, ez egün, ez oren maithagarririk, zeren zü beitzira ene ala-grantzia, eta zü gabe hüts beita ene mahaña.

Miserable nüzü, eta presuntegi batetan beininz bezala bürdüñaz kargatürrik: zure presen-tziaren argiaz konsola nazazün artio, eta zure begitharte maithagarria erakusten deitazülarik, libertatia eman dizadazün artio.

5. Bestek zure plazan txerkha bitze plazer dütien gaizak oro: bena eni deus bestek eztitazü egiten, ez eginen plazerik, zük baizik, ene Jinkua, ene esperantxa, eta salbamentü eternala.

Enüzü ixilik egonen, ez-etare othoitzetik baratüren, zure grazia ützül dakidan, eta zü bihotzian mintza zakiztadan artio.

Haur nüzüla ni, haur nüzüla zure khantian, deithü naizülakoz zure nigarrek, eta zure arimaren desirak, zure ümilitatiak eta bihotzeko dolümenak ützül erazi, eta jin erazi nizie zureganat.

6. Eta erran dizüt: deithü zütüt, Jauna, eta zützaz gogatzia desiratü dizüt, naguelarik prest zure amurekatik, beste gaiza ooren hürün apartatzera.

Ezi zük lehenik iratzarri naizü, zihaturen txerkha erazitzeke.

Zirela arren benedikatü, Jauna, zeren huntar-zün haur, zure zerbütixariaren ükhen düzün, zure miserikordiaren, hanitxtarzünaren araur.

Zer dü haboro, zure aitzinian, erraitekorik zure zerbütixariak, baizik ere han untsa ümilia

dadin, bethi orhitzen delarik bere inikitatiaz eta ezdeustartzünaz.

Ezi eztüzü zü üdüririk, zelian, eta lürrian egin dütüzün gaiza miragarri orotan.

Ezinago hun dütüzü zure obrak, jüjamentiak egiati, eta gaizak oro zure probidenziaz dütüzü gobernatü.

Biz arren zuretako laidorio eta gloria, o aita-ren zühürtartzüna; laida, eta benedika zitzela ene ahuak, ene arimak, eta kreatüra orok alkharreki.

XXII. KAPITÜLIA

*Jinkuaren hanitx gisatako hunki
eginen orhitmentxaz.*

1. Idezazü, Jauna, ene bihotza zure legian, eta erakuts izadazü, zure manietan ebilten.

Emadazü zure boronthatiaren ezagützia, eta orhit erazitxadazü, aphaltentü, eta ezagütze handi bateki, nuiz beste ororeki, nahasteka nuiz nihauri berheziki egin deitztadazün huntarzünak, amurekatik gero behar diren eskerrak eman ditzazüdan.

Bena bazikit, eta aithortzen dit, eztirodala, mendren mendrenaren ere, behar den eskerrik eman.

Hunki egin deitztazünak oro beno txipiago nüzü, eta untsa so egiten düdanian zure handi-tarzünari, hartan berian ene ezpiritia galtzen düzü.

2. Ariman, eta khorpitzian dütügün gaizak oro, kanpotik, edo barnetik, natüralki, edo zelü-

tik gozaten dütügünak oro, zure hunki eginak dütüzü, eta hek erakusten dizie, zü hunki egile, saintü, eta hun zirela, eta zureganik dütügüla hunak oro.

Eta zunbat ere batak haboro, bestiak aphürrago ükhen beitü, hargatik oro zuriak dütüzü, eta zü gabe, ezin ihurk ükheiten ahal dizü mendren mendrena.

Haboruago ükhen diana, eztitezü bere mereximentiaz glorifika, ez besten gañetik jar, ez-etare gütiago dianari trüfarik egin: zeren bere büriari aphürrenik emaiten diana, eta eskerretan ümilenik, eta debotenik dena beita, hobena eta handiena.

Eta bere büria bestiak oro beno xarrago, eta mereximentü gabiago etxekiten diana beita, propiena, huntarzün handiagorik jardietseko.

3. Hargatik gütiago ükhen dianak eztü behar tsistetü, ez khexatü, ez haboro dianari inbidiarik ekharri; bena zuri lehenago so egin, eta zure huntarzüna ezinago haboro laidatü, zeren hañ largoki, hañ dohañ, eta hañ gogo hunez, ihuren

berhezkeriarik gabe, zure graziak emaiten dütüzün.

Oro zureganik dütüzü, eta hartakoz orotan laidatü izan behar düzü.

Badakizü zer konbeni den, bat bederari eman izan dakion: eta eztüzü guri eman, zerentako batak aphürrago, bestiak haboruago ükhen dian jüjatzia; bena bai zuri, zük izartürik beitütüzü bat bederaren mereximentiak.

4. Hartakoz, ene Jinko jauna, hunki-egin handi bat bezala etxekiten dizüt, ez ükheitia gaiza, kanpotik, eta gizonen sendimentiarene araur, laidorio eta gloria eman eraziten dienetarik; gisa batez nun, bat bederak bere büriaren, ezgütü unduan, ezpeitü solamentz behar phezütü, tristetü, eta deskorajatü; bena bai lehenago konsoilatü, eta alageratü hanitx, zeren zük, ene Jinkua, zure adixkidetako, eta mixkanditako haitatü beitütüzü praubiak, eta ümilak, eta mündü huntzaz mesperetxatü direnak.

Jakile dütüzü zure Apostoiak berak, zuñ mündü orotako *gehien ezarri beitütüzü.*

Bizi izan dütüzü mündian, plañürik gabe, ümil eta simple zirelarik, maleziarik, eta finaziarik batere gabe, gisa batez nun, *zure izenetan goitzarren softeritziaz alageratzen beitziren*, besarkatzen zütielarik gozo handireki mündiak hügien zütian gaizak.

5.Deusek ere arren eztizü hañ alageratü behar zü maite zütiana, eta zure hunki eginen ezagütziala, nula zure boronthatiaren hartan konplitü izatiak, zure eternitateko plazer hunaren araur.

Hañbestetara drano horrez kontent, eta konsolatü izan behar dü, nun, hañ gogo hunez txipienik izan nahi beita, nula beste batek handienik izatia desira beiliro.

Hañ kontent eta bakezko, lekhürik aphalenian, nula gorenian, eta hañbeste plazer hartü behar dü, aphür, eta mesperetxatü izatiaz, eta famarik ez ükheitiaz; nula bestek beitie mündian uhuratü, eta handitako igaraitiaz.

Ezi zure boronthatiak, eta zure uhuriaren amuriuak besten ororen gañetik izan behar dizie, eta haboro konsolazione, eta plazer eman behar

diezü, eziez huntarzün jadanik ükhen, edo gero
ükhen behar dütianek orok.

XXIII. KAPITÜLIA

*Bake handi bat erakharten dien laur
gaizak.*

1. Ene semia, orai erakutsiren deizüt, bakia-
ren, eta egiazko libertatiaren, bidia.

Egizü, Jauna, erran düzün bezala, zeren
horren entzütiak, plazer eginen beiteit.

Iseia zite, ene semia, besteren lehenago,
eziez zihauren boronthatiaren egitera.

Haita ezazü bethi aphürrago, eziez haborua-
go ükheitia.

Txerkha ezazü bethi, lekhürik aphenena, eta
besten pian izatia.

Desira, eta othoi egizü bethi, Jinkuaren
boronthatia zütan osoki egin izan dadin.

Hola datian gizona sarthüren da bakian, eta
phausian.

2. Jauna, zure elhesta llabür hunek badizü
bere beithan untsatarzün hanitx.

Erraiteko txipi düzü, enthelegüz aldiz handi, eta ekhoitzpenez aberats.

Ezi leialki begira ahal balin baneza, nahaspi-llak elikezü behar nitan, hañ ehiki sorthü.

Ezi ene büria bake gabe, edo phezütürük senditzen düdan ordü oroz, edireiten dizüt, zük era-kutsi gaizetarik hürrüntü nizala.

Bena zük photeriak oro beitütüzü, eta arima-ren, profeitia bethi maite beitüzü, emenda ezazü nitan zure grazia; amurekatik zure erranak kon-ppli, eta ene salbamentia egin ahal dezadan.

3. Etzitala, ene Jinko Jauna, niganik hürrünt, ene Jinkua, sokhorri emaiteko so bat egidazü, ene kuntre xütitü direnen gañen hanitx phensa-mentü suerte, eta ene arima dolorez bethatzen dien lotseri handiak.

Nula hetarik igarenen niz, minik hartü gabe? nula akazatüren düüt?

Ni, dio Jaunak, zure aitzinetik juanen nüzü: nik aphaltüren zitit lürreko banitusak: nik ideki-ren zitit presuntegiko borthak, eta segretien gaiza estaliak erakutsiren deitzüt.

Egizü, Jauna, erraiten düzün bezala; eta zure aitzinetik, ene phensamentü gaixtuak oro ihesi juan ditiala.

Ene esparantxa eta konsolazione bakhoitza düzü, zuri ene thürbürarzün orotan hersatzia, zütan konfidantxa hartzia, zure bihotzaren erditik othotzia, eta zure konsolazioren pazentziareki egürükitia.

4. Argi nazazü ene Jesüs huna, barnetiko argiaren leñhüriaz, eta idoki itzazü ene bihotzaren egoñütik ülhüntarzünak oro.

Bara itzadazü ene barreiarzünak, nahi bada hanitx diren, eta ezdeusetara erakhar itzazü eni bortxa egin nahi deitaden tentazoniak.

Batalla zite azkarki enegatik, eta bortxa itzazü abere gaixtuak, erran nahi dit, desirkünthe plazeretara enjogi direnak, amurekatik zure photeriak bakia, eman diazadan, eta zure laidorua largoki erantzün dezadan zure khorte saintian, erran nahi beita zontzentzia xahü batetan.

Emazü zure mania aizer, eta erauntsier, errazü itxasuari, phausa adi, eta aize beltzari, ezte-

zala aizerik egin, eta izanen düzü phausü handi bat.

5. Igorrazü zure egiaren argia, amurekatik lürra argi dezan, zeren ezpeiniz lür hüts, deusen hun ezten bat baizik, zük argi nezazün artio.

Jaits erazi ezazü gañetik zure grazia, zelüko ihitzaz busta ezazü ene bihotza, ixur itzazü debozioniaren hurak, lür gañearen trenpatzeko, eta hari frütü ezin hoberik erakharteko.

Goiti ezadazü ezpiritü, bekhatien pheziak, apha erazi deitadan haur, eta ene desira oro zelüko gaizetan egon erazi zadazü; amurekatik zelüko izatiaren eztitarzüna gozatüz geroz, ahalke nadin lürreko gaizetzaz phensamentürik ükheitiaz.

Altxa nazazü, eta solta kreatüra ororen ezin irañen dian konsolazionetik: zeren ezpeita gaiza kreatü izan denik batere, ene arima osoki phausa erazi, eta konsola diruanik.

Jünta nazazü zuri, amuriuaren ezin soltatzen den oropiluaz: zü zihaur aski zirenen gañen, maite zütianaren, eta zü gabe, beste gaizek orok deuserebalio eztienian.

XXIV. KAPITÜLIA

*Eztela behar, sobera jakin-nahireki,
besteren bizitzia txerkhatü.*

1. Etzitiala, ene semia, izan jakin behar heta-rik, eztezazüla ükhen arranküra behar gaberik.

Zer duazü, halako, edo hulako gaizan? zük eztüzü eni jarraikitia baizik.

Ezi zer duazü, ala hura hulako, edo halako den, ala haur hola, edo hala goberna, eta mintza nadin?

Bestetzaz ihardesteko beharrik eztüzü, bena zihaturen khontiak behartüren zaitzü eman; zeren arren hen akhodiñetan sartzen zira?

Haur nüzüla ni, ooren ezagütziala, eta ekhia-ren pian egiten diren gaizen ooren ikhustia: bazikit, zer gisaz bat bedera den, eta zer dian bihotzian, zer nahi dian, eta zertara duen haren intenzionia.

Orok arren eni eitzi behar dizie: zü aldiz begi-ra zite bake hun batetan, eta eitzazü, büria

akhodiñaz betherik diana, hetan nahi bezanbat egoitera.

Eginen, edo erranen dütian gaizak oro, jitnen zitzozü beraurtan gaña; zeren ni ezin inganatzan beinai.

2. Izen handi baten itzalaz, jente hanitxen adixkideguaz, eta gizonen maitetarzün berheziaz eztüzüla axolik.

Ezi gaiza horiek bihotzeko barreiarzün, eta ülhütarzün handiak erakharten zitizie.

Plazer harc nirozü zuri ene hitzen erraitez, eta gaiza estalien erakustez, untsa guaita bazeneza ene jitia, eta zure bihotzeko bortha ideki bazinizat.

Izan zite gogua emaile, eta orazione erraile; eta gaiza orotan, zure büria ümilia ezazü.

XXV. KAPITÜLIA

*Zertan daguen bihotzeko bake osua,
eta egiazko arimaren profeitia.*

1. Ene semia, nik erran dit, *bakia eizten deiziet, ene bakia emaiten deiziet: bena ez mündiak emaiten dian bezala.*

Orok bakia desiratzen die; bena orok egiazko bakiari so daudian gaizetzaz, ez tie arranküra hartzen.

Ene bakia dago, bihotzetik ezti, eta ünble direneki, zure bakia aldiz izanen düzü pazentzia handi batetan.

Eni behatzen, eta ene botzari jarraikiten bazi-ra, bake handi batez gozatüren ahal zira.

Zer eginen düt arren?

Gaiza orotan gogua emazü. Zer egiten, edo erraiten düzün, eta zure intenzionia oro eni nihauri plazer egitera erakharzü, eta nitzaz kanpo, eztezazüla deus desira, ez txerkha.

Eztezazüla orano besteren erranez, edo eginenez jüjamentü temeraririk egin, eta zuri fidatü

ezteitzien egitekuetan etzitiala sar; eta hala etzira hanitx, ez ardüra nahasiren.

2. Bena thürbürarzünik seküla ez senditzia, eta bihotzeko, edo khorpitzeko errustarzünik batere ez ükheitia, ezta mündü huntan ihurk ükheiten ahal dian gaiza bat, bena bai phausü eternalian.

Eztüzüla arren uste, egiazko bakia ediren düzüla, phenarik batere senditzen eztüzülakoz; ez oro untsa duatzala ihur zure kuntre eztelakoz; ez-etare ezin hobeki zirela, gaizak oro zure gogara heltzen direlakoz.

Eztezazüla orano sinhesterik har, zerbait handirik badüzüla, edo berheziki maithatia zirela, debozione, eta eztitarzün handi batetan zirelakoz; zeren eta gaiza horiek ezpeitie ezagüt erazitzen egiazko berthütiaren maithazalia, eta hetan ezpeitago gizonaren profeitia, eta huntarzüna.

3. Zertan arren Jauna.

Zure büriaren bihotz osoz Jinkuaren boront-hatiari eskentzian, eta zure diren gaizen, badira

txipi, badira handi badira oraiko, badira eternirateko, ez txerkatzian.

Gisa batez nun khanbiamentürik batere gabe, hunak, eta gaitzak oro phezü beraurtan phezatzen dütüzularik, eni eskerren emaiten bethiere egon zitian.

Hañbeste indar, eta pazentzia esparantxan badüzü, nun barnetiko konsolazioniaren gal unduan, zure bihotza handiagorik softeritzera adela dezazün, eta zihauren büria hañ xahü etxekiten ezpadüzü, nun uste zünian hañ gaiza handirik etzünükiala behar softeritü.

Bena ni, nik egiten dütüdan gaiza orotan, jüsto, eta saintü bezala laidatzen banaizü: ordian ebiliren zira, egiazko bakiaren bide xüxenian, eta esparantxa segür bat badükezü ikhusiren düzüla ene begithartia alagrantzian.

Heltzen ahal balin bazira, zure büriaren osoki mesperetxaziala drano; jakin ezazü ezi ordian, zure hebeko izatiak ükheiten ahal dian bezañ bake oso batez, gozatüren zirela.

XXVI. KAPITÜLIA

*Ezpiritü libertatiaz gozatzen denaren
goratarzünaz, zuñ ihurk merexitzen
beitü orazioniaz lehen, eziez
irakurtziaz.*

1. Jauna, gizon osoki pherestü den baten lana düzü, ezpitiaren bethi zelüko gaizetan estekaturik etxekitia, eta hanitx arranküraren artian, kasi arranküra gabe izatia: ez herabeziaren gisala; bena ezpiritü libertatiaz gozatzen denaren berhezkeria batez; kreatürari bateri ere, behar ezten gogo batez, estekatü izan gabe.

2. Süplikatzen zütüt, ene Jinko ezinago saintü zirena, mündü huntako arranküretarik begira nazazün, hetan sobera sar enadin; khorpitzaren behar hanitxetarik, plazerak abantalla har eztizadan; eta arimaren threbükü orotarik, tristeziek korajia gal erazi eztizaden.

Etziozüt begira nezazün, gaiza mündüko banitatziaz, pasione handireki, txerkhatzen dütia-

netarik; benma solta dezazün zure zerbütxiaren arima, hiltziaren maradizioniaz, orori komün diren miserietarik, zuñek sorthatzen, eta gibel-tzen beitie ezpiritiaren, nahi lükian ordü oroz, libertatian sar erazitzetik.

3. O ene Jinkua, eztitarzün ezin erraiten zirena, kharats ediren erazi zadazü aragiaren konso-lazionia oro, zuñek hürrüntzen beinai etarnitate-kuen amuriotik, eta bereganat gaizki thirutzen, presenteko hun, plazer egiten dian, zunbait dela kausa.

Enazan, o ene Jinkua, aragiak, ez odolak gar-hait; enazan mündiak, ez haren gloria llabürrak ingana; enazan debriak, ez haren finaziak eror erazi.

Emadazü bühürtzeko indarra, soferitzeko pazentzia, iraiteko fermotarzüna.

Emadazü, mündü huntako konsolazionen ororen plazan, zure ezpiritü ezinago ezti denaren berekadüra: eta aragiaren amuriuaren lekhian, jin erazi zadazü zure izen saintiaren amuriua.

4. Ezpiritü debozioniaren suiaz betherik den beatentako, phezü handi bat dütüzü, jatia, edatia, beztitzia, eta gañerako khorpitzaren süstengatzeko behar diren gaizak.

Emadazü grazia, holako beharrünetzaz ahülki eta doiak zerbützatzekua, eta desirkünte handiegietzaz ez eskerniatü izatekua.

Eztüzü ororen eiztia lege zeren natürak behar beitü süstengatü izan; bena zure lege saintiak eztizü unhesten behar beno haboro, eta haboruenik plazer egiten dienen txerkhatzia; ezi bestela aragia ezpiritiaren kunre altxa litezü.

Akhodiña hoien artian, zure eskü saintiak, otho, gida, eta argi nazala; deus soberarik nitan izan eztadin.

XXVII. KAPITÜLIA

*Gihauren amurio propiak ezinago
gibeltzen gitiala, hntarzün ororen
gañetik, denagatik.*

1. Ene semia, behar dütüzü oro eman, deuse-
re zihaurtarik begiratü gabe; ororen ükheiteko.

Jakin ezazü zihauren amurio propiak, haboro
damü egiten deizüla, eziez beste mündüko gai-
zak batek ere.

Amurio, eta enjogidüra düzünaren araur,
haboro, edo aphürrago zuñ nahi beita gaizari
estekatzen zira.

Zure amuriua xahü balin bada, simple eta
untsa xedatürik; deusen ere eztüzü estekamen-
türik ükhenen.

Eztezazüla desira, sori esten gaizaren ükhei-
tia; eztüzüla nahi ükhen, zihaur zonhütsützen,
edo barnetikp libertatia gal erazitzen ahal deizü-
na.

Gaiza estranje bat düzü nulaz bihotz osoz etziren eni egoiten, desiratzen, edo ükheiten ahal dütüzün gaiza ororeki.

2. Zeren tristezia bano batez zure osagarria mendretzen düzü, eta arranküra behar gabez eñhezen zira?

Egon zite fermoki ene plazer hunari, eta eztüzü damürik batere softeritüren.

Haur edo hura tüerkhatzen badüzü, hor edo heben izan nahi bazira, zure untsa izatiaren, edo plazer hunaren hobeki jardiesteko: etzira seküla phausian izanen, ez arranküra gabe; zeren gaiza orotan edireiten beita zerbait ments, eta lekhü orotan nurbait ihurk kuntre beitü.

3. Eztizü arren zer nahi beita kanpotiko gaiza-ren akisitziak, edo doblatziak phausia emaiten; bena bai lehenago, haren mesperetxatziak, eta bihotzetik zaiñetara drano idokitziak.

Eta horrek enthelegatü behar dü, ez solamentz dihariaren, edo aberatstarzünen akisitziak; bena orano uhuriaren txerkhatziaz, eta lai-

torio banuaren desiratziaz, zuñ mündiareki igaraiten beitira.

Lekhiak eztizü ihur azkartzen, ments denian ezpitiaren deboziona; eta bake kanpotik txerkhatü harek, eztizü hanitx irañen, bihotzian fundamena phausatürik ezpadü; erran nahi beitanitan bermatzen ezpazira; egongüz khanbiatzen ahal zira, bena ez hobetzen.

Ezi heltüren, eta hartüren düzün lehen okasionian, edirenen düzü, ihesi egin zeneion gaiza zerbait habororeki.

4. Borthitz nazazü, ene Jinkua, ezpiritü saintiaren graziaz.

Emadazü barnetiko debozioniaren untsa azkartzeko berthütia, eta ene bihotzaren zer nahi beita gaiza xar, edo preziusen desirkünthe hanitx suertetakuetarik hüstekoa, eta arranküra bano, eta hersidüra orotarik libratzekua: her orori so egitia, gaiza igaraiten diren eli bati bezala, orhitzen nizalarik, nihaurk ere hekilan igaren behar düdala.

Zeren deus iraipusik ezpeita ekhiaren pian, nun oro beitira banitate, eta ezpitiaren aritar-

zün ala beita zühür gisa hortan gaizak ikhusten dütiana.

5. Emadazü, Jauna, zelüko zühürtzia, ikhas dezadan zure, gaiza ooren gañetik, txerkhatzen, eta edireiten, zure, gaiza ooren gañetik, gozaten, eta maithatzen, eta gañelatikuen diren bezala enthelegatzen, zure zühürtarzünaren xediaren araur.

Emadazü grazia lusenkazaliari ezagützereki ihesi egitekua, eta ene kuntre duenaren pazentziareki unhestekua.

Zeren haur beita zühürtze handia, hitzen aize orogatik ez zotütatzia, eta lausenkari gaixtuer beharriaren ez pherestatzia: ezi gisa hortan akabiren dü ihurk segürk bide hasia.

XXVIII. KAPITÜLIA

Mardalleren mihien kuntre.

1. Ene semia, etzitala khexa, nurbaitek zützaz sendimentü gaixtorik balin badü; eta zük gogo hunez entzüten eztütüzün gaizarik erraiten balin badü.

Zük, zihaurtzaz sendimentü gaixtuagorik, ükhen behar düzü, eta sinhetsi, ihur ere eztela zü beno flakiagorik.

Zihauren barnian paseiatzen bazira, eztüzü kasü handirik eginen, hegaltaz igaraiten diren elhetzaz.

Jakite handi bat düzü, batzarre gaixtuetan ixilik egoitia, eta bihotzez eneganat ützültzia, eta gizonen jüdikamentiagatik, bere guntzetarik ez jalkitia.

2. Eztaguela zure bakia gizonen mihietan, ezi ala untsa, ala gaizki mintza ditian, zü zirena zirateke nun da egiazko bakia, eta egiazko gloria? ezteia nitan?

Nurk ere ezpeitü desiratzen gizoner plazer egitia, eta her desplazer egitiaren ezpeitü lotsarik, hura bake handi batez gozatüren da.

Bihotzaren erreustarzünak, eta zentzien barreiarzünak oro jiten dira amurio gaixtorik, eta lotsa banotik.

XXIX. KAPITÜLIA

*Nula, thürbürarzünaren jitiareki,
Jinkuak othoitü, eta benedikatü izan
behar dian.*

1. Biz, Jauna, zure izena thenpora orotan benedikatü; zeren nahi ükhen düzün, tentazione, eta thürbürarzün haur nitara jin ledin.

Etzirozüt hari ihesirik egin; bena bortxatü nüzü, zuri hersatzera, amurekatik ajüta nezazün, eta hunetara ützül erazi dizadazün.

Jauna, orai thürbürarzünian nüzü, eta ene bihotza eztiagozü untsa; zeren hanitx eskerniatzen beinai presenteko pasioniak.

Eta orai, o ene aita maitia, zer erranen düt? hersidürek ustegabian hartü nizie, salba nazazü oraidanik.

Bena thenore huntara jin izan nüzü, amurekatik zü glorifikatü izan zintian, eta ni zützaz libratia izan nendin, untsa ümiliatü izan unduan.

Jauna, ükhezü ene libratzeko huntarzüna: ezi zer egin ahal dirot, miserable nizana: eta nurako niz, zü gabe?

Emadazü, Jauna, aldi huntan ere pazentzia, ürgaitz nazazü, ene Jinkua, eta eztit lotsarik ükhenen, zunbat nahi beita kargatü izan nadin.

2. Eta orai nik hoi en artian zer erranen dü?

Jauna, zure boronthatia konpli bedi: ezi nik thürbürarzünak eta kargak merexitü zikit.

Behar zikit segürki soferitü, Jinkuak baletsa, pazentziareki lizan, irazarri haur igaren, eta thenpora hobe bat jin artio.

Bena zure eskü photere oroz bethiak ahal zirozü, tentazione haur ere eneganik idoki, eta haren builta hert, osoki eror enadin; hala nula ardüra egin beiteitazü, ene Jinko maitia, miseri-kordiaz bethia.

Eta khanbiamentü hori, enetako gaitz den bezañ ehei dükezü, zure beso photeretsiaren.

XXX. KAPITÜLIA

*Jinkuaren sokhorriaren galthatziaz,
eta graziaren arzara ükheiteko
konfidantzaz.*

1. Ene semia, *ni nüzü Jauna, thürbürarzünaren egünian, indar emailia.*

Untsa etzziratekianian, ziauri eneganat.

Deusek ere eztizü zelüko konsolazione hala threbükatzen, nula berantegi orazonialat üzül-tziak.

Ezi ene othotzen, untsa gogua emaiten düzü-larik, hasi beno lehen, txerkhatzen düzü hanitx konsolazione, eta kanpotiko gaizetan, zure plazerak hartzen dütüzü.

Eta hori dela kausa gaizak oro profeitü aphü-rrerako dütüzü, gogua eman dezazün artio, ni nizala, nitan esparantxa hatzen dienen, soltazalia, eta eztela nitarik kanpo, ez sokhorri azkarrik, ez konseillü hunik, ez erremedio iraipusik.

Bena orai, hats har unduan, irazarriaren gerotik, ene miserikordien argian sendo zite,

zeren hüllan beiniz (dio Jaunak) amurekatik gairak oro, ez solamentz osoki, bena orano bürütilla gaintika arraberri ditzadan.

2. *Badeia deus enetako nekerik?* edo, ala ninzate üdüri errailiari, eta ez egiliari?

Nun da zure fedia? zaude fermoki, eta khabiamentürik gabe.

Izan zite pazient, eta korajus, eta bere thenorian jinen zaizü konsolazioneia.

Egürüki nezazü egürüki, jinen nüzü eta sendotüren zütüt.

Tentazioneia düzü, zü eskerniatzen zütiana, eta lotseri bano bat, zü izi erazitzen zütiana.

Zer deus besterik irabazten düzü, gero jin behar dien gaizetzaz arranküra ükheitetik, baizik ere tristezia tristezian gañen: *bere maleziaz aski dü egünak*.

Gaiza bano, eta gozo gabia da, gero jinen diren gaizetzaz nahasküra, edo alagrantzia hartzia; zeren ezpeitira heltü bada seküla jinen.

3. Gizonari diagozü holako üdüripenetzaz inganatü izatia, eta ezpiritü txipi baten señaia

da, etsaiaren gaizkialako atakarzüner, bere büriaren hañ arhinzki juaitera eiztia.

Ezi harek eztizü axolik, ala egiazko, ala gezü-
rrezko üdüripenetzaz ingana gitzan, ala presen-
teko gaizen amuriuaz, ala gero jinen direnen
lotseriaz lürrialat egoitx gitzan.

Eztadila arren zure bihotza nahas, ez-etare
lotsa.

Ükhezü nitan sinheste, eta ene miserikordian
konfidantxa.

Nuiz ere uste beitüzü eneganik hürrüntü zire-
la, ardüran zure hüllanenik nükezü.

Nuiz ere uste beitüzü, oro kasi galdü dela;
ordian dükezü irabazirik handienaren egiteko
phüntia.

Eztükezü oro galdü, gaiza zük ez nahi bezala
jina gatik.

Eztüzü behar, orai dütüzün sendimentien
araur, zure jüjamentia ekharri, ez zunbait phenari,
nuntik nahi beita jin dadin, zure ezpiritia este-
katü, eta hura hartü; hantik jalkiteko esperantxa
osoki galdü beiliz bezala.

4. Eztüzüla uste osoki eitzia zirela, thenpora boxi baten, zenbait thürbürarzün igorri, edo desiratzen zünian gaiza idoki deizüdalakoz; ezi hola ihur igaraiten düzü zelietako erresomalat.

Eta düda gabe haboro konbeni zaizü, eta ene beste zerbützarier, phenez borogatiak izan ziteien, eziez oro zien nahiala bazüntie.

Nik bazikitzüt phensamentü estaliak, ezagützen dit, hanitx konbeni dela zure salbamentiarren, zunbait ordüz gozo gabe eitzia izan zitian, beldürrez gaizen untsa juaitiak gora erazi zitzan, eta plazerak uste ükhen erazi dizazün, etzirena bazilera.

Behin eman düdana idkiten ahal dit, eta arzara emaiten plazer dükedanian.

5. Eman dükedanian enia dükezü, idoki dükedanian eztikezüt zuria hartü; zeren gaiza hun emanak, eta zelüko dohaiñak oro, eniak beitira.

Eizten badeizüt jitera zunbait phena, edo zer nahi beia gaiza kuntre denik, etzitiala khexa, eta eztezazüla bihotza gal: nik berhala solajatzan ahal zütüt, eta zure phena alagrantziatara khabia erazitzen.

Halarik ere hola egiten deizüdanian, jüsto nüzü, eta peretxü handitako.

6. Untsa zühür bazira, eta egian so egiten badüzü, gaitzez etzütie behar jagoiti triste erazi, hañ koraje aphürreki; bena lehenago alagera erazi, eta eskerren emaitera erakharri.

Hobeki erraitera, uste behar zünüke, zure alagrantzia bakhoitza dela, zeren dolorez hunkitzen zütüdanian ezteizüdan pharkatzen.

Erran nizün ene dizipülü maiter: *ene aita maite ükhen naian bezala: nik ere ziek maite zütiet*: hargatik enitizün hurak igorri mündüko alagrantzietara; bena bai debadio handietara, ez uhuretara, bena mesperetxietara, ez auherkeriala, bena triballiala, ez phausiala, bena pazentziareki batian hanitx huniren egitera orhit zite, ene semia hitz hoietzaz.

XXXI. KAPITÜLIA

Kreatüren ororen eiztiaz, kreazalia ediren ahal dadin amurekatik.

1. Jauna, grazia handiago baten beharra untsa badit orano, heltü behar badüt, ihurk ez kreatürak batek ere, ezin destorbatzen ahal naian phüntiala.

Ezi zerbaitek etxekiten naiano, enitezü libertatereki zureganat hegalta.

Erraiten zianak; *nurk emanen deitzat hegaltak, etxeurzuari bezala, zureganat hegaltatzeko, eta zütan phausatzeko*, desiratzen zian, libertatereki hegaltatzia.

Begi simple bat beno phausiagorik deus badeia? eta lürrian deus desiratzen ztiana beno libertate hobe batez gozatzen denik?

Behar dizü arren ihurk, kreatürak oro beno gorago juan, bere büria osoki eitzia, eta, ezpiritia zelialat goititürik etxekiten dialarik, ikhusi, zük ororen kreazaliak kreatüreki deusere üdüririk eztüzüla.

Eta ezpada ihur kreatūra orotarik soltatzén, etzaite libertatereki zelüko gaizer esteka.

Hartakoz ezpiritüz zelialat so egile aphür edireiten da, zeren aphürrek beitaكية, bere бүrien osoki berhezten, kreatūra, eta gaiza galdü izan behar dien hoietarik.

2. Hortara eztaite ihur hel, grazia handi, arima goiti, eta bera beno gorago juan erazi diroian baten moianz baizik.

Eta gizona ezpiritüz goititzen, kreatūra orotarik soltatzén, eta Jinkuareki osoki jüntatzen ezpallin bada, harek dütianak, eta dakitzanak oro balio aphürretako dira.

Huntarzün eternal müga gabiaz kanpo, zerbait handirik etxekiten diana, lüzaz bere txipitarzünian lürrareki josirik egonen da.

Jinkua eztiren gaizak oro, ezdeus dira, eta ezdeusentako khuntatü behar die.

Desbardintarzün handi bat da, Jinkuak argitzen dian gizon debot baten zühürtziaren, eta eliza-gizon jakitus, eta estudiantala ekharri den baten, jakitiaren artian.

Gañetik Jinkuaren ixuritik jiten den jakite hura, hanitxez baliusago da, eziez gizonaren ezpiritiaz phenareki jardiesten diana.

3. Hanitx badira, zelüko gaizen ezpiritüz ikhustia desiratzen beilükie; bena hartara heltze-ko, behar diren gaizen egitera, eztira iseiätzen.

Haboruenik hantik hürrüntzen gütian gaiza bat da, gure goguaren kanpotiko gaizetan, eta gure zentzietara erorten direnetan, ezartia, gihauren büriaren phena erazizte osuaz axolik ükhen gabe.

Eztakit zer erran nahi den, zuñ ezpiritüz bulkatzen gütian, zer den gure deseña: üdüri da jente deboten igaraiten girela, eta haregatik hañbeste phena, eta arranküra hartzen dügü, gaiza xar igaraiten baizik eztiren eli batez; gihauren barnetikuetzaz aldiz, nekez eta bek-hanki, gihaur beithan osoki sarthürik, orhitzen gira.

4. Elas! gihaur beithan aphür bat sar unduan, baguatza kanporat, gure obrak balantza degüt batetan phezatü gabe.

Eztizügü goguarik emaiten, nun daudian aphaltürük gure desirak, ez-etare nigarrik egiten, gaizen ooren theyütürük ikhustez.

Egiazki aragi orok theyütü ükhen zian bere bidia, hartakoz jarraikiten zen dilübio handiari.

Gure barnetiko enjogidüra arren hanitx theyütü izan denen gañen, theyü dirateke bada eta ez hanitx jiten diren egitatiak, zuñek barnetiko indarraren gabezia erakhusten beitie.

Bihotz xahütik jiten da bizitze hunaren frütia.

5. Nurk zer, eta zunbat egin dian, ihurk galthatzen dü: bena zuñen berthüte handiak eragin deion jakiteko, eztü hañbeste arranküra.

Xehe ihurk galthatzen dü, izan denez korajus, aberats, eder, jakintsü, edo izkiribazale, khantazale, tribaillari hun: bena aphürrek dioie, zuñen ezpiritüz praube den, zuñen pazient, eta ezti eta zuñen debot eta barnetiko den.

Natürak gizonaren kanpotiko gaizer so egiten dü, grazia barnetikuatarat ützültzen da.

Hura ardüra inganatzten da; hunek Jinkuatan dü bere esparantxa, inganatü ez izateko.

XXXII. KAPITÜLIA

*Bere büriaren eiztiaz, eta desirkünthe
gaixto orotarik bilaiztiaz.*

1. Eztirokezü, ene semia, libertate erras hunden bat goza, zure büria osoki eizten ezpadüzü.

Bürdüñak huñetan beilütie bezala dütüzü, bere büriez phakü, eta hen maithazale direnak, nahikünthez, eta berri ikhasi beharrez betherik daudianak, horrat hunat juailiak, zuñek beretako garratz eztiren gaizak txerkhatzen beitütia, eta ez Jesü Kristenak, heltüren ezten gaiza ardüra bere beithan ajargatzen, eta konpostatzen dielarik.

Ezi Jinkuaganik jalkiten eztiren gaizak oro galdiak izanen dira.

Orhit zite, hitz llabür ezinago konplitü den hunez; eitz itzazü oro, eta edirenen dütüzü oro, dereza ezazü inbeia, eta ükhenen düzü phausia.

Egia hori ardüra ezpiritian erabil ezazü, eta konplitü dükezünian, enthelegatüren dütüzü gaizak oro.

2. Jauna, eztüzü hori egün baten lana, ez haur txipien txosteta bat; bena hitz llabür hortan dia-gozü, fraiderik hobenen izaterik saintiena.

Ene semia, saintien bidia zuñ den ezagüt unduan, eztüzü behar hantik gibeltü, ez-etare deskorajatü; bena lehenago behar düzü therrita-tü izan, gaizarik hobenen egitera, edo gütienetik desiratü zure hasperenetzaz, heganat hüllantzia.

Nahi nikezü hala lizan zureki, eta heltü zinen zure büriaren ez maithazale izateko phüntiala, eta ene, eta nik aitatako eman deizüdanaren boronthatiari xahüki egon zintian: ordian ezina-go ene gogara zinanteke, eta zure bizitzia bakian, eta boztariuan igaren litezü.

Badüzü orano hanitx gaiza eizteko, zuñ ezpa-deiztatzü osoki emaiten, ezpeitüzü galthatzen düzüna jardietsiren.

Konseillatzen zütüt, eros dizadazün ürrhe süz bethia, aberats zitian amurekatik, eran nahi beita zelüko zühützia, lürreko gaizak oro huñ petan ezarten dütiana.

Eitzazü gibelialat lürreko zühürtzia; gizonen eta zihauren düzün balakü ooreki.

3. Erran deizüt, erosi behar züntiala gaizarik xarrenak; preziatü eta balius, gizonen jüjementian, direnen plazan.

Ezi üdüri düzü, egiazko zelüko zühürtzia erras xar, txipi, eta kasi ahatzerik dela: harek eztizü goratarzüna, ez lürrian handi izatia txerkhatzen: ala beitira hanitx, haren ahoz laidazaliak, bena hareganik hürrün dago hen bizitzia, hura da orotra ere, harri preziatü hanitxi gorderik daguena.

XXXIII. KAPITÜLIA

*Gure bihotzaren khanbiakor izatiaz,
eta Jinkuaren azken intenzione üken
behar dügünaz.*

1. Ene semia, eztezazüla sinhets, orai züre beithan düzün desirküntia, sarri beste batetara khanbiatüren zaizü.

Bizi zireno, nahi gaberik ere, erortoki izanen zira khanbiamentiari; gisa batez nun edirenen beitzütie, aldi batian alagera, bestian triste, orai bakian, gero nahaspillan; nuiz debot, nuiz debotionerik gabe, zunbait ordüz estudiuari emana, bestordian herabezti, orai phezü aurkhixe arhin.

Bena zühürra, eta ezpiritüz untsa ikhasia gaiza khanbiakor horien ororen gañetik xüti dago, goguarik eman gabe, zer bere beithan senditzen dian, eta zuñ althetarik khanbiamentiaren aizia jiten den; bena haren ezpitiaren intenzione osua dago nuntik zerbait profeitü idokiren dian, harek desiratzen dian azken phüntiala heltzeko.

Ezi gisa hortan egonen ahal da bethi ohikua, deusetan okhertü gabe, bere intenzioniaren sua eneganat thaik gabe, hañbeste suertetako gaiza heltzen direnen artian, hedatzen dialarik.

2. Gañeran, zunbatenaz, xahiago izanen beita intenzioniaren begia, hanbatenaz fermokiago irazarri hoien artian ihur ebiliren da.

Bena hanitx gaizatan, intenzione xahiaren begia ülhüntzen da: ezi bertan ihurk so egiten dü, batzen zaion zunbait gaiza, eder, eta maithagarri zaioni.

Ezi arraroki edireiten da bere txerkü propiaren beltzüratik osoki xahü denik.

Hola nuizpait Judioak jin izan ziren Marta, eta Mariagana, ez solamentz Jesüsen amurekatik, bena orano Lazaroren ikhustiagatik.

Xahatü behar dizü arren intenzioniaren begiak, amurekatik simple, eta xüxen izan dadin, eta beste moianak oro beno haratago eneganat hedatü.

XXXIV. KAPITÜLIA

*Maite dianaren gozoko dela Jinkua
gaiza orotan, eta ororen gañetik.*

1. Haur dela, ene Jinkua, eta ene orua, zer nahi düt haboro, eta zer dirot dohatsiagorik desira?

O hitz eztea eta gozatsia! bena Jinkua, eta ez mündia, eta mündian direnak, maite dütianarentako.

Ene Jinkua, ene orua, enthelegatzen dianarentako aski da erranik; eta horren ardüra arra erraitia hun, eta eder zaio maite dianari.

Ezi zü hüllan zirelarik, oro maithagarri dütüzü: bena zü hürrün zirelarik, oro greugarri.

Zük bihotza phausian ezarten dütüzü; zük bakia, eta alagrantzia emaiten dütüzü.

Zük sendimentü hunak, gaiza orotan gañen, har erazitzen, dütüzü, eta zihaur orotan laida erazitzen: zü gabe deusek etzirozü lüzaz plazerik egin; bena deus maithagarririk, eta gozo huneta-

korik izatekoz zure graziaren presentziaz, eta zure zühürtziaren gatzaz gazitü izan behar dizü.

2. Zer eztü hun edirenen, zü bere gozoko zütianak?

Eta zü gozatzen etzütianaren, zer izanen ahal da maithagarririk?

Mündüko zühürrak, eta aragiaren gozuari jarraikiten direnak, zure zühürtzian galtzen dütü-zü zeren han hanitx banitate, heben aldiz hiltze baizik ezpeita edireiten.

Bena ageri düzü, egiazki zühür direla, zuri jarraikiten direnak, mündüko gaizak mespere-txatzen, eta erakhartzen dielarik: zeren banita-tetik egialat, eta aragitik ezpiritiatat igaraiten beitira.

Hen gozoko düzü Jinkua, eta zer ere huntar-zün kreatüretan edireiten beitie, oro bere krea-zaliaren laidoriuetarat igaren erazitzen ditizie.

Bena untsa, eta untsa hürrün da, krezaliaren gozokua, kreatürarenetik, eternitatekua, thenpo-rarenetik, argi kreatü izan eztenarena, argi phiz-tü izan denarenetik.

3. O argi bethi iraiten düzüna argi phiztiak beno gorago zirena, igorrazü zelütik, ene bihotzeko xokhuak oro ikhertzen ahal dütian iñhazia.

Xaha, alagera, argi, eta phitz ezazü ene ezpiritia, bere photereki, alagrantziazko boztariuetan zureki estekatürük egoiteko.

O nuiz jinen da oren dohatsü, eta desiragarri hura; amurekatik zure presentiaz asezia nazazün, eta ziren enetako oro orotan.

Hura jin dakidan artio, eztüzü ene alagrantzia oso izanen.

Orano (elas) nitan bizi düzü gizon zaharra, eztüzü osoki krüzifikatü izan, eztüzü erras hil.

Orano ezpiritiaren kuntre, bazitizü desirkünthe azkarrak, barnetik gerla egiten dizü, eta arimaren erresoma eztizü phausüz eizten.

4. Bena zü itxasuaren photeriaren bürzagi beitzira, eta haren builtak ematzen beitütüzü, jalki zite, ajüta nezazü.

Horrat hunat itzazü, gerla nahi dien jentia, erhauts itzazü, zure indarraren photeriaz.

Ager itzazü, othoi, zure miraküliak, erakutsazü zure besuaren indarra; zeren ezpeitüt beste

esperantxarik, ez nurganat hersa, zureganat baik, ene Jinko Jauna.

XXXV. KAPITÜLIA

*Tentaziariaren kuntre segürantzarik,
bizitze huntan.*

1. Ene semia, etzira seküla segür izanen mündü huntan; bena bizi zireno, zelüko armen beharra ükhenen düzü bethiere.

Etsaien artian zaude, eta exker eta esküñ atakatzen zütie.

Ezpazira arren pazentziaren armaz lekhü orotarik zerbüttxatzen, etzira lüzaz egonen, zauririk hartü gabe.

Besthalte; nitan zure bihotza, ihurat baztertü gabe, ezpadüzü ezarten, boronthate xahü bateki gaiza ororen ene amurekatik softeritzeko, eztirozü hen süyaren bizitarzüna süstenga, ez-etare hel ahal zelüko ekhoiliarren khoruala.

Behar düzü arren korajuski, gaiza horien ororen artetik, igaren, eta indar azkar batez zure kuntre diren gaizak garhaitü.

Ezi garhaitzaliaren düzü mana: herabeztiaren aldiz, eztüzü baratzen hanitx miseria baizik.

2. Mündü huntan txerkhatzen badüzü phausia, nula ordian heltüren zira phausü eternaliala?

Eztüzüla orai nahi ükhen phausü hanitx, bena bai pazentzia handi bat.

Txerkha ezazü egiazko bakia, ez lürren gañen, bena zelian, ez gizonetan, ez beste kreatüretan, bena Jinkuatan beraurtan.

Jinkuaren amurekatik behar düzü gogo hunez gaiza orori suña pharatü, erran nahi beita, triballier, eta dolorer, tentazioner, eskerniuer, erreus-tarzüner, beharrüner, flakezier, goitzarrener, mardaller, aküsantxer, ümiliazioner, ahalker, gatzigier, eta mesperetxier.

Horik oro berthütiaren hun dira, horiek Jesü Kristen aperendiza zertako den borogatzen die; horiek zelüko khoruaren phezak alkhargana, jüntatzen dütie.

Nik emanen düt phakü eternal bat, triballü llabür batentako, eta gloria müga gabea bat ahalke bertan igaraiten den batentako.

3. Uste düzia, zelüko konsolazioniak bethi ükhenen dütüzüla, zure nahiaren arauiala.

Etzitizie hala ükhen ene saintiek bethiere, bena bai destorbiak handirik, eta hanitx gisatako tentazioniak, eta eskernio handiak.

Bena pazentziareki bere büriak süstengatü zitizien; Jinkuatan haboro fidatü izan beitziren, eziez beraurietan, zakielarik mündü huntako soferitzek etziela aski photere, gloria eternalaren merexitzeko.

Nahi zünükia zük berhala ükhen, beste hani-txek bortxa hanitx nigarren unduan, eta triballü handiez geroz, ükhen ziena.

Egürükazü Jinko Jauna, gizonki maneia zite, koraje har ezazü, etzitala mesfida, ez-etare hebentik aparta; bena ere eztüzüla dolürik zure khorpitzari, eta arimari, bihuatz zer nahi beita thürbürarzünetara eñhe gabe Jinkuaren gloriagatik.

Nik ezinago gizenki ordaria emanen dit; ni zureki nükezü, zure thürbürarzün orotan.

XXXVI. KAPITÜLIA

Gizonen jüdikamentü banuen kuntre.

1. Ene semia, Jinkuatan ezarzü fermoki zure bihotza, eta gizonen jüjamentiaren eztüzüla lotsarik, zure kontzentziak minik egiten ezteizün thenporan.

Hun düzü gisa hortan soferitzia, eta eztüzü hori greugarri izanen, bihotz ümil batentako, ez-
etare Jinkuatan haboro, eziez bere beithan fida-
tzen denarentako.

Hanitxek hanitx gaiza erraiten dizie, eta har-
takoz sinheste aphür ihurk hetan ezarri behar
dizü.

Besthalte orori gogara egitia, eztüzü egiten
ahal den gaiza bat.

Zunbat ere Jundane Phaule Jinkuatan ororen
gogara, eta oro ororen izatera iseiatü beitzen;
haregatik orogatik ezdeusentako khuntatzen
zizün gizonetzaz jüjatü izatia.

2. Aski, ahal ziruan, eta beraurtan zen bezanbat, egin zian, besten hunialat erakharteko, eta salba erazitzeke; bena ezin gibeltü ahal ükhen zian, bestetzaz zunbait aldiz, ez jüjatü, edo mesperetxatü izatia.

Hartakoz oro eitzü zütian Jinkuari, zuñentako deus ezpeita estalirik, eta bühürtü izan zen pazentzia eta ümilitatereki, gaizki mintzo, edo orano bere phensamentü bano, eta hütskorretzaz, gaizak oro nahi zütien bezala bantatzen zütienen kuntre.

Haregatik zunbait ordüz ihardetsi ükhen zizün, beldürrez flakier bere ixilik egoitiaz eskandal eman lezan.

3. Nur zira, gizon hil behar dian batentako lotsa ükhen dezazün? egün balin bada, bihar eztükezü ageri.

Jinkuaren ükhezü lotsa, eta eztüzü ükhenen beldürrik gizonen izierientako.

Zer photere dü zütan, elhe gaixto erraiten, edo goitzarran egiten deizünak, bere büriari haboro damü, eziez zuri eretxekiten dizü; eta nur

nahi beita den, Jinkuaren jüjamentiari ezin ihisirik egiten ahal dizü.

Ükhezü zük Jinkua begien aitzinian, eta zure kheremendetzaz eztezazüla debadiorik txerkha.

Üdüri bazaizü presentian garhaitzen zütiela, eta merexi eztüzün ahalkia soferitzen düzüla, etzitiala hargatik khexa, ez-etare pazentzia gabiaz zure khorua herts.

Bena lehenago zelialat goiti itzazü begiak ni beithara: nik badit photeria, zure ahalke, eta goitzarren orotarik idokitekua, eta batbederari bere obren araur phakiaren emaitekua.

XXXVII. KAPITÜLIA

*Bere büriaren Jinkuari osoki eta
pürki emaitiaz, bihotzeko
libertatiaren jardiesteko.*

1. Ene semia, eiztazü zure büria, eta ni edirenen naizü.

Egon zite haitakeriarik, eta zihaurganatko berhezkiaririk gabe, eta bethi irabaziren düzü.

Ezi zure büria Jinkuari, arzara ez hartzekotan, eman dükezün bezañ sarri, grazia handiago bat ükhenen düzü.

Jauna, zunbatetan emanen deizüt ene büria, eta zuñ gaizatan eitziren düt?

Bethiere, eta oren oroz: gaiza txipietan hañ untsa, nula handietan: deusrer eztit berhezten, bena orotan bilaizirik ediren nahi zütüt.

Betsela nula ziteke izan enetako, eta ni zure-tako; ezpazaaude barnetik, eta kanpotik, zure boronthate propi orotarik bilaizirik.

Zunbatenaz bertanago hori eginen beitüzü, hanbatenaz hobekiago izanen zira, eta zunbate-

naz osokiago eta egiazkiago, hanbatenaz eni plazer haboro, eta zihaurk irabazia handiago eginen düzü.

2. Zunbaitek bere büriak Jinkuari emaiten dütie, bena zerbait beretako berhezten dielarik; ezi eztira osoki Jinkuatan fidatzen; hartakoz bere bürien arranküra handirik begiratzen die.

Betse zunbaitek aldiz, berhala bere büriak osoki eskentzen dütie, bena gero tentazoniak hunki dütianian, ohiko gaizetara ützültzen dira, hartakoz eztie berthütian aitzinatzerik egiten.

Hek eztie jardietsiren egiazko bihotzeko libertatia, ez-tare ene adixkidegua maithagarriaren grazia; aitzinetik bere bürien emaite osua, eta egün oroz hen oberendatzia egiten ezpadie; zeren hori gabe ezpeititeke, ez orai, ez gero eneki jünta, ez nitzaz goza.

3. Hañbestetan erran, eta arzara erraiten dei-züt, eitzazü zure büria, eta oberenda izadazü eni, eta gozatüren zira barnetiko bake handiaz.

Emazü oro orogatik, deus eztezazüla txerkha, deus eztezazüla galtha, zaude nitan xahüki, eta fermoki, eta ni ükhenen naizü.

Lihorzeko libertatia badükezü, eta ülhünpiak etzütü hartüren.

Hortan bira zure iseiak, zure othoitziak, zure desirak; amurekatik, zihaturen berheziki deus ükheitetik, bilaiz ahal zitian, eta pikarrai Jesús pikarrai denari jarraiki ztian, zihaturen hil, eta harentako bizi zitian eternitate batez.

Ordian galdüren, eta ezabatüren dütüzü üdü-rüpen banuak oro, eta arranküra soberakinak oro.

Ordian orano juanen da lotsa handiegia, eta amurio behar ezten bezalakua hilen.

XXXVIII. KAPITÜLIA

*Kanpotiko gaizen gobernü hunaz,
eta danjeretan Jinkuari hersatziaz.*

1. Ene semia, zuñ nahi beita lekhütan, edo egitatetan ziren, nulako nahi beita izan dadin zure kanpotiko lana, behar düzü arranküra handi bat ükhen, barnetiko libertatiaren begiratzeko, eta zihauren bürzagi izateko; amurekatik gaizak oro zure pian diren, eta zü ez henian:

Ziren zure egitaten bürzagi, eta gobernari, ez zerbüttxari eta esklabo.

Bena lehenago egiazko Israelita berhezi bat bezala, igaren zite Jinkuaren haurren zorthialat, eta libertatialat.

Zuñ presenteko gaizen galñetik beitaude, eternitatekuak hobeki ikhus ditzen.

Zuñek begi exkerraz, igaraiten diren gaiza hoier, so egiten beitie, esküñaz aldiz zelükuer.

Zuñ gaiza thenporalek ezpeitütie bereganatzen, her esteka erazitzeke; bena bai hek gaiza thenporalak, hetzaz enplegü hun baten egiteko:

Jinkuak xüxentü ükhen dütian bezala, eta laugile ezinago handiak, deus behar eztenik bere kreatüran eizten eztianak ezari dütian bezala.

2. Zer nahi beita gaizaren heltziari orano egoiten ezazira kanpotiko itxurari, eta ikhusi eta entzün dütüzün gaizak ezpadütüzü, aragiari so daguen begi batez, ikhertzen: bena sartzen bazira berhala tabernaklian Moysareki, zer nahi beita akhodiñatan gañen, Jinkuaren boronthatiaren jakiteko: entzünen düzü zunbait ordüz zelüko ihardestia, eta hantik jalkiren zira, hanitx presenteko gaiza, eta gero jin behar dienetarik, ikhasirik.

Ezi Moysa betho tabernakliala hersatü izan zen, düda emaiten, edo galto egiten zeienen klarki ezzarteko; eta orazioniaren ajütiala laster egin ükhen zian; danjeretarik, eta gizonen gaixtokerietarik libratü izateko.

Zük ere orobat hersatü behar düzü, zure bihotzaren xokhuala, Jinkuaren baimentuaren sü handireki galthatzeko.

Ezi hartakoz irakurten dügü Josue eta Israelen haurrak Gabaonitez inganatiak izan zirela;

zeren aitzinetik ezpeitzen Jinkuaren gogua jakin,
bena elhe eztién sobera sinhetskór izanez, hen
debozione faltsiak trunperiala eror erazi zütian.

XXXIX. KAPITÜLIA

Erreus ihur eztadin izan egitekuetan.

1. Ene semia, ene eskietan eitz ezazü bethi zure akhodiña, nik bere sasuan ezariren dit behar den bezala.

Egürükazü nik xüxent dezadan, eta hantiko profetia borogatüren düzü.

Jauna, aski gogo hunez gaizak oro zuri eizten deitzüt, zeren ene phensamentiak profetitü aphür idoki beitiro.

Jinkuak baletsa, enendin esteka gero jin behar dien gaizer, eta zure boronthate hunari, berankeriarik gabe, oberenda nezan ene büria.

Ene semia, gizonak desiratzen dian gaiza zunbait, ardüra bere goguan borthizki erabilten dizü; bena hura jardietsi dian bezañ sarri, beste sendimentürrik hartzen hasten düzü: zeren bihoztzeko desirak, gaiza beraurtan gañen, ezpeitira iraiplus; bena lehenago batetik bestiala juan erazitzen beitie.

Eztüzü arren gaiza aphürra, gaizarik txipiennetan ere, bere büriaren eiztia.

3. Gizonaren egiazko profetia dago, bere büriaren osoki eiztian, eta hala jarten dena, libertate, eta segurantzia handi batetan dateke.

Bena etsai zaharra huntarzün ororen kuntre duena, tentazione emaitetik ezta baratzen: bena gai eta egün lazo gaixtorik hedatzen ari da, ustez hetan goguarik emaiten eztiana atzamanen dian.

Zaudezteie iratzarririk, eta othoitzetan, dio Jaunak, tentazionian sar etziteien.

XL. KAPITÜLIA

*Gizonaz beraurganik deus hunik
eztiala, eta eztaitala deusez ere
glorifika.*

1. *Jauna, zer da gizona, zü hartzaz orhit izateko, edo zer da gizonaren semia, zük hura bisita dezazün?*

Zer mereximentü ükhen dü gizonak, zük zure grazia hari eman ziniazon?

Jauna, zer plañü egiten ahal düt, zük eizten banaizü? edo murmuzeiarik jüstoki egiten ahal düta, nik galthatzen deizüdana emaiten ezpadeitazü?

Gezürrik gabe, hañ egia phensa, eta erran zirozüt: Jauna, enüzü deus, etzirozüt deus, nihaurganik eztit deus hunik; bena orotan hüts egile nüzü, eta ezdeusetara nuazü bethi.

Eta ezpanaizü ajütatzen, eta barnetik azkartzen, erras epeltzen, eta laxatzen nüzü.

2. Zü aldiz, Jauna, bethi ohikua zira, eta bazaude eternitate orotan, bethi hun, jüsto, eta saintü, untsa jüstoki, eta saintüki gaizak oro egi-ten dütüzülarik, eta behar den bezala ezarten, zühürtze miragarri bateki.

Bena ni damiala ekharriago nizalako, eziez profetiala; eniaukezü bethi heñ batetan: zeren thenpora bezañ khanbiakor beiniz.

Halarik ere hobeki edireiten nüzü berhala, zük plazer düzünian, eta zure eskü ajütazalia hedatzen deitazünian: zeren zük zihaurek, gizonen sokhorrik gabe, ajütatzen ahal beinaizü, eta gisa batez azkartzen, nun ene begithartia ezpeita haboro khanbiatüren; ene bihotza aldiz, zureganat ützüliren, eta zütan phausatüren beita.

3. Hartakoz untsa balin baneki gizonen konsolazione ororen eizten, bada debozioniaren jardiesteko, bada bortxatü nizan bezala zure txerkhatzeko; zeren ezpeita gizonik, ni konsolatzen ahal naianik: ordian arrazureki, zure graziaren ükheiteko esparantxa har nirozü, eta konsolazio-

ne berriaren dohaña dela kausa, boztarioz betha nintezü.

4. Eskerrak zuri, Jauna, zuñeganik jiten beitzaitzat ene gogara heltzen diren gaizak oro.

Ni aldiz enüzü zure aitzinian, banitate, eta ezdeuskeria baizik, gizon khanbiakor, eta flakü bat baizik.

Nuntik arren glorifikatzen ahal niz, edo zeren desiratzen düt famatü izatia?

Ezdeusetarik nizalako z eia? eta hori bera banitate ezinago handi bat da.

Egiazki banaloria, üzürri gaixto bat; eta banitaterik handiena da; zeren egiazko gloria gal erazitzen beiteikü, eta zelüko graziaz bilaizten beikütü.

Ezi nuz ere gizonak berauri plazer egiten beitü, ordian zuri desplazer egiten dizü: nuz ere gizonen laidoriuen unduan hatsalbotürrik juaiten beita, ordian egiazko berthütiak galtzen zitizü.

5. Egiazko gloria, eta boztario saintia düzü, zütan, eta ez bere büriatan glorifikatzia; zure izen saintian, eta ez bere berthütian alageratzia;

eta kreatüratan batetan ere, zure amurekatik
baizik, plazerik ez hartzia.

Biz zure izena laidatü, eta ez enia; biz zure
obra hanitx pheretxatü, eta ez enia; biz zure izen
saintia benediaktü, eni aldiz eztakidan gizonen
laidoriuetarik batere eman izan.

Zü zira ene gloria, zü ene bihotzeko bozta-
riua.

Zütan glorifikatüren, eta boztüren nüzü egü-
nak diraieno; nihautzaz dena bezanbat aldiz, ez
batere ene flakezietan baizik.

6. Txerkha beze jüdiuek alkharganiko gloria;
nik Jinkuaganik dena baizik, eztit txerkhatüren.

Ezi gizonen gloria oro, uhure thenporala oro,
mündü huntako goratarzüna oro, zure gloria
eternalareki pareiatürrik, eztüzü banitate, eta
erhokeria baizik.

O ene Jinkua, egia eternala, miserikordia baz-
ter gabia, Trinitate adorabilia, zuri zihauri biz
eman laidorio, uhure, bertüte, eta gloria jinen
diren müga gabezko thenpora orotan.

XLI. KAPITÜLIA

*Uhure thenporal ororen
mesperetxatziaz.*

1. Ene semia, etzitiala triste, uhurian, eta goratarzünian, besten ikhustez, zihaturen aldiz, mesperetxian, eta aphaltarzünian izatez.

Enegangat zelialat goiti ezazü zure bihotza, eta lürren gañen, gizonek egiten, deitzien mesperetxiek eztütie tristetüren.

Jauna, ütsümentian gütüzü, eta banitatiak berhala inganatzan gitizü.

Untsa ene büria ikhertzen badüt, ikhusten dit seküla kratürak batek ere ezteitadala ogenik egin, hartakoz enitezü jüstoki zure ertzian plañi.

2. Bena zeren ardüra, eta mortalki ofensatü beitzütüt, arrazureki kreatürek orok ene kuntre armak hartzen zitizie.

Eni arren jüstoki diautazü ahalkia, eta mesperetxia; zuri aldiz uhuria, laidorua, eta gloria.

Eta ezpailin baniz adelatzen gogo hunez nahi
ükheitera kreatüra oroz mesperetxatzia, eiztia,
eta ezdeusentako osoki hartia izan nadin, eztiro-
züt bihotzeko bakia, eta fermotarzüna ükhen
ahal, ez-etare ezpiritiaren argia jardiets, ez zure-
ki erras jünto izan.

XLII. KAPITÜLIA

Gizonetan eztiala behar ezarri gure bakiak.

1. Ene semia, zure bakia ezarten badüzü zunbait bizizale lagünetan, alkharreki bizitzen, eta sendimentü batetako zireielakoz, khanbiakor, eta erreus izanen zira.

Bena hersatzen bazira bethi bizi, eta iraiten dian egiala, adixkide baten hürrüntziak, edo hiltziak etzütü tristetüren.

Nitan behar dizü bermatü adixkidiaren maithatziak, eta ene amurekatik maithatü behar düzü, nur ere hun üdürotü beitzazü dela, eta mündü huntan untsa khario beitzü.

Ni gabe adixkidegua eztüzü balius, ez iraipus; nik oropilatzen eztüdan amuriua eztüzü ez egiazko ez xahü.

Hola maite dütüzün gizonen estekamentier gisa batez hil behar düzü, nun, zütan den bezanbat, desiratzeko beitzünüke, hen lagünguarik gabe izatia.

Hanbatenaz haboro Jinkuaganat gizona hüllantzen da; zunbatenaz hürüntzenago beita lürreko konsolazione orotarik.

Hanbatenaz ere gorago Jinkuaganat igaiten da; zunbatenaz aphilago bere beithan jaisten beita, eta berauri xarrago dela üdüri beitzai.

2. Bena zunbait huntarzün bere büriari emaiten dianak, Jinkuaren graziaren bere beithara jitiari baragallü bat ezarten dü; zeren espritü saintiaren graziak bethi bihotz ümil bat txerkhatzen beitü.

Bazeneki zure büriaren osoki ezdeusten, eta kreatüra ororen amuriotik laxatzen, eta idokiten; ordian behar nikezü ene graziaren turrusta zureganat igorri.

Kreatüreganat so egiten düzünian, zihaturen büriari idkiten düzü krezaliaren sua.

Ikhas ezazü, krazaliaren amurekatik zure büriaren gaiza orotan garhaitzen; ordian Jinkuaren ezagütziala heltüren ahal zira.

Zunbat nahi beita txipi den, gaiza ihurk behar ezten bezala maithatzen diana, eta so egiten

deiona; bihotza gastatzen deizü, eta huntarzün
ezinago handitik gibelzen gütü.

XLIII. KAPITÜLIA

Mündüko jakite banuaren kuntre.

1. Ene semia, gizonen hitz ederrek, eta zorrotzek etzitzaiela hunki; *ezi Jinkuaren erresoma eztiagozü, elhe erraitian, bena bai berthütian.*

Gogua emazü ene hitzer, zuñek bihotzaz süz, eta ezpiritiaz argiz bethatzen beitütie, dolümena erakharten, eta hanitx gisatako konsolazionia emaiten beitie.

Eztezazüla jagoiti hitz bat irakur, jakinsiago, edo zühürrago zure büriaren üdüri erazitzeke.

Iseia zite, zure biziuen hil erazitzeke; zeren horrek haboro profetü emanen beiteizü, eziez hanitx phüntü gaitz gizonen ezpiritiaz phenatzen dütianen ezagütziak.

2. Hanitx irakurtü, eta ikhasi dükezünetik landa, behar düzü bethiere ohiko hatsarriala ützüli.

Ni nüzü gizonari jakitiaren erakuslia, eta gizonak erakuts liruan beno, enthelegü hobiago baten txipier emailia.

Ni mintzo nitzaiona bertan zühürtüren da, eta ezpiritüz hanitx profeitatüren dü.

Ala beitira desdixatü, gizoneganik hanitx gaiza eztakienik jakin nahi dienak, axol handirik üken gabe, zuñ den ene zerbüttxatzeko bidia!

Jinen düzü thenpora, zuñtan agertüren beita Jesü Krist bürzagien bürzagia, aingürien Jauna, irakurtü dütien gaizen ororen entzüteko, erran nahi beita bat bederaren kontzentziaren ikher-tzeko.

Ordian khandera-argiz, Jerüsalamé ikhertia izanen da, eta ülhünpian gorderik egon diren gaizak agertüren dira, eta arrazonementiak ixiltüren.

3. Nik instantian goititzen dit ezpiritü aphas bat, eternitateko egia habororen enthelegiala, eziez hamar urthez eskoletan estüdiatü balü.

Nik erakusten dit, elhen herotsik gabe, usterien nahaspillarik gabe, uhuriaren goratarzünik gabe, arrazunamentiaren debadiorik gabe.

Nik erakusten dit, lürreko gaizen mesperezatxia, presentekuetan ez goxorik hartzia, eternitatekuen txerkhatzia, eta gozatxia, uhurer ihesi egitia, eskandalen soferitzia, esparantxa ororen nitan ezartia, nitarik kanpo deusen ez desiratxia, eta gaiza ororen gañetik, ene, sü handireki maite ükheitia.

4. Ezi nurbaitek, ni bihotz osoz maite ükhezez, zelüko gaizak ikhasi dütü, eta miragarri diren gaizak erraiten zütian.

Profeitü haboro idoki dizü gaizen ororen eiztez, eziez gaitz eta gora direnen estüdiatzez.

Bena batzer erraiten dütüt gaiza komünak, bester berheziak: zunbaiti eztiki agertzen niz miraküllietan, eta figüretan; beste zunbaiti aldiz, argiatarzün handi batetan, ene misteriuak erakusten dütüt.

Librien linguajia ororentako orobat da; bena eztüzü oro bardin jakinsützen; zeren ni beiniz egiaren barnian erakuslia, bihotzaren ikherzalia, phensamentien enthelegazalia, egitaten aitzina erazizalia, bat bederari emaiten düdalarik, nihauri untsa üdüritzen zaitan bezala.

XLIV. KAPITÜLIA

*Kanpotiko gaizen ezagützian eziala
behar ihurk sarthü.*

1. Ene semia, hanitx gaizatan, deus ezpazeneki bezala, izan behar düzü, eta zihaturen büria etxekei, lürren gañen, hilik beitzina bezala, eta zuñentako mündia oro krüzifikatia beita.

Beste hanitx gaiza ere, entzüten ezpeitzüntü bezala, eitzu behar dütüzü igaraitera, eta goguan lehenago etxekei, bakia begira erazitzen ahal deitzienak.

Hobiago düzü gaiza desplazer egiten deizienetarik begien ützültzia, eta bat bederari bere sendimentiarren eiztia, eziez elhesta debadioz bether estekatzia.

Untsa Jinkuareki bazaude, eta haren jüjamentiarri so egiten badüzü, ehiñerago unhetsiren düzü, goithü izatia.

2. O ene Jinkua, zertara drano jin giren! damü thenporal bategatik, ihurk nigar egiten dizü, ira-

bazi txipi bategatik, triballatzen, eta lasterkatzen, düzü; eta galtze ezpiritual bat ahaztera eizten dizü, berantian ere bortxa orhitmentxala jiten delarik.

Gogua emaiten dizü, profeitürik batere edo aphür baizik emaiten eztian gaizari, eta ezinago behar diana, arrankürarik gabe, igaraitera eziten dizü: zeren gizonak eizten beitü osoki bere büria juaitera kanpotiko gaizetarat, eta berhala hantik jalkiten ezpada, badiagozü gogo hunez hetan hedatürik.

XLV. KAPITÜLIA

*Eztiela behar orok sinhetsi izan, eta
zuñen ehi den, elhestetan hñts
egitia.*

1. *Emadazü, Jauna, ene phenetan zure sokho-
rria: zeren gizoneganiko salbamentia bano beita.*

Zunbatetan leialtarzünik eztüt ediren, ükhe-
nen niala uste nian lekhian.

Zunbatetan aldiz, ediren düt gütienik uste
nian lekhian.

Bano da arren gizonetan ezarten den espa-
rantza jüstuen aldiz salbamentia zütan diagozü,
ene Jinko Jauna.

Zirela benedikatü, ene Jinko Jauna, guri hel-
tzen zaizkün gaiza orotan.

Flakü, eta khanbiakor gütüzü, berhala düzü
gure inganatü izatia, eta khanbiatzia.

2. Zuñ da gizona hañbeste abisamentüreki,
eta goguareki bere büria begiratzan ahal diana,

nun eztakion hel zunbait ordüz, zunbaitinganio-
tara, edo düdatara erortia.

Bena zütan fidatzen dena, Jaun, eta bihotz
xahü batez, txerkhatü zütiana, eztüzü hañ ehiñe-
ra erorten.

Eta erorten balin bada ere zunbait thürbürar-
zünetara, zer nahi beita gisaz phenez üngüratia
izan dadin; zük berhala idokiren, eta konsolatü-
ren düzü: zeren ezpeitüzü eitziren, zütan azken
ürrhentziala drano bere esparantxa ezarri diana.

Arraro da adixkide leiala, adixkidiari bere
phenetan batetan ere faltatzen etzaiona.

Zü zira, Jauna, zü zihaur ezinago, gaiza oro-
tan, leial zirena, eta zützaz kanpo, eztüzü ihur
ere hala denik.

3. Ala beitzen zühür arima saintü zioianak,
ene ezpiritia fundatürik, eta borthiztürik diagozü
Jesü-Kristetan.

Hala banintz ni, gizonen lotsak enindirozü
hañ ehiñera erreus, ez-etare elhe zorrotzek
hunki.

Nurk dirotza gaizak oro aitzinetik ikhus, edo
gero jinen diren gaitzak aparta? aitzinetik ikhu-

siek ere ardüran min egiten badie; zer diroie uste gabe jiten direnek mingarki zaurt baizik.

Bena zeren eztüt nihauren arranküra haboro ükhen, miserable nizana? zeren orano bestiak hañ ehiñera sinhetsi dütüt?

Bena gizonak gira, eta ez deusere besterik, gizon flakiak baizik, zunbat ere hanitxez uste, eta erraiten beitie aingüriak girela.

Nur sinhetsiren düt, jauna, nur zü baizik? zü zira egia inganatzan eztiana, eta ezin inganatü izaten ahal dena.

Haboroz haboro *gizonak oro dütüzü gezürti*, falkü, khanbiakor, erorkor, orotan gainti bere elhestetan; gisa batez nun, nekez ihurk sinhetsi behar beitä, are egiaren itxura diala üdüri dian gaiza.

4. Ala beikütüzü aitzinetiko ikhuste handi bateki abisatü, gizoner gogua eman behar güniala, erran deiküzünian, *gizonaren etsaiak direla bere mixkandiak*, eta etzela behar sinhetsi, haur düziela hebentxe, edo hura düziela han-txe Jesús Jauna, errailia.

Ene khostüz hori ikhasi dit, eta Jinkuak detsa-
la, eni gogua haboro har erazitzeke den, eta ez
erhokeriala eizteko.

Abisatü izan zite (dio nurbaitek) abisatü izan
zite, begirezazü zihaur beithan, nik erraiten dei-
züdana. Eta ni ixilik naguen thenporan segret
uste düdalarik; beraur eztaukezü ixilik segretü
galthatü deitadanian; bena bere büria, eta ni sal-
hatü unduan, berhala juan düzü.

Holako gizon elhestari, eta goguarik emaiten
eztienetarik begira nazazü, Jauna, hen eskietara
eror enadin, eta halakorik deus seküla egin ezte-
zadan.

Ezarzü, ene ahuan hitz egitiari, eta fermo
dena, eta hürünt ezazü eneganik mihi inganaza-
lia.

Enirozü sobera gogua eman ahal nihaurk
unhetsi nahi eztüdan gaizari.

5. Ala beita hun, eta bakezko, bestetzaz ixilik
egoitia, eta gaiza ororen bardinzki ez sinhestia,
eta behin entzün ükhenaz, haboro ez nekez bai-
zik minzatzia, aphürri bere büriaren ezagüt era-
zitzia; berauren bihotzaren bethi ikhusle izatia.

Eta ez hitz ororen erranari khanbiatzia, bena desiratzia, barnetiko eta kanpotiko gaizak oro, zure boronthatiaren plazer hunaren araur, egin izan ditian.

Ala beita segür, zelüko graziaren untsa begiratzeko, gizonen aitziniala agertziari ihesi egitia! eta kanpotik pheretxü handi eman eraziren deikiela üdüri den gaizen, ez desiratzia: bena bizitzez khanbia erazirik, debozioniaren süya emaiten ahal deikienen, arranküra oso bateki txerkhatzia!

Ala beita henitxentako gaixto izan, hen bertütia ezagütü, eta laidatü izan den, behar beno lehen!

Ala beita hanitx profeitable izan, segretki graziaren begiratzia, bizitze hütskor huntan, zuñ dena oro, tentazione, eta gerla baizik ezpeita.

XLVI. KAPITÜLIA

*Jinkuatan ihurk ükhen behar dian
konfidantxaz, gure kuntre erraiten
diren elhen unhetsteko.*

1. Ene semia egon zite fermoki, eta nitan esparantxa ükhen ezazü. Ezi zer dira elhiak, elhe baizik? baduatzü airian, bena harriak etzitizie xehekatzen.

Ogendant bnazira, phensamentian ükhen ezazü, nahi zirela gogo hunez khanbiatü hunialat: kontzenziak ezpadeizü ogenik ezagüt erazitzen, nahi düzüla hori Jinkuagatik gogotik soferitü.

Aski gaiza aphürra düzü, zunbait ordüz elhiak unhets ditzazün, eztirozünen gañen azote kolpü handirik orano soferi.

Eta zeren hañ gaiza txipiak bihotzialat igaraiten zaitzü, orano aragiari enjogi zirelako baizik, eta gizoner, behar beno haboro gogua emaiten düzülako baizik.

Ezi mesperetxatü izatiaren lotsa zirelako, zure faltegatik hitzezko gaztigürik eztüzü nahi, eta eltalgüenen itzal hotza txerkhatzen düzü.

2. Bena hobeki zihauri so egin ezazü, eta eza-gützen düzü, mündia, eta gizoner plazer egiteko amurio banua, orano zütan bizi direla.

Ezi nuiz ere aphaltü, eta zure faltegatik ahal-
ketü izatiari, ihesi egiten beitüzü: gaiza segü bat düzü, etzirela egiazki ünble, ez egiazki mündiari hil, ez mündia zuri krüzifikatü.

Bena beha zite ene hitzari, eta eztüzü axolik ükhenen, gizonen ehün mila hitzentako.

Erran litian ordian zure kuntre, ezinago male-
zia handi bateki, sor ahal litekian gaizak oro, zer damü egin litziroie, erras igaraitera eitz bazintza, eta lasto bat beno haboro etxekei ezpazintza? bilho bakhoitz bat idoki ahal litzirozieia?

3. Bena deboziona bihotzian, eta Jinkua bere begien aitzinian eztiana gaizki egina erakusten dian hitz batek ehiñera ofensatzen dü.

Nitan aldiz fidatzen dena, eta bere jüjamentuari egoitera desiratzen eztiana, gizonen lotsarik batere gabe izanen da.

Ezi ni niz jüjia, eta segretien ororen ezagützalia: nik badakit, gaiza nula igaren den; nik goitzarreenen egilia, eta soferizalia ezagützen dütüt.

Ene jakitiareki hitz hura erran izan düzü, ene lixenxiareki hori heltü düzü, amurekatik hanitxen bihotzetarik phensamentiak ager litian.

Nik ogen düna, eta ogen gabia jüjatüren dütüt, bena aitzinetik nahi ükhen dütüt borogatü bata eta bestia, jüjamentü estali batez.

4. Gizonen jakileguak ardüra inganatzen dü, ene jüjamentia egiazko da, egonen da, eta ezta khanbiatü izanen.

Estalirik dago komünzki, eta aphürri baizik, ezta agertzen gaiza bat bederarentako: bena seküla ezta inganatzen, ez eztaite imgana; zunbat ere, zentzü gaben begietan, ezpeita xüxen üdüri.

Eni arren hersatü behar da, jüjamentü orotan, eta ez berauren ustekerian bermatü.

Ezi jüstoa ezta nahasiren, zer nahi beita Jinkuaganik hel dakion, nahi bada zerbait haren kuntre erran izan den, hartan eztenik, eztü axol handirik ükhenen.

Gisa berian eztü boztario handirik hartüren banoki, nurbaitek arrazureki falta gabe dela erakusten balin badie.

Ezi bere beithan ikhusten dizü, ni nizala bihotz xokhuen ikherzalia, eta eztüdala jüjatzen kanpotiko itxuraren araur.

Ezi hanitxetan gizonen jüjamentian laidable edireiten den gaiza; eztate hala, ene begietan, bena bai itxusi eta okher.

5. Jinko Jauna, jüje jüstua, azkarra, eta pazentziaz bethia, gizonen flakezia, eta gaixotarzüna ezagützen dützüüna, ian zite ene indarra, eta konfidantxa oro; ezi eztizüt ene kontzentzia bera aski.

Zük badakizü, nik eztakidana, eta hartakoz mehatxü orotan behar nikezün ümiliatü, eta hurak eztiki soferitü.

Pharka itzadazü falta egin dütüdanak, hala gobernatü enizan ordü oroz, eta emadazü arzara haboro soferitzeko grazia.

Ezi hobe düzü enetako, zure miserikordia hüts eztaítiana, pharkamentiren jardiesteko eziez ene jüsto izateko ustekeria, kontzentzia gorderik daguenaren segurantzatan ezarteko.

Zunbat ere deus ezpeitüt ene büriaren sendi, haregatik etzirozüt xahü idok, zeren zure miserikordia gabe, *gizonik batere ezpeita zure aitzinian jüsto edirenen denik.*

XLVII. KAPITÜLIA

*Gaiza greugarriek orok bizitze
eternalagatik softeritü behar diela.*

1. Ene semia, ene amurekatik hartü dütüzün triballiek etzitzela deskoraia, eta kantu orotarik jiten zaizün thürbürarzünek, etzitzela bihotz aphal izan erazi, bena ene hitz emaitiak behar zütü gaiza heltzen diren orotan azkartü, eta konsolatü.

Nik badit nuntik zü phaka, izariak oro beno handiago den gisa batez.

Etzira lüzaz heben triballatüren, ez bethi dolarez kargatü izanen.

Egürükazü aphür bat, eta ikhusiren düzü sarri, zure gaitzen ürhentzia.

Thenore bat jinen düzü zuñtan triballiak, eta nahaspillak oro baratüren beitira.

Thenporareki igaraiten diren gaizak oro, txipi, eta llabür dütüzü.

2. Egiten düzüna, egizü untsa, triballa zite ene miñatzian eta ni nükezü zure phakia.

Izkiriba, irakur, khanta ezazü, egizü hasperen, egon zite ixilik, zaude orazionetan; soferi itzazü bihotztoiki, zure nahiaren kuntre jiten diren gaizak; bizitze eternalak merexi zitizü horik oro, eta handiagorik.

Jinkuak dakian egün batez jinen düzü bakia; eta ordian eztükezü thenpora hartako gaik ez egünik; bena bai argi bethi irañen dian bat; karitate müga gabe bat, bake fermo bat, eta phausü segür bat.

Ordian eztüzü erranen, *hiltzezko khorpitz huntarik nurk libratüren nai?* eta eztüzü marra-karik eginen, diozularik, elas miserable nizana, ala beira ene hebeko egoitia lüzatü! Zeren heriua bethierekoz akazatü ianen beita; han badükezü dohatsütarzün deusetan ere eskazkeriarik eztütian bat, erreustarzünik gabe, hanko izale dohatsien konpañña ezti, eder, eta maithagarrian.

3. O ikhusi bazüntü zelian diren saintien bethiereko khoruak, zuñen gloria handiaren bozta-

riuan daudian orai ere; zunbat ere nuizpait mündü huni üdüritzen beitzeion mesperetxiaren peko zirela, eta kasi bizitzia etziela merexi: düda gabe lürriala drano apha! zinteke, eta nahiago zinanteke ororen pian lehenago izan, eziez bahoitz baten gehien.

Eta etzintzake bizitze huntako egün hunak desira, bena lehenago alagera zinteke, Jinkuagatik doloretan izatiaz, eta irabazi ezinago handi bat uste zünüke lizatiala, gizonen artian ezdeusentako igaraitia.

4. O goza bazintza gaiza hoiek, eta zure bihoztzian barna beno barnago sar balite; nula atrebi zinteke, aldi bakhoitz batez ere, plañürik egitera!

Bizitze eternalarentako eztireia behar gaiza phenuak oro softeritü?

Eztüzü gaiza txipia, Jinkuaren erresomaren galtzia, edo irabaztia.

Goitizazü arren zelialat zure begithartia. Haur nüzüla ni, eta ene saintiak oro eneki, zuñek mündü huntan debadio handirik ükhen beitie, orai alagrantzian, orai konsolazionian, orai segürantzian, orai phausian, beitera, eta izanen ere

bai ürhenzerik gabe eneki ene aitaren erreso-
man.

XLVIII. KAPITÜLIA

*Eternitateko egünaz, eta bizitze
huntako hersidüretzaz.*

1. O zelüko ziotatiaren egoite ezinago dohatsia! O eternitateko egün ezinago argia! gaiek batek ere ülhüntzen eztiana, bena egia ezinago handiak argitzen diana; egün bethi maithagarri, bethi segür dena, eta khanbiorik batere kunrialat ükheiten eztiana!

O jinkuak baletsa, egün hura jin lizan, eta mündü huntako gaiza thenporalak oro akabi liren!

Egia düzü, leñbürü bethi irañen dian batez dardeiatürük saintier argitzen diala; bena ez lürren gañen bidejant direner, hürrünetik, eta ülhünpez betherik den gisa batez baizik.

2. Bazikizie zelüko ekhoiliarrek, zuñen ala-grantziaz betherik den hura: hasperen egiten dizie Eüaren haur desterratiek, haur kharatstar-zünez, eta debeiarzünez betherik delakoz.

Oraiko thenporako egünak txipi eta gaitz, dolarez eta miseriaz betherik dira.

Heben gizona hanitx bekhatüz theyütürik dia-
gozü, hanitx pasineren lazuez hartürik, hanitx
larderiaz tinkatürik, hanitx arranküras betherik,
hanitx berritzepenez bareiatürik, hanitx banita-
tez nahasirik, hanitx hütsez üngüratürik, hanitx
triballüz flakatürik; tentazionek phezützen dizie,
plazerek indar gabetzen, eta praubeziak esker-
niatzen.

3. O nuz date gaitz hoi en akabantza? nuz
biziuen esklabaje miserabletik libratü izanen niz?
nuz zü zihautzaz baizik eniz orhitüren, Jauna;
nuz zütan aseziareki alageratüren niz?

Nuz nizate threbükürik batere gabe, egiazko
libertatian, ezpiritiaren ez khorpitzaren phezü-
tarzünik ükhen gabe?

Nuz dateke bake hura, bake nahaspillarik
batere gabe segür datekiana, bake barnetik eta
kanpotik, bake althe orotarik fermo izanen dena?

O ene Jesüs huna! nuz nizateke zure ikhus-
ten? nuz so egitez gozatüren düt, zure erreso-
mako gloria? nuz ükhenen zütüt oro orotan.

O nuz nizzateke zureki, eternitate oroz geroz, zure maiter adelatü düzün erresoman?

Eitzia nüzü, praube, eta desterratü nizana, etsaiaren lürrian, nun egün oroz beitira gerla, eta desfortüna handiak.

4. Konsola ezazü ene desterria, ezti ezazü ene doloria; zeren zureganat beituatza ene desirkünthe ororen hasperenak.

Ezi mündiak konsolazionetako emaiten deitz-tan gaizak oro, karga bat dütüzü enetako.

Disiratzen dit, zure presentziaz hüllan beno hüllanago gozatzia, bena ezin atzamaiten dizüt.

Nahi nüzü zelüko gaizer estekatü, bena mündü huntako gaizek, eta pasione hil erazi gabek, bereganat apha erazitzen nizie.

Ezpiritüz gaizak oro beno gorago izan nahi nüzü, bena aragiak bortxatzen nizü, nihauren nahiaren kuntre, hen pian izatera.

Gisa hortan, desdixatü nizana, nihauren büriaren kuntre gerla egiten dizüt, eta nihuri greu gerthatü nüzü; ezpiritiaz gañen, aragiak pian izatia txerkhatzen dian thenporan.

5. O zer eztüt ene barnian softeritzen, ezpiritüz zelüko gaizetan naguenian, eta ene othoitzetan, aragiaren phensamentü falso bat jiten zaitanian! ene Jinkua, etzitiala niganik hürrünt, eta zure koleran, etztiala zure zerbüttxariaganik gibelt.

Jalki erazizazü zure iñhazia, eta hen gal erazitzeke, igorrazü zure armak; eta etsaiaren itxusmentiak oro, ezdeusetara jinen dütüzü.

Ene zentziak zureganat bil erazitazü, ahatz erazitazazü mündüko gaizak oro: emadazü biziuen üdüripen gaixtuen apartatzeko, eta mesperetxatzeko grazia.

Sokhorri nazazü egia eternala, amurekatik banitatek batek ere enazan hunki.

Hel zite zelüko eztitarzüna, eta bihuatz ihesi, zure aitzinetik, theiarzünak oro.

Pharka ezadazü orano, eta heizü nitzaz miserikordia, ene othoitzetan zützaz kanpo, besterik zerbait goguan düdan ordü oroz.

Ezi egiareki aithortzen dit, barreiarzün handi bateki hetan üsatü nizala izatera.

Ezi hanitx aldiz, khorpitzez xüti, edo jarririk naguen lekhian enüzü; bena bai lehenago phensamentiek eramaiten naienian.

Ene phensamentia den lekhian nüzü, eta ardüra ene phensamentia maite düdan gaizan diagozü.

Natüralki edo kostümaz plazer egiten deitan gaiza, berhala ene goguala jiten düzü.

6. Hartakoz zük, egia bera beitzira, agerriz erran ükhen düzü: *Nun ere beita zure tresaura, han düzü zure bihotza.*

Zelia maite badüt, gogo hunez zelüko gaizetan ene phensamentia etxekiten dit.

Mündia maite badüt, mündüko dohatsütarzü-netzaz alageratzen nüzü, eta haren desfortünetzaz tristetzen.

Aragia maite badüt, aragiari so daudianak zikitit bürían.

Ezpiritia maite badüt, plazer hartzen dit gaiza ezpiritualen goguan etxekitez.

Ezi maite dütüdan gaiza orotzaz gogo hunez mintzatzen nüzü, eta her behatzen; eta halako

gaizen imajinak nihaureki etxerat eramaiten zikit.

Bena dohatsü düzü, Jauna, zure amurekatik kreatürak oro bere bihotzetik idokitzen dütian gizona, bere büriari bortxa egiten diana, aragia- ren desirküntiak ezpiritiaren debozioniaz krüzifi- katzen dütian; amurekatik kontzentziaren untsa xahat unduan, oberenda dizazün orazione xahü bat; eta mündüko gaizen ooren barnetik, eta kanpotik akaza unduan, merexi dezan aingü- rien senbaladan izatia.

XLIX. KAPITÜLIA

*Bizitze eternalaren desiratziatz, eta
harat juaitera iseiatzen direner,
zuñen huntarzün handiak daudian
haidürü.*

1. Ene semia, borogatzen düzünian gloria eternalaren desirküntia zelütik ixurtzen zaizüla, eta khorpitzetik jalkitia zure arimak desiratzen diala, amurekatik ene argitarzüna khanbiamentiaren itzalik gabe ikhus ahal dezan, zabal ezazü zure bihotza, eta inspirarzün saintü hura besarka, boronthate oso bateki.

Esker ezinago handiak eman itzazü zelüko huntarzünari, zuñek hañ mañuski tratatzen beizütü, hañ eztiki bisitatzen, hañbeste süreki korajutzen, eta hañbeste photerereki goititzen ere bai; beldürrez zihaturen pheziak lürreko gaizetarat eror erazi zitza.

Ezi eztüzü hori zure phensamentüz, edo iseyüz ükheiten, bena bai zelüko graziaren, eta Jinkuaren suaren huntarzünetik; amurekatik bert-

hütian ümilitate handi bateki aitzina zitian, eta adela gero jinen diren atakarzünen garhaitzera, et iseia zitian bihotz osoz eni estekatü izatera, eta boronthate süz bethe bateki ene zerbüttxatzera.

2. Ene semia, süya ardüra phiztürük diagozü; bena garra kherik gabe eztüzü goiti juaiten.

Orobat zunbaiten desirküntiak zelüko gaizetarako süz betherik diaudezü; eta haregatik eztütüzü aragiaren tentazionerik gabe.

Hartakoz eztizie erras xahüki, eta pürki Jinkuaren uhuriagatik egiten, hañbeste desirküntereki galthatzen deien gaiza.

Holako düzü ardüran zure desira, zuñ enthelega erazi beitüzü, hersi jarraikiten zaizüla.

Ezi gihauren abantalak thonatü den gaiza, ezta ez xahü ez osoki konplitü.

3. Galthezazü, ez zihauri plazent, eta abantallus zaizüna, bena eni plazer, eta uhure egiten deitadana: zeren untsa phensatzen badüzü, behar beitüzü ene maniaren xüxentarzüna, zure

desiraren, eta zük desiraahal ziniruanaren gañetik ezarri, eta hari jarraiki.

Ezagützen dit zure desira, eta entzün zikit ardüra egin dütüzün hasperenak.

Nahi zinanteke jadanik izan, Jinkuaren haurren gloriaren libertatian: jadanik etxe eternal, eta zelüko herri boztarioz betherik den harek plazer egiten deizü, bena eztüzü orano jin oren hura; badüzü orano beste thenpora bat, erran nahi beita, gerlarako thenpora, triballüzko, eta borogatü izateko thenpora.

Desiratzen düzü huntarzün ezinago handiaz bethe izatia, bena eztirozü orai hura jardiets.

Ni nüzü: egürüki nazazü (dio Jaunak) Jinkuaren erresoma jin artio.

4. Behar düzü orano lürrian borogatü izan, eta hanitx gaizatan bulkatü.

Emanen zaizü zunbait ordüz konsolazione, bena ez behinere asezia osua.

Azkar zite arren, eta izan zite indartsü, natürak nahi eztütian gaizen, bada untsa egiteko, bada soferitzeko.

Gizon berriaz beztitü behar düzü, eta beste gizon batetara khanbiatü.

Ardüra egin behar düzü nahi eztüzüna, eta nahi düzüna orobat eitzi.

Bester plazer egiten dian gaizak, badizü opütz hun bat, eta zure gogara denak, eztizü aitzinago profeitürik emanen.

Betsen errana entzün izanen düzü, zuria ezdeusentako hartü izanen düzü; bestek galhattia ükhenen dizie, zük aldiz zure galtua eztüzü jardietsiren.

5. Bestiak handi dütükezü jenten ahuetan, zützaz aldiz eztizie hitzik erranen.

Bester gaiza bata, edo bestia fidatüren dizie, zü aldiz deusentako etzütie hun edirenen.

Hori dela kausa natüra zunbait ordüz tristetüren düzü, eta eztükezü aphür ixilik soferitzen badüzü.

Gaiza horietan, eta beste holako hanitxetan, ardüran borogatü izaten da Jinkuaren zerbüttxari leiala, zer gisaz bere büria ezdeusten, eta gaiza orotan hezten ahal dükian.

Nekez düzü holako zerbait, zuñtan hañbeste mengua eztüzün, zihauren büriari hiltzia, nula ikhusten, eta soferitzen düzünian, zure boronthatiaren kuntre datekian gaiza zunbait, orotan gainti aldiz, manü ükhenen düzünian gaiza desarau, eta eztirela hun zuri üdüri zaikezünen egitia.

Eta nula ezpeitzira bentüratzen besteren esküpien zaudiano, photere handiago bati bühürtzera, hartakoz gaitz üdüri zaizü dela, besteren kheñürik mendreniala plegatzia, eta hartan ebiltia, eta zure sendimentü propiaren eiztia.

6. Bena untsa ikhusazü, ene semia, triballü horien frütia, hen bertan akabatzia, eta phakü ezinago handia; eta hantik eztüzü ükhenen khe-xeriarik, bai aldiz pazentziaren konsolio ezinago azkar bat.

Ezi orai gogotik boronthate txipi eizten düzün hunen ordiari; zelian bethi ükhenen düzü zure boronthatiaren konplitzia.

Ezi han edirenen dütüzü nahi dütüzün gaizak, edo desira ahal zintzakianak oro.

Han badükezü, huntarzün ororen ükheiteko photeria, hen galtzeko lotsarik gabe.

Han zure boronthatiak, eniareki bethi jünta-türrik, eztizü deus besterenik, ez berauren berhezirik desiratüren.

Han ihur etzaizü bühürtüren, ihur eztüzü zützaz plañitüren, ihurk etzütü destorbatüren, deus etzaizü nahi eztüzünik jinen: bena gaiza desiratiak oro batetan, zure goguaren araur dütükezü, eta zure bihotzeko desirküntiak oro aseziatüren eta gaintikatüren zitizie.

Han goitzarran soferitien ordari, emanen dei-züt gloria, tristezien ordari, laidorioz estaliren zütüt, eta lekhürrik aphalena hartü dükezülakoz, ükhenen düzü, ene erresomako egongia bethierekoz.

Han agertüren düzü obedientziaren frütia, alageratüren düzü penitentzaren triballia, eta besteren pian izate ümila khoroatü izanen düzü.

7. Aphal zite arren orai ümilki besten ooren eskü petara, eta eztüzüla axolik jakitez, nurk hori erran, edo manhatü dian.

Bena ükhen ezazü arranküra handi bat, ala zure gehienak, ala zü beno gaztiaguak, ala zihauren bardinak galthatü, edo ezagüt erazi

deizün gaizaren huniala hartzeko, eta iseia zite egiazko boronthate batez haren konplitzera.

Batak txerkhjatüren dizü haur, bestiak hura, haur glorifikatüren düzü hntan, bestia hartan, eta biz laidatü mila miliutan; zü aldiz atzitalia alagera, ez hartan, ez huntan, bena bai zure zihaturen mesperetxatü izatian, eta ene nihauren plazer hunian, eta uhurian.

Haur behar düzü desiratü, Jinkua den zütan glorifikatü, bada bizian, bada hilian.

L. KAPITÜLIA

Zer gisaz gizon eskeriatiak Jinkuaren eskietan jarri behar dian.

1. Ene Jinko Jauna, aita saintia, zirela orai eta bethiere benedikatü; zeren zük nahi bezala oro egin izan beitira, eta zük eginen dütüzünak, hun beitira.

Alagera bedi zütan zure zerbüttxaria, ez beraurtan, ez-etare beste zunbaitetan; zeren zü zihaur beitzira egiazko alagrantzia, zü ene esparantxa, eta khorua, zü Jauna ene boztariua eta uhuria.

Zer dü zure zerbüttxariak zureganik ükhen diana baizik, eta hura ere merexitü gabe.

Zük eman eta egin dütüzünak oro, zuriak dütüzü.

Praube nüzü, eta ene gaztezaruakz geroz bethi penetan: tristetzen düzü zunbait ordüz ene arima, nigar egitalia drano; zunbait aldiz ere bere beithan nahasten, pasione bertan atakatüren dienen direla kausa.

2. Bakiaren boztariaua desiratzen dit, zure haurren bakia galthatzen dit, zuñ konsolazioniarren argiaz hazten beitütüzü.

Emaiten badüzü bakia, ixurten badüzü ala-grantzia saintia, zure zerbütxiaren arima boztariozko khantatzez betherik izanen düzü, eta debota ere bai zure laidoruan.

Bena hareganik hürüntzen bazira, ardüra kostümatü düzün bezala, eztüzü ebiliren ahal, zure manien bidian bena lehenago haren belhañak plegatzen dütüzü bere burrhararen zaflatzeko; zeren ezten atzo eta herenegün bezala, nuiz ere zure argiak bere leñhüriak hedatzen beitzütian haren бүрүн гаña, eta zure hegalen itzalarren pian, tentazione atakatzen zienetarik begiratia beitzen.

3. Aita jüsto, saintü, eta bethi laidatü izan behar düzüna, zure zerbütxiaren borogatü izateko orena jin düzü.

Aita maithatü izan behar düzüna, jüsto düzü zure zerbütxiak zerbait zuregatik soferi dezan oren huntan.

Aita bethi uhuratü izan behar düzüna, zük, etrnitate oroz geroz, jinen zela zanakian orena jin düzü, zuñtan zure zerbüttxariak, thenpora aphür batez aphaltmentü ükhen behar beitü kanpotik, barnetik zü beithan bethi bizitzen delarik.

Biz aphür bat mesperetxatü, eta ümiliatü, ezdeus bedi gizonen aitzinian, softeritzek, eta eritarzünek xeheka beze: amurekatik zureki arzara phitz dadin, argi berri baten arthorian, eta zelüko gaizetan, argiz bethia izan dadin.

O aita saintia, zük hala eragin düzü, zük hala nahi ükhen düzü, eta zük manhatü ükhen düzüna egin izan düzü.

4. Zure adixkidiari egiten düzün grazia bat düzü, mündü huntan zureganatko amuriuagatik softeritzia, eta thürbürarzünian izatia, zunbatetn nahi beita, eta nurtaz nahi beita, hori egin ledin nahi ükhen beitüzü.

Deus lürren gaiñen egiten deia arrazu gabe, eta nun ezten zure konselliak eta probidentziaz phausatia?

Hun dütüzü enetako, Jauna, zeren ümiliatü naizün, amurekatik ikhas ditzadan zure grazian

izateko bidia: eta aparta ditzadan bihotzeko goratarzünak, eta nihaurez dütüdan sinheste hunak.

Profeitable düzü enetako, zern ahalkez esrtalirik begithartia ükhen düdan, amurekatik gizonak beno lehen, zü txerkha zitzadan ene konso-lazionetako.

Hortarik ere ikhasi dit, zure jüjamentü ezin ezagützen denaz ikhara jarten; zeren jüstua gaixtueki nahastekatzen beitüzü doloretan, bena ez hun arau, eta jüstoki baizik.

5. Eskerrak emaiten deitzüt, zeren ene gaizki eginak gaztigü gabe eztütüzün eitzü; bena azote kolpü garratzez xehekatü naizün, doloriak emaiten, eta hersidürak igorten zeneiztalarik kanpotik eta barnetik.

Eztüzü ni konsola niruanik zeliaren pian diren gaizetarik batere, zü baizik, ene Jinko Jauna, ari-men zelüko medezia; zük zaurtzen gütüzü eta sendotzen zük *iferniaren khantiala eramaiten gütüzü, eta hantik idokitzen ere bai. Biz zure gaztigia nitan gañen, eta zure zaharuak berak jakintsütüren nizü.*

6. Haur nüzüla ni, zure eskien artian, aita maithatia, zure azote kolpien gaztigiaren pian aphaltzen nüzü.

Zaflezazü ene bizkarra, eta ene lephua, amurekatik ene okherreria plega erazi dezazün, zure boronthatiaren egitera.

Egin nazazü zure diszipülü debot, eta ümil bat, untsa egitera kostümatü düzün bezala, amurekatik zure begi kheñürik mendrenian, obedi zitzadan.

Nihauren büria, eta nik dütüdanak oro gomendatzen deitzüt gaztigmatü izateko, hobe düzü heben gaztigmatü izatia, eziez beste mündian.

Zük oro bederakarka badakitzü, eta gizonaren kontzentzian deus estalirik eztüzü zuretako.

Heltü behar dien gaizak, egin izan ziren beno lehen ezagütü züntian, eta eztüzü beharrik nurbaitek abisa zitzan, edo erakuts ditzazün lürren gañen igaraiten diren gaizak.

Zük badakizü, zer den hun ene profetiarentako, eta zuñen abantallus den gaitz ükheitia biziuen erdollaren garbitzeko.

Egizü nitzaz, zihaurk plazer düzüna, eta eztezazüla belzuririk egin, ene bizitze bekhatüz estaliari, zuñ ihurk zük beno hobeki, eta klarkiago ezpeitü ezagützen.

7. Jauna, emadazü grazia, jakin behar düdanaren jakiteko, maithatü behar düdanaren maithatzeko, zuri plazentenik zaizünaren laidatzeko, zuri pretiatü üdüri zaizünaren goguan etxekiteko, eta zure begien aitzinian itxusi denaren deslaidatzeko.

Enazazüla eitz, ene begiek kanpuan ikhusten dienaren araur, ene jüjamentiaren emaitera, ez ene sendimentiaren erraitera gizon deus ezta kienen entzütiaren araur: bena berhez erazitadazü gaiza ezpiritualak ikhusten ahal direnatarik; eta txerkha erazizadazü bethi, gaiza ororen gañetik, zure plazer hunaren boronthatia.

8. Gizonen zentziak ardüra inganatzen dira, bere jüjamentien emaitian, orobat mündü hunen maithazaliak inganatzen dira, ikhusten ahal diren gaizen baizik ükheitez.

Nulaz da gizona hobe, beste gizon batek, bestiak beno handiago uste dialakoz.

Inganazale batek inganazale bat, bano batek bano bat, ütsü batek ütsü bat, flakü batek flakü bat inganutzen dü, goratzen dian thenporan, eta egiaren erraitera, ahalkez lehenago bethatzen dü, banoki laidatzen dianian.

Ezi san Franzes ümilak dioian bezala, Jinkua-ren begien aitzinian handi den bezañbeste düzü bat bedera, eta ez haboro.

LI. KAPITÜLIA

*Obra aphalet ihurk estekatü behar
diala goreneta ezin heltzen
denian.*

1. Etzauteke bethi, ene semia, berthüten desir süz bethian, ez-etare zelüko gaizen ezpiritüz ikhustiaren gradürik gorenian; bena behar düzü zunbait aldiz, bekhatü orijinalaren khozü gaixtua dela kausa, lekhü aphaletarat jaitsi, eta zihaurk nahi gaberik, eta debeiatzen zirelarik, egari bizitze gastatü hunen phezia.

Khorpitz hilkor haur karreiatzen düzüno, borogatüren düzü, debeiarzüna eta bihotzeko phezütarzüna.

Behar düzü arren ardüra, khorpitz huneki zireno, hasperen egin, aragiaren phezütarzüna dela kausa; zeren ezpeitzitake thaik gabe este-ka, Jinkuaren ezpiritüz ikhustiar, edo gisa hortako obrer.

2. Ordian hun dükezü zuretako, hersa zitian obra aphaler, eta kanpotikuer, eta alageraxe zitian egitate hunetan: egürüki dezazün, konfidantxa fermo bateki, ene jitia, eta zelüko bisita pazentziareki soferi dezazün zure desterria, eta ezpiritiaren idortarzüna: nik arzara bisita, eta erreustarzün orotarik libra zitzadan artio.

Ezi ahatz eraziren deizüt zure phena, eta barneko phausiak goza eraziren zütüt.

Hedatüren zitit zure aitzinian eskriptüraren edertarzünak; amurekatik, bihotza largatürrik, has zitian lasterkan ene manien bidian.

Eta erranen düzü; *mündü huntako soferitzek ezte merexitzen gütan agertüren den beste mündüko gloria.*

LII. KAPITÜLIA

*Gizonak uste ükhen behar diala
lehenago merexi dütia azote
kolpiak, eziez konsolazioniak.*

1. Jauna, eztit merexi zure konsolazionia, ez bisita ezpirituala: eta hartakoz jüstoki tratatzen naizü, prauberik eta eskerniatürrik eizten naizü-nian.

Ezi, itxaso bat nigar egin ahal nezan ordian, enikezü orano merexitzen zure konsolazionia.

Hartakoz deus besterik eztit merexitzen, baik ere azotatü, eta gaztigatü izatia; zeren ardü-ra, eta mortalki ofensatü beitzütüt, eta gaiza hanitxetan, hüts handirik egin beitüt.

Egiazko arren arrazua untsa ezagütütirik, eztit merexi konsolazionerik mendren mendrena.

Bena zük, Jinko ezti, eta miserikordius zirena, zure obrak gal ditian nahi eztüzüna, miserikordiaren untzien eretzian, zure huntarzünaren aberastarzünen erakusteko; badüzü karitatia

zure zerbütuariaren, harek ihuntik merexi dian beno haboro konsolatzekua, gizonek orok egin liroien beno hobeki.

Ezi zure konsolazioniak eztütüzü, gizonen elhestak bezala.

2. Zer egin düt, Jauna, zük eni eman zinizadan zelüko zunbait konsolazione?

Nik nihaur beithan ezagützen dit, deus hunik eztüdala egin; bena biziuetara bethi ekharri, eta hunialat ützültzeko herabezti izan nizala.

Hori egia düzü, eta etzirozüt ükha.

Bestela erran baneza, zü jar zinteke ene kuntre, eta elükezü ihur ni süstenga nindiruanik.

Zer merexitü düt ene bekhatientako, ifernia, eta sü eternala baizik?

Egian aithortzen dit, trüfak eta mesperetxiak merexi dütüdala untsa, zure deboten artian izentatü izatia: eta zunbat ere hori nekez entzüten beitüt; haregatik orogatik salhatüren zitit ene bekhatiak, nihauren kuntre, egiaren süstengutan, amurekatik zure miserikordiaren ehiñerago jardiestia, merexi dezadan.

Ogendant nizanian, eta ahalkez betherik naguenian, zer erranen düt?

Eztit, hitz hunen erraiteko baizik, mihirik, bekhatü egin dit, Jauna, bekhatü egin dit, heizü nitzaz pietate, pharka ezadazü.

Eitz nazazü aphür bat, ene doloriaren nigarrrez hüstera, lür ülhün, eta heriuaren belzkür az estalirik daguenialat juan beno lehen.

Deus galthatzen düzia, gar habororeki, bekhatore miserable ogendant bateganik, eziez bihotzeko dolümenian izan dadin, eta bere faltegatik ümilia dadin.

Egiazko dolümenian, eta bihotzaren ümiliaztzian, sortzen düzü pharkamentiaren esparantxa, phausatzen düzü kontzentzia nahasia, arraberriten düzü grazia galdia, begiratutzen düzü gizona, gero jin behar dian koleratik, eta Jinkua, eta arima penitenta batzen dütüzü alkharreki, besarka saintü batetan.

4. Bekhatien dolümen ümila, sakrifizio mait-hagarri bat düzü zuretako, Jauna, zuñek ürrin hanitxez hobiago bat egoixten beitü, zure aitzinian, eziez intxentsü erratzen denak.

Hori düzü orano ünkhentü preziatü, zure huñ sakratietara ixur ledin nahi ükhen züniana: zeren ezpeitüzü seküla belzuririk egin bihotz dolüme-
nez eta ümilitatez betherik daguenari.

Han düzü gure etsaiaren kolerari ihesi egite-
ko lekhia; han theiarzün bestetarik bildü dütügü-
nak oro garbitzen, eta hunialat khanbiatzen
dütüzü.

LIII. KAPITÜLIA

*Jinkuaren grazia eztela laket, lürreko
gaizetan gozo hartzen dienekilan.*

1. Ene semia, ene grazia preziatü düzü, ezin unhesten dizü, kanpotiko gaizekilan, eta lürreko konsolazionekilan, nahastekatü izatia.

Apartatü arren behar dütüzü, graziaren baragalliak oro, haren ükheitia desiratzen badüzü.

Besteganik berhez zite, maite ükhen ezazü ihur ere gabe izatia, eztezazüla txerkha ihureki elhestatzia; bena bai lehenago Jinkuaren debotki othoitzia, amurekatik kontzentzia xahürik eta ezpiritia dolümenareki etxei ditzazün.

Eztezazüla mündü oroz pheretxürik batere egin: Jinkuaren zerbüttxatzia kanpotiko gaiza ororen gañetik, ezar ezazü.

Ezi eztirokezü ezpiritia eneki etxei, eta thenpora beraurtan gaiza igaraiten diren hoietan plazer har.

Hürrüntü behar düzü ezagünetarik, eta maite dütüzüneganik, eta zure ezpiritia gibeltü konso-lazione thenporal orotarik.

Hartakoz jondane Phetiri apostoliak othoitzen zitizü, Jesü-Kristen zerbüttxari leialak, bere büriak bidejant, eta arrotz eli bat bezala etxeke ditzen mündü huntan.

2. Ala beitüke konfidantxa handia, hiltzerako phüntian, mündü huntako gaizaren baten ere estekamentürik eztütianak.

Bena ezpiritü orano eri den batek, ezin bere beithan enthelegatzen dü, zer den, hala bihotza-ren gaiza orotarik laxatürik ükheitia; eta gizon aragiareki estekatürik daguenak, eztaki zer den gizon debotaren libertatia.

Haregatik orogatik, nahi bada egiazki debot izan, behar dü hañ untsa hüllaner, nula hürrüner adio erran, eta ihuri ere ez haboro gogua eman, eziez bere büriari.

Zihauren büria erras garhaitzen badüzü, bes-tetan ehiñerago bürütan juanen zira.

Berebüriaren garhaitzia da, bitoria osua.

Ezi nurk ere bere büria aphaltürik etxekiten beitü, gisa batez nun, aragia arrazuaren, et arrazua ene obedienzian egon dadin gaiza orotan, hura da egiazki bere büriaren garhaitzale, eta mündiaren bürzagi.

3. Goratarzün hortara igaitia desiratzen balin badüzü; hasi behar düzü bihotztoiki, eta zañiala drano aixkora phikua eman, amurekatik idoki, eta desegin dezazün, zihaurganatko, eta mündüko hun berhezi ororentako düzün, enjogidüra gaixto estalirik daguena.

Herrotik garhaitü behar diren gaizak oro daude kasi, bizio hortan, erran nahi beita, bere büriaren sobera behar ezten bezala maithatzian: gaitz hori garhaitüz eta plegatüz geroz, ihurk ükhenen dü berhala bake, eta phausü handi bat.

Bena nula jente aphür iseiatzen beitira, bere büriari osoki hiltzera, eta bere beitharik ezpeitira erras jalkiten: hartakoz egoiten dira bere beithan nahasirik, eta eztitake ezpiritüz berak beno gorago juan.

Eneki aldiz, threbükü gabe, ebiltia desiratzen dianak, behar dütü bere bihotzeko nahikünte

gaixto, eta okherrak oro hil erazi, eta kreatürari bateri ere, ez pasionereki estekatü amurio berhezi batez.

LIV. KAPITÜLIA

*Graziaren, eta natüraren bulka ezin
alkharreki konpostatzen ahal
direnetzaz.*

1. Ene semia, untsa gogua eman ezazü natüraren eta graziaren bulker: zeren ezabaki alkharren kuntre bulkatzen beiti; eta nekez berhezi izaten beiti, gizon debotaz, eta barnetik argitü denaz baizik.

Egiala orok gaiza huna desiratzen die, eta uste die zerbait hunik badela hen erranetan, edo eginetan: hartakoz hunaren itxuraren pian hanitx inganatü izaten dira.

Natüra finazius da, bereganat hanitx jente thiratzen dütü, lazuetan hartzen, eta inganatzen, eta berauri bethi azkenik so egiten dü.

Grazia aldiz sinpleki ebilten da, üdüripen gaixto oroatrik gibeltzen da, inganiorik eztü nahi, eta gaizak oro egiten dütü xahüki Jinkuagatik, zuñtan azkenki phausatzen beita.

2. Natüra ezta nahi bortxaz baizik hil, ez her-satü ez goithü izan, ez bere olez besten pian plegatü, ez jarri.

Grazia aldiz bere büriari bortxa egitera iseiatzen da, aragiaren nahikünter bühürtzen da, pian izatia txerkhatzen dü, goithü izatia desiratzen dü, ezta nahi bere libertatiaz zerbüttxatü, gaztigiaren pian izatia maite dü, ihuren gehien-guarik eztü galthatzen; bena bai Jinkuaren pian bethi bizitzia, egoitia, eta izatia, eta Jinkuarten amurekatik prest da, kreatüra ooren pian ümilki jartera.

Natüra bere abantallagatik triballatzen da, eta zer irabazi beste bateganik jin ahal dakidion, gogua emaitn dü.

Graziak aldiz hobeki so egiten dü, ez zer abantalla, edo hun berauri jin dakidion, bena hanitxentako profeitable datekianari.

Natürak gogo hunez uhuria, eta koladak hartzen dütü.

Graziak aldiz uhuria, eta gloria oro Jinkuari leialki emaiten dütü.

3. Natüra ahalkiaren, eta mesperetxiaren lotsa da.

Grazia aldiz alageratzen da, Jesü-Kristen ize-netan goitzarrenen unhestiaz.

Natürak aurerkheria, eta khorpitzaren phausia maite dütü.

Grazia aldiz deus egin gabe eztauke, eta triballia gogo hunez besarkatzen dü.

Natürak gaiza berrien, eta ederren ükheitia txerkhatzen dü, hastio dütü xarrak eta lodiak.

Graziari aldiz gaiza sinple, eta ümilek plazer egiten die, eztütü lodiak mesperetxatzen, ez-etre xaharkiz beztitziari belzuririk egiten.

Natürak gaiza thenporaler so egiten dü, lürreko irabaziez alageratzen da, eta damiaz tristetzten, hitz arhinzki erran batez khexatzen da.

Graziak aldiz, eternitateko gaizetan, gogua etxekiten dü, thenporaler estekatü gabe daguelarik, gaizen galziak eztü nahasten, ez-etare elhe gaixtuek khexa erazitzen: zeren zelian, deus gal-tzen ezten lekhian, ezarri beitü bere tresaura eta boztariaua.

4. Natüra nahius da, eta hartzen gogo hobez dü, eziez emaiten, bere gaiza propioak maite dütü.

Grazia aldiz debot, eta komün da, berhezkerier ihesi egiten dü, aphürrez pairatzen da, *emaitia hobiago dela* uste dü, *eziez hartzia*.

Natüra kreatüretarat, bere aragi propialat, banitatetarat, eta elhestetarat erortoki da.

Graziak aldiz Jimkuaganat, eta berthütetarat thiratzen dü, kreatürak eizten dütü, mündiari ihesi egiten dü, aragiaren nahiküntiak hügü dütü, ezpiritiaren barreiarzünak baratzen dütü gizonen artian agertzera ahalke da.

Natürak gogo hunez kanpotiko zunbait konsolazione hartzen dü, zuñtan gozotako plazer bat edireiten beitü.

Graziak aldiz, Jinkuatan beraurtan konsolatü izatia txerkhatzen dü, eta gaiza ikhus ahal ditakian ororen gañetik, huntarzün ezinago handi denian, bere plazera edereiten dü.

5. Natürak oro egiten dütü bere irabazi, edo abantalla propioagatik, deus eztü egiten dohañik, bere hunki eginen phakü, esparantxa dü, ükhe-

nen diala, berak egin bezalako bat; edo hobe bat, edo laidorio bat, edo ürgaizte bat; eta bort-hizki nahi dü bere gaiza eginak, edo emanak, hanitx pheretxatiak izan ditian.

Graziak aldiz, deus ere thenporalik eztü txerkhatzen, ez beste phakürik jinkua bera bai-zik ordaritako, eta gaiza thenporal behar diren-tarik batere eztü desiratzen, huntarzün eterna-len jardiets erazitzeke zerbüttxatzen ahal zaitzo-nak baizik.

6. Natüarak plazer hartzen dü, adixkide eta askazi hanitx ükheitiaz, etxe hunetik; eta arraza handitik jalkitiaz glorifikatzen da, püxanter goga-ra egiten dü, aberatsak lausenkatzen dütü, eta bera üdüri direnen ützüliak laidatzen dütü.

Graziak aldiz, etsaiak ere maite dütü, ezta adixkiden hanitxtarzünaz handitzen, eztü etxiak, ez sortzepenaz kasürik egiten, han berian edirei-ten ezpada berthüte handiago bat.

Praubia lehenago, eziez aberatsa ürgaizten dü, ogen gabia dolügarriago zaio, eziez püxanta, egiatiareki laketago da, eziez inganazaliareki.

Jente pherestiak korajutzen dütü, bethi obra hobiagorik egitera inbeia ükhen dezen, eta Jinkuaren semiari, berthüten moianez, üdüri izan ditian.

Natüra mentsaz eta phenaz plañitzen da berhala, Graziak fermoki gabezia soferitzen dü.

7. Natürak beraurganat gaizak oro ützül erazitzen dütü, beraurgatik indarkatzen da, eta bestetan zerbait arrerraiteko edireiten dü.

Graziak aldiz, Jinkuaganat oro ützültzen dütü, zuñeganik lehen üthürbürütik bezala jalkiten beita; deus hunik berauri eztü unhesten, ez beraurtzaz ürgüllütsüki phakü izaten, debadiorik eztü eraikiten; bere sendimentia bestena beno hobe eztü etxekiten; bena bere sendimentü, eta enthelegü orotan zühürtze eternalaren, eta Jinko oro ikhusten eta ezagützen dütianaren pian, jarten da.

Natürak segretien jakitia, eta berrien entzütia lehiatüki desiratzen dü, kanpuan agertü nahi da, eta hanitx gaiza zentziez borogatü; burre ezagütü izan ledin nahi lüke, eta egin hanitx gaiza, laida eta pheretxa erazi liroi enetarik.

Graziak aldiz, eztü axolik berrien, eta gaiza eztakitzenen ikhastiaren; zeren hori oro bekhatü orijinal xaharraren gaixtotarzünetik sorthü beita; deus berririk, ez iraupusik eztenen gañen mündü huntan.

Gisa batez nun erakusten beitü, zentzien begiratzen, banaloriari eta banitatiari ihesi egiten, laidatü behar dien, eta jüstoki miragarri diren gaizen ümilki gordatzen, eta gaiza orotarik, eta jakite orotan ezpiritüzko abantallaren idokiten, eta Jinkuaren laidoriuaren, eta uhuriaren txerkhatzen.

Eztizü nahi, ez bera, ez beriak banitatiak izan ditian; bena nahi likezü Jinkua bere gaiza emanetan benedikatü izan dadin, zuñek oro largoki emaiten beitütü, amurio pür batez.

8. Grazia haur da zelüko argi bat, Jinkuaren dohañ berhezi bat, haitatü izan direnen señale propi bat, eta salbamentü eternalaren gaje bat, zuñek gizona lürreko gaizetarik, zelükuen mait hazalia gora erazitzen beitü, eta aragiari enjogizetatetik, debozionialat ützü erazitzen.

Zunbatenaz arren natüra ürüxki eta goithü izatera hobeki erakharten beita; hanbatenaz grazia handiago baten ixuria jiten da, eta barne-tiko gizona, bisita berririk egün oroz ükheitez, Jinkuaren imajinaren araur, arraberritzen da.

LV. KAPITÜLIA

*Natüraren gastatü izatiaz, eta
Jinkuaren graziaren egitate azkarraz.*

1. Ene Jinko Jauna, zure üdüriala, eta imajinala egin naizüna; emadazü grazia, hañ handi, eta salbatü izateko, hañ mengua düdala, erakutsi deitazün haur; amurekatik, ene natüra ezinago gaixto bekhatietara, eta perdizioniala thiratzén naian haur, garhait dezadan.

Ezi borogatzén dizüt ene aragian bekhatiaren lege, ene ezpiritiaren legiaren kuntre juaitén den bat, eta esklabo bat bezala, hanitx gaizatan berauren desirén konplitzera eramaitén naian bat, eta eztirozüt irax haren pasioniak, zure grazia ezinago saintiak, ene bihotziala sü handireki ixuri izan denak, ürgaiztén ezpanai.

2. Zure graziaren, eta grazia handiaren mengua badizügü, natüra, gaztezaruaz geroz bethi gaizkiala ekharri den hunen, goitzeko.

Ezi Adam lehen gizonak eror erazirik, eta bekhatiaz gastatü izan unduan, maküla horren phena hedatü düzü gizon orotarar, gisa batez nun natüra hura bera, zuñ zützaz untsa, eta xüxen egin izan beitzen, biziuaren orai, eta natüra gastatü izan den flakeziaren, hartzen beita, zeren eta haren bulkak, beraur eizten bada, gaizkiala, eta lürreko gaizetara thiratzen beitü.

Ezi indar aphür baratü zaiona, sü txinkha hauts pian gorderik daguena bezala düzü.

Hori da arrazu natürala bera, ülhüntarzün handi batez üngüratia, hunkiaren, eta gaizkiaren, egiaren, eta gezürraren orano ezagützen dakiana; zunbat ere ezpeitirota konpli hun zaitzon gaizak oro, eta ezpeita orai gozatzen egiaren argi osuaz, ez bere bihotzeko xüxentarzünaz.

3. Hortik jiten düzü, ene Jinkua, ene barnetiko phensamentiez, zure legian gozo hartzia, daki-dalako zure mania hun, jüsto eta saintü dela, zuñek erakusten beitü orano, zer den gaizkia, eta bekhatiari ihesi egin behar dela.

Bena aragiak bekhatiaren legiala plega erazitzen nizü, haren desirer lehen, eziez arrazuari maniak egiten dütüdanian.

Hantik düzü nitan *hunaren nahia, nula egin dirodan aldiz, eztit edireiten.*

Hantik jiten dütüzü, hanitx huntarzünen egiteko, ardüra hartzen dütüdan deseñak; bena grazia ments badüt, ene flakeziaren ajütatzeko, den mendren indarrak, eta bühürtziak eitz erazitzen ditzadazü, eta faltala erorten nüzü.

Hantik heltzen düzü orano konplitü izatiaren bidia ezagützen düdalarik, eta aski klarki ikhusten, zer gisaz gobernatü behar düdan: nihauren gaxtotarzünaeren pheziaz kargatürik, ezpeitüt ene büria goiti erazitzen gaizarik hoben direnen egitera.

4. Ala beitüt, Jauna, ezinago zure graziaren mengua handia, bai gaiza hunaren hasteko, bai hartan aitzina juaiteko, bai-etare haren akabatzeko.

Ezi hura gabe deus etzirozüt egin, zütan aldiz oro bazirotzkezüt, graziak azkartzen naialarik.

O egiazki zelüko ziren grazia, zuñ gabe deus ezpeitira gure mereximentiak, eta gure natüraren propitajek deus ezpeitie izan behar pheretxatü.

Deus jakitek, deus aberastarzünek, deus edertarzünak, edo azkartarzünak, deus ezpiritiak, edo untsa mintzatziak eztizie balia zure erezian, Jauna, zure grazia gabe.

Ezi natüraren propitajiak, hunen eta gaxtuen komün dütüzü: haitatien aldiz dohañ berhezia düzü grazia, edo amuriua, zuñtzaz edertürrik, eta señalatürrik direnian, merexitzen beitie bizitze eternala.

Hañbestetara duazü grazia hunen goratarzüna, nun gero jinen diren gaizen jakitia, miraküllien egitia, eta zunbat nahi beita handi den Jinkuaren ezpiritüz ikhustia, deus ezpeitira hura gabe pheretxatü izaten.

Haboroz haboro fedia, esparantza, eta beste berthütiak etzaitzü maithagarri, karitatia eta grazia gabe.

5. O grazia ezinago dohatsia, ezpiritüz prau-be, berthütez aberats erazizalia, eta hanitx

hunez aberats denaren bihotzez ümil izan erazi-zalia.

Ziauri jaits zite nitara, betha nazazü goizetik gora zure konsolazionez; beldürrez eñhiaren handitarzünak, eta ezpiritiaren idortarzünak ene arima engoxa erazi dezan.

Othoitzen zütüt, Jauna, zure aitzinian grazia ediren dezadan; ezi zure graziaz aski dit, natürak desiratzen dütian gaizetarik, ez jardietsirik ere batere.

Izanik ere tentatü, eta thürbürarzün hanitxz eskerniatü, eztit lotsarik ükhenen, zure grazia eneki den ber.

Hura düzü, ene azkartarzüna, hura eni konseillü eta sokhorri emailia.

Etsaiak oro beno photerusago düzü, eta zühürrak oro beno zühürrago.

6. Hura düzü, egiaren bürzagisa, jakite hunaren erakuslia, bihotzaren argia, hersidüraren konsolazione, tristeziaren akazazalia, lotsaren idokizalia, debozioniaren hazlia, nigarren erakharlia.

Zer niz hura gabe, zur idor bat baizik, eta zañ, egoixteko baizik hun ezten bat.

Zure graziak arren, Jauna, bethi aitzinetik eta undotik lagünt nazala, eta obra hunen egiteko thaik gabe erphai etxeki nazala, hori galthatzen deizüt, Jesü-Krist zure semiak hala biz.

LVI. KAPITÜLIA

*Gihauren büriak eitziz behar
dütügüla, eta Jesü-Krist,
khürütxiaren kharreiatzian, imitatü.*

1. Ene semia, zunbat ere zihaurganik jalkiren ahal beitzira, hañbeste eneganat igarenen ahal zira.

Hala nula kanpuan, ezdeus desiratziak, bar-neko bakia emaiten beitzü; orobat barnetik bere büriaren eiztiz, jinkuareki jüntatzen dü.

Nahi dit, zure büriaren konplitüki ene boront-hatiala eizten ikhas dezazün, plañürik egin, eta arrerraitekorik ükhen gabe.

Jarraiki zakitzat, ni nüzü bidia, egia, bizia.

Biderik gabe eitzüzü ihur juaiten, egjarik gabe eitzüzü ihurk ezagützen, bizirik gabe eitzüzü ihur bizitzen. Ni nüzü zü jarraiki behar zitzaion bidia, sinhetsi behar düzün egia, eta esparantxa ükhen behar düzün bizitzia.

Ni nüzü, gaxtotzen ezin den bidia erraiten ezin den egia, eta mügarik eztian bizitzia.

Ni nüzü, bide ezinago xüxena, egia gehiena, bitze egiazkua, bitze dohatsia, bitze kreatü izan eztena.

Egoiten bazira ene bidian, ezagütüren düzü egia, eta egiak libratüren zütü, eta bitze eternala jardietsiren düzü.

2. Nahi bazira bizitzian sarthü, begira itzazü ene maniak.

Nahi badüzü egia ezagütü, sinhets nazazü.

Nahi bazira hunian konplitü izan, jal itzazü oro.

Nahi bazira ene dizipülü izan, *eitazü zure büria.*

Nahi badüzü bitze eternala gozatü, mesperetxa ezazü oraiko bizitzia.

Nahi bazira zelian gora izan, apha zite mündian.

Nahi bazira eneki errege izan, kharreia ezazü eneki khürützia.

Ezi khürütxiaren zerbüttxariek baizik, eztizie edireiten salbamentiaren, eta egiazko argiaren bidia.

3. Jesüs jauna, zeren zure bidia hersi den, eta mündiaz mesperetxatü, emadazü grazia, haren berauren mesperetxiareki, zure imitatzekua.

Ezi eztüzü zerbüttxaria, bere Jauna beno gehiago, ez-etare dizipülia, bere bürzagiaren gañetiko.

Phena bedi zure zerbüttxaria, zure bizitziaren imitatzez; zeren hartan beitago ene salbamentia, eta egiazko saintütarzüna.

Hartarik kanpo, irakurten, edo entzüten dütüdan gaizak batek ere, ezitazie ez plazer, ez kontentamentü oso bat emaiten.

4. Ene semia, zeren horik beita kitzü, oro irakurtü beitätüzü: dohatsü izanen zira, egiten ere balin badütüzü.

Nurk ere ene maniak beita kitzta, eta hurak begiratzen beitätü, hura da, ni maite naiana, eta nik hura maite ükhenen düt, eta ene büria hari erakutsiren deiot, eta eneki jar erazitzen düt ene aitaren erresoman.

5. Biz hala egin, Jesüs Jauna, nula zük erran, eta hitzeman beitüzü, eta Jinkuak datsala grazia hori merexi dezadan.

Hartü dizüt, hartü zure eskütik khürützia, egariren dizüt, bai egariren dizüt hil artio, zük nitan ezarri düzün bezala.

Egiazki fraide hun baten bizitzia khürütxe bat düzü, bena bai pharadüsialat gidazalia ere.

Behin hasiz geroz, gibelialat ützültzia ezta sori, ez-etare hasi izan denaren eiztia.

6. Eia bada, ene anaie maitiak, guatzan alkharreki, Jesüs gureki dateke.

Jesüsen amurekatik hartü dügü khürütxe haur, Jesüsen amurekatik irañ dezagün, khürütixian azkentziala drano.

Gure ajütazale dateke, gure gida, eta aitzinetiko izan dena.

Haur dela gure erregia, gure aitzinetik ebiltan dena, zuñek guregatik gerla eginen beitü.

Jarraiki gakitzon bihotztoiki, herratziaren ihurk eztiala lotsarik; prest gaudian korajuski gerlan hiltzera, eta eztezagün thonarik eretxeki gure gloriari, khürütxiari ihesi eginez.

LVII. KAPITÜLIA

*Gizona eztadin izan sobera
deskorajatü zunbait faltatara erorten
denian.*

1. Ene semia, egitekuak gaizki duatzanian, pazentziak, eta ümilitatiak haboro plazer egiten ditazie, eziez, nahi bezala duatzanian, konsolazione, eta debozione hanitxak.

Zure kuntre erran datekian gaiza txipi batek, zeren tristetzen zütü?

Handiago izan baliz ere, eztünükian izan behar alteratü.

Eitzazü arren igaraitera, eztüzü hori gaiza berri bat, ez zuri heltü zaizün lehena, ez izanen ere azkena, lüzaz bizitzen bazira.

Aski bihoztoi zira, deus nahi eztüzünik hel-tzen etzaizüno.

Konsellü hunik ere emaiten düzü, eta badaki-zü zure elhez besten korajatzen: bena uste gabezko thürbürarzün bat zure borthala jin den

bezañ sarri, konsellia eta indarra mensten zaitzū.

Gogua emazū, ardūra gaiza txipietan borogatzten dūzūn, zure flakezia handiari: orotrat ere horik eta beste holakorik zerbait heltzen denian, oro zure salbamentūtako gerthatzen direla.

2. Jar zite bihotzez hobekienik dakizūn beza-la, eta halarik ere hunki bazūtū, etzitzala haregatik deskoraja, ez-etare lūzaz arankūraz betherik etxekei.

Ezpadirozū boztarioreki, mendrenetik pazentziareki soferi ezazū.

Nahi bada zure gogara ezten zerbait entzūn, eta zihaur beithan khexakeria zunbait sendi dezazūn; izan zite zure būriaren būrzagi, eta eztezazūla eitz zure ahotik txipiak eskandalisa litiruan, hitzik jalkitera.

Bertan, zūtan sorthū den khexaddūra, ematūren dūzū; eta graziaren jitiareki barnetiko doloria eztitarzūnetara khanbiatūren dūzū.

Orano bizi nūzū (ziozū Jaunak) prest zure ajūtatzera, eta zuri kostūmatū dūdan beno konsola-

ziona handiagorik emaitera, nitan fidatzen bazira, eta ni debotki izentatzen banaizü.

3. Ükhezü koraje, eta indar, adela zite soferitze handiago batetara.

Eztüzü oro galdü, nahi bada ardüra zure büria eskerniatürik, eta garratzki tentatürik ediren dezazün.

Gizon zira, eta ez Jinko, aragi zira, eta ez Aingürü.

Nula bethi egon ahal zinteki berthütiaren heñ berian, Aingüria zelian, eta lehen gizona lürreko pharadüsian egon eztirenen gañen?

Nik doloretan direnak eraikiten zitit, sendotzen dütüdalarik, eta ene jinkotarzünaren ezagütziala goiti erazitzen, bere flakezia ezagützen dienak.

4. Biz, Jauna, zure hitza benedikatü eztia beno enetako eztiago ena.

Zer egin niro ene thürbürarzün, eta hersidüra hañ handi direnetan, zük, zure elhe saintietzaz, azkar ezpanentzazü?

Salbamentiaren lekhü següriala hel nadin ber, zer axola düt, nik soferitü dütüdan gaizen hanitxtarzünaz eta handitarzünaz?

Emadazü azkentze hun bat; emadazü mündü huntarik jalkite dohatsü bat.

Orhit zite nitzaz, ene Jinkua, eta jua erazi nazazü bidexka xüxenaz zure erresomalat hala biz.

LVIII. KAPITÜLIA

Guretako goregi diren gaizetzaz; eta eztiela behar Jinkuaren jüjamentü estalier sobera xehe txerkhatü.

1. Ene semia, begira zite, gaiza goretzaz, eta Jinkuaren jüjamentü estalietzaz debadiotan sartzetik; zerentako haur eitzia, hura hartzia den, hañ grazia handi batentako; eta zeren orano haur tristeziatz hañ aphaltürik daguen, hura aldz boztarioz, hañ untsa goratürik.

Horik gizonaren jakitia beno gorago diren gaiza eli bat dütüzü: eta eztüzü ez arrazurik batere, ez debadiorik, Jinkuaren jüjamentia ikhertzen ahal dianik.

Nuiz ere arren etsaiak phensamentü horik emaiten beiteitzü, edo orano gizon oro jakin beharrek galtatzen deitzienian; ihardets ezazü profetareki *jüsto zira Jauna, eta xüxen düzü zure jüjamentia.*

Hulaxe ere bai, *Jaunaren jüjamentiak egiak dira, bere beithan jüstotarzüna dadüke.*

Ene jüjamentien ihurk lotsa izan behar dü, eta ez hurak ikhertü; zeren gizonen enthelegia, ezin hetara heltzen ahal beita.

2. Eztüzüla orano arrankürarik, ez debadorik saintien mereximentietzaz; eia bata bestia beno saintiago denez, edo handiago zelietako erresoman.

Holako gaizek ardüra sor erazitzen zitizie debadio eta alterarzün banuak; ürgüllia, eta banaloria ere hazten zitizie: nuntik jiten beitira jeloskeriak; eta alkharren unhetsi nahi gabiak, batak saintü bata, bestiak bestia, ürgüllüreki iseiatzen direlarik, besten gañetik ezartera.

Bena holako gaizen jakin eta ikhertü nahiak, eztü abantallarik batere erakharten, eta bai aldiz saintier haboro desplazer egiten; zeren ezpeiniz ni debadiuaren Jinkua, bena bai bakiarena; zuñ bake, egiazko ümilitatian, beitago lehenago, eziez bere büriaren goititzian.

3. Zunbait amuriozko zelo batez ekharriago dira batzetrat, edo bestetrat sü handireki; bena hori gizonetik lehen, eziez Jinkuaganik jiten da.

Ni niz, saintien ororen egilia, nik ükhen erazi diezüt grazia, nik eman diezüt gloria.

Nik ezagützen zitit bat bederaren mereximentiak, nik aitzinetik eman ditzezüt ene ezitarzünaren beneditzioniak.

Nik thenporak oro beno lehen jakin dit, zuñ ziren ene maitiak, nik hurak mündütik haitatü zitit, hek ni beno lehen.

Nik deitü zitit, ene graziaz, eneganat jin erazi ene miserikordiaz, nik gidatü zitit, hanitx gisatako tentazionetzaz.

Nik ixuri diezüt konsolazione ederrik, nik eman direzüt ürrhenziala drano iraiteko grazia, nik khoruatü dit hen pazentzia.

4. Nik ezagützen zitit lehena, eta azkena, nik besarkatzen zitit oro, amurio ezin preziorik emaiten zaion batez.

Nik, ene saintietan orotan, laidatü izan behar dit, nik, gaiza ororen gañetik, benedikatü izan behar dit, eta uhuratü hetarik bat bederatan, salbatü izateko haitatü, eta hañ gloria handian, ezarri dütüdanen gañen, hen aitzinetiko mereximentürik batere gabe.

Nurk ere arren ene saintü txipienetarik bat mesperetxatzen beitü, harek eztü handia uhurazten; *zeren txipia eta handia nik eginik beitira.*

Eta nurk ere ene saintietarik zunbaiti, zerbait idokitzen beitü, eni nihauri idokitzen dü, eta gañeratiko zelüko erresoman direner orori.

Oro karitatiaren oropiluz bat dira: sendimentü bat die, gaiza bera nahi die, eta gaiza bakhoitz batetan, alkhar maite die.

5. Ni orano (hanitxez gorago den gaiza bat beita), bere büriak, eta mereximentiak beno maitiago naie.

Ezi berak beno gorago altxatü izanik, eta beraurien amuriotik elkhirik, oso osua ene maite ükheitalia igaraiten dira, eta nitan gozamen konplitü bateki phausatzen.

Deusek ere eztiroketza, ez gibelt, ez apha, egia eternalaz betherik, sütan jarten direlakoz, karitate ezin hiltzen denaren süyaz gorthürik.

Daudian arren gizon aragiari enjogi direnak, saintien izatiaz, hitzik erran gabe, zuñek beraurien plazerak baizik ezpeitakie maithatzen.

Hek hertzen edo emendatzen zitizie hen laidoriuak, beren enjogidüraren araur, eta ez egia eternalari plazent zaion bezala.

6. Hanitxentako jakin gabia da kausa, eta orotan gainti, argi aphür ükhen dienenako, zuñek arraroki beitakie, nurbaiten maithatzen, ezpiritüzko amistantxa osoki hun den batez.

Beren desir, eta amistantxa natüralak orano, batzen, edo besten maithatzera, azkarki erakhartyen dütü, eta zer ere sendimentü beitie lürreko gaizetzaz; hala ustekeria dükeie datekia-la zelükoetzaz ere.

Bena bada hürrüntarzün ezin pareiatzen den bat, jakin gabek ükheiten dütien phensamentien, eta Jinkuaren argiaz argitürik direnek, xehe so eginez ükheiten dütiennen artian.

7. Gogua emazü arren, ene semia, zure jakitia beno gorago diren gaizetzaz mintza etzitian, hen ikhasi beharrez; bena lehenago zure arranküra, eta ezpiritia etxeki ezazü; zelüko erresoman, nahi bada txipien txipienik, zure büria ediren ahal dezazün amurekatik.

Eta nurbaitek baleki, zuñ beste bat beno saintiago lizan, edo handiagoren zelüko erreso-man igaraiten den: zer profeitü lüke jakite hortarik, ezagütze horrek, ene aitzinian, haboro ümilia, eta ene laidorio handiaguëtarat juan erazi ezpaleza.

Haboro plazer Jinkuari egiten dü bere bekhatien handitarzünaz, bere berthüten txipitarzünaz, eta bere, saintien pherestütarzünetik, ezinago hürrün izatiaz gogua betherik etxekiten dianak, eziez hen handitarzünaz, edo txipitarzünaz debadiotan sartzen denak.

Hobiago da, orazione debotez, eta nigar egitez saintien othoitzia, eta hen gureganatko lagünguaren ezpiritü ümilbategalthatzia, eziez txerkhü bano batez hen segretien ikhertzia.

8. Hurak untsa eta ezinago untsa kontent dira gizonez balekie kontent izaten, eta bere elhe auherren apaisatzen.

Eztütüzü glorifikatzen, bere mereximentü propitzaz; ezi bazikizie, eztiela bereganik huntarzünik batere: bena eneganik diela diena oro:

zeren nik ene karitate muga gabiaz eman beiteitzüt oro.

Hañ ene Jinkotarzünaren amurio handi batez, eta alagrantzia mükürri batez betherik diaudetzü, nun bere glorian, deus mentsik ezpeitie, ez-etare ükheiten ahal bere dohatsütarzünian.

Saintiak oro zunbatenaz gorago beitzira glorian, hanbatenaz ümilago dira bere beithan, hüllanago enetako, eta nitzaz maithatiago.

Hartakoz eskriptüra saintan badüzü izkribatürik: *egoxten zütiela bere khoruak Jinkuaren aitzinian, eta bere begithartetan gaña lüharrastü izan zirela, axuriaren aitzinian, adoratzan ziellarik, jinen diren thenpora orotan bizi datekiana.*

9. Hanitxek galthatzen die, nur den handienik Jinkuaren erresoman, jakin gabe, eta txipienen herrenkian ere izatia merexi dükeienez.

Gaiza handia da, txipienik ere zelian izatia nun oro handi beitira: zeren oro Jinkuaren seme dithüren, eta izanen beitira.

Txipiena milaren izanen da, bekhatoria aldiz, ehün urthez bizirik ere, bethierekoz hilen da.

Ezi ene dizipüliek galthatzen zeitaden thenporan, nur zatekian handienik zelüko erresoman: hulaxe ihardetsi ükhen neien.

Ezpaziradeie eneganat ützültzen, eta txipitzen haurrak bezala, etziradeie zelüko erresoman sarthüren. Nur ere arren ümiliatüren beita haur haur bezala, hura dateke handienik zelüko erresoman.

10. Desditxatü dira, hurreki bere olez ümilia-tzera deñatzen eztirenak; zeren zelüko erresomako bortha aphasak, ezpeitütü eitziren sartzera.

Desditxatü dira orano *aberats heben bere konsolazioniak dütienak*: zeren praubiak Jinkuaren erresoman sartzen diren thenporan, hurak kanpotik marrakaz egonen betira.

Alagera ziteie ümilak, boztarioz betha ziteie praubiak: zeren Jinkuaren erresoma zientako beita, egian hargatik ebilten ziradeielarik.

LIX. KAPITÜLIA

*Jinkuatan beraurtan gure esperantxa
eta konfidantxa oro ezarri behar
dügüla.*

1. Zer da Jauna ere, bizitze huntan, düdan konfidantxa edo zuñ da ene, zeliaren pian ageri diren gaizetarik, konsolazionerik handiena?

Etzireia zü, ene Jinko Jauna, müga gabezko miserikordia dadükazüna?

Nun untsa izan niz, zü gabe? Edo nuiz gaizki izan ahal niz, zü eneki züntüdano?

Nahiago nüzü praube izan, zure amurekatik, eziez aberats zü gabe?

Haitatzen dit lehenago lürrian zureki bedejant izatia, eziez zü gabe zeli az gozatzia. Nun ere beitzira, han düzü zelia, eta nun ere ezpeitzira, han heriua eta ifernia.

Ene desira zütan diagozü, eta hori dela kausa zure unduan igorri behar zitit, ene hasperenak, ene oihiak, eta ene othoitziak.

Ihurtan hitz batez enitezü osoki fida, ene behar ordietan, phüntianago sokhorritü izateko, eziez zütan zihaurtan, ene Jinkua.

Zü zira ene esparantxa, zü ene konsolazalia, eta gaiza orotan enetako leialenik zirena.

2. Orok nurk beria txerkhatzen die: zük ene salbamentia, eta ene profeitia baizik eztüzü nahi, eta oro hunialat ützültzen deiztadatzü.

Zunbat ere hanitx gisatako tentazionetara, eta gaitzetara eizten beinaizü juaitera, hori oro ene profeitütako egiten düzü; zeren hanitx gisaz kostümatü beitüzü maite dütüzünen borogatzia.

Eta hala borogatzen naizünian, eztüzü gütiago behar maithatü, eta laidatü izan, eziez zelüko konsolazionez bethatzen banündüzü.

3. Zütan arren, ene Jinko Jauna, ene esparantxa oro ezarten dizüt, zuri hersatzen nüzü: zureganat igorten zitit ene doloriak, eta phenak oro: zeren zütarik kanpo, ikhusten dütüdan gaizak oro, flakü, eta khanbiakor edireiten beitütüt.

Ezi adixkide hanitxek eztizie profeitürik emanen, ez ajütari azkarrek sokhorririk, ez konsella-

zale zühürrek ihardeste hunik, ez jakinsien libriek konsolazionerik, ez zunbait gaiza prezia-tük soltatzerik, ez lekhü apart, eta begien eger direnek segurantzarik: zük zihaurk ürgaizten, sokhorritzen, azkartzen, konsolatzen, eskola-tzen, eta begiratzen ezpagütüzü.

4. Ezi bakiaren, eta dohatsütarzüaren jardiets erazitzeke, hun direla üdüria dien gaizak oro, ezdeus dütüzü, zü gabe, eta eztizie egiazko untsa izaterik batere emaiten.

Zü zira arren huntarzünen ororen azken müga, bizitziaren goratarzüna, eta jakite ororen zola gabe den barnatarzüna: eta zütan, gaiza ororen gañetik, esparantxa ükheitia düzü, zure zerbüxtarien konsolazione ezinago indartsia.

Zuri diaudetzü ene begiak, zütan fidatzen nüzü, ene Jinkua, miserikordia ororen aita.

Saintü eta benedika ezazü ene arima, zelüko benedikzioniaz, amurekatik zure egongü saintü bat, eta zure gloria eternalaren jargü bat, gertha dadin, eta zure handitarzünen tenpluan deus eztadin ediren, zure majestatiaren begiak ofensa ditzakianik.

So egidazü, zure huntarzünen handiatarzünaren, eta zure miserikordien hanitxtarzünaren araur, eta zure zerbüttxari praubiaren, hürün heriuaren itzalaren herrian desterratürük daguenaren, orazonia entzün ezazü.

Estal, eta begira ezazü zure zerbüttxari txipiaren arima, bizitze gastatü hunen hañbeste perilen artian; eta zure graziaren lagüntziareki, gida ezazü bakezko bidiaz argitarzün eternalaren gozameniala. Hala biz.

HEREN LIBRIAREN AKABANTZA